

## Ana Ürrütiren *Ebanjelio Saintia Jesus-Kristena Jondane Johaneren arabera* (1873)

*Anna Urruty's Gospel of John (1873)*

Manuel Padilla-Moyano  
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**ABSTRACT:** This paper presents a critical edition of the translation into Souletin Basque of the Gospel of John by Anna Urruty, an evangelist and writer from the Country of Soule. After a biographical and bibliographical introduction, it will explain the genesis of Urruty's *Ebanjelio Saintia* and reveal the diversity of sources for the translation. Our critical edition starts from the transcription of two exemplars of the 1873 and 1888 editions. The version offered here to the reader attempts to reconstruct the original text by correcting the errors detected in those two editions. Ultimately, this work is a tribute to the extraordinary figure of Anna Urruty.

**KEYWORDS:** Anna Urruty; Gospel of John; Souletin Basque; Basque texts; Bible translation; Basque protestantism.

**LABURPENA:** Lan honetan Ana Ürrüti ebanjelista eta idazle zuberotarraren testu nagusiaren edizio kritikoa eskaintzen da. Alderdi biografiko eta bibliografikoen ondoren, Ebanjelio Saintiaren sorrera azalduko da, itzulpenaren iturrien aniztasuna agerian utzirik ere. Edizio kritikoa 1873ko eta 1888ko edizioen ale banaren transkripzioan oinarritzen da. Bi argitaraldi horietan atzeman diren akatsak zuzendurik, irakurleari eskaintzen zaion bertsioak testu originala berreraiki nahi du. Harago, Ana Ürrüti andereari aitortza ematea da lan honen azken xedea.

**GAKO-HITZAK:** Ana Ürrüti; Ebanjelio Saintia; zuberera; euskal testuak; Bibliaren itzulpena; protestantismoa.

\* Manuel Padilla Moyano. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, z/g - 01006 Vitoria-Gasteiz - [manuel.padilla@ehu.eus](mailto:manuel.padilla@ehu.eus) -  <https://orcid.org/0000-0002-2051-2885>



## 1. Sarrera

« *La parole de Dieu n'appartient à personne,  
et nous pouvons la prendre là où nous la trouvons* »  
(Ana Ürrüti. 27. gutuna. Londres, 1874-02-23)

### 1.1. Ana Ürrütiren bizitzaz, llabur

Ana Ürrüti XIX. mendeko ebanjelista eta idazle zuberotarra izan zen. Euskal ikasketetan Ürrütiren herexa luzaz egon da ahanzturan, Roquek (2013) haren gaineko hedapenezko lana plazaratu arte. Berriki, Ürrütiren biografia zirriborratzen duten datu berriak ezagutarazi dira, Joseph Nogaret artzainari igorri frantseseko gutunen edizioarekin batean (Padilla-Moyano 2023). Jarraian biografia zirriborratu horren laburpena dator; Ana Ürrütiren bizitza ezohiko bezain miresgarria zehetasun gehiago bai eta datu horien guztien iturrien berri nahi duenak aipatu lanera jo dezake.

Ana Ürrüti 1826ko ekainaren 19an sortu zen, Ozazeko familia xume batean. Hamasei urtetako adinean bere herria («mon pays») kitatu zuen,<sup>1</sup> pentsatzekoa denez, neskato lan egiteko. Badakigu 1850ean Bordeleko Alphonse Richard de la Harpe artzainaren etxeen sartu zela, eta urte haietan protestantismoa hartu zuela. Gero, noiz eta nola ez dakigula, Ürrüti Pariserat joan zen ebanjelista aritzeko. Parisen Luxenburgoko Eliza Erreformatuak lansaria pagatzen zion.

Biblia Sozietatearen galto bati erantzunik, 1869an Ana Ürrüti Euskal Herrira itzuli zen euskaldunen ebanjelizatzeko. Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa eta beste lurruk ere kurrituz, Ürrüti halako eragile bilakatu zen euskaldun protestanteen sarean; frantseseko, gaztelaniazko eta euskarazko liburuak banatzen eta trukatzen zituen, eta Vinson bezalako euskaltzale eta euskalariekiko elkarlanean hasi zen. Apez katolikoek harenganako herra biziagotu ahala, Ürrütiren egoerak eta bizi baldintzek okerrera egin zuten. Guztiaren despit, 1873an Ana Ürrütik bere erlijio proiektuaren zedarria erdietsi zuen, Baionako Cazals etxeen Jondoni Joanesen ebanjelioaren zein Pedroren Epistolen zubererazko itzulpenak argitara emanik.

Ana Ürrütik Zuberoan finkatu nahi zuen: anitz herrikidek zinez prezatzen zuten, eta horrek bere misioarekin jarraitzeko kuraia ematen zion. Halere, erlijio jazarpenaren kausaz bizi-pide ateratzeko moienak agortu zitzaizkion. Etsirik, 1874ko urtarilean Inglaterrarat erbesteratu

---

<sup>1</sup> 3. gutuna (Paris, 1869-10-25). Ez da argi hitz horiekin Ürrütik *Pays Basque* ala Zuberoa adierazi nahi zuenetz.

zen. Londresen, Ana Ürrüti frantzes protestanteen komunitatean murgildu zen. Batetik, misionest aritzen zen, eriak bisitatuz eta solajatuz; bestetik, euskalariekin kolaboratzen zuen testuak kopiatzen eta editatzen. Londreserat arribatu zenetik, Ürrüti Louis-Lucien Bonaparteren urgazle aritu zen. Vinsonekin ere harremanetan jarraitu zuen, bai eta hain ezagun ez diren beste euskaltzalerekin ere, hala nola Lætitia eta Alice Probyn ahizpekin.

Badakigu Ana Ürrüti 24 urtez egon zela Inglaterran, beti bere fede kartsuak gidatua. 1881eko zein 1891ko erroldetan agertzen da; bata besteak Biblia-emazte eta diakonesa zela diote. Zeharka, beste iturri batzuetan familia baten zerbitzuan bizi zela ikasten dugu. 1898an, min gaizto batek jorik, Ana Ürrüti Dordoinako Laforce herriko asilo batera eraman zuten, *La Retraite* izenekora. Ezin deskribatuzko sufrantzak pairaturik, hilabete luzetako agoniaren ondoren, 1900eko otsailaren 19an Ana Ürrüti zendu zen. Haren azken hitza «merci» izan zen.

## 1.2. Ana Ürrütiren testuak

Iturri protestanteek Ana Ürrütiren berri laburra ematen digute. Aipurik mamitsuena ondoko pasartearena da; bertan jakingarri interesgarriak kausitzen dira, besteak beste, zuberotartsaren argitalpenez:

Translations in the Souletin dialect brought the Society into contact with a lowly heroine of Bible-work. A simple Basque girl, Anna Urruty was brought up in the Roman Catholicism of her own people. About the year 1850 she took service with the family of Pastor de la Harpe of Bordeaux, accepted the Protestant faith, and unconsciously prepared herself for duties yet unknown. In obedience to a call from one of the Evangelical Missions, she became a Bible woman, first in the lowest parts of Paris, then in Bearn, her native country, where she suffered much persecution. By steady application she translated the Gospel of St John and the Epistles of St Peter from the French of de Sacy and Ostervald into the Souletin of her childhood; worked hard and late to provide money for their publication, and produced them at her own expense in 1873. They were afterwards revised, and at the earnest request of Pastor Bohin 3000 copies of the Epistles were printed for the Society at Bayonne in 1887 and 3000 of St John at Orthez in 1888. (Canton 1910: 258)

Euskal ikasketetan, Ana Ürrütirekiko erreferentzia Vinsonen bibliografian dago ainguratua, *Mademoiselle Anna Urruthy* gisara (1891: §§ 438 & 439). Bertan zehazten den bezala, Ürrüti bi libururen egilea da, argitaraldi binarekin:

- 1) *Ebanjelio saintia Jesus-Kristena Jondane Johaneren arabera.* Liburu honek 1873an ikusi zuen argia, Baionan, Cazals inprimatzialearen etxearen. Bigarren argitaraldia 1888koa da, Orthezeko Goude-Dumesil argitaratzialearen baitan.

- 2) *Jondane Phetiriren epitriac*. Lehen argitaraldia 1873koa da (Cazals, Baiona), eta bigarrena 1887koa; bigarren horren azalean «Baionan» irakurtzen den arren, kontrazalak «Pau — Impr. Veronese» dakar.

Euskal testuez landara, Ürrütik frantseseko gutunak igorri zizkion Joseph Nogaret Baionako artzainari (1869-1874) (Padilla-Moyano 2023). Eskutitz horiek informazio iturri bereziki aberats errebelatu dira hiru gairen inguruan: i) Ana Ürrütiren bizitza; ii) euskal testuen historia; eta iii) euskaldun protestanteen sarea. Gutun horietan, izan ere, Ürrütik testu gehiago itzuli zitzkeela irakurtzen dugu: «Je voudrais pour plus tard traduire quelque chose de plus en basque» (23. gutuna. Londres, 1874-1-15); zorigaitzez, ez dakigu zer egin den testu haiezaz.

### **1.3. Ana Ürrütiren proiektuaz**

Frau Adolf Hoffmann (ezkont aitzin Aline Rossier) idazle protestantearen kontakizuna sinetsiz gero (1922), gazte denboran Ana Ürrütik fede berria besarkatu zuen, Eliza Erreformatuaren liturgiaren egiatasunak hunkiturik. Harentzat, apez katolikoek bahitua zuten Jainkoaren Hitza (*Elhia*), eta beharrezko zen Hitz horren euskaldunei xuxen helaraztea.

1860en hamarkadaren akabantzan Ana Ürrüti laketua zen Parisen. Halere, bere zalantzak ebatzirik, 1869an Biblia Sozietatearen Euskal Herrira etortzeko proposamena onartu zuen: «Cette pensée d'évangéliser les Basques est depuis bien longtemps dans mon cœur» (3. gutuna. Paris, 1869-10-25). Orduko fanatismoak biziki zail errendatzen zuen ebanjelioaren misio hura, eta Ürrütiren hitzetan, «dans le Pays Basque plus que partout ailleurs Satan fera tous ses efforts pour empêcher que le Règne de Dieu vienne» (6. gutuna. Senpere, 1870-7-31).

Zaitasun guztien kontra, Ana Ürrüti misionest ibili zen, eta horrekin batean erlijio literaturaren ezagutzan barnatu. Eskura izan zituen euskal liburu gehientsuenak lapurteraz ziren idatziak, eta hortik sortu zitzaison zuberotarren beren *mintzajean* ebanjelizatzeko grina. 1870ean, Ürrütik bere itzulpen proiektua esplizitatzen du: «J'ai décidé que je prendrai tous les passages qui concernent Pierre, suivis de ses Épîtres pour les traduire en basque» (5. gutuna. Senpere, 1870-7-10). Beste gutun batean konprenitzen da Ürrüti beharrez lotu zaiola itzultzeari, eginkizun horren betetzeko promesa emana zioten bi jaunek beren hitza janik:

Monsieur Busson, qui m'avait promis de traduire ce que Monsieur Sallaberry avait refusé, m'a rendue aussi. Il a peur de se compromettre, il m'a dit que je pouvais le faire moi-même, et que si je faisais quelques fautes, qu'il me les corrigerait, en sorte que j'ai commencé à le faire, moi-même une part et Monsieur Monsegur, capitaine retraité, traduit l'autre partie. Après cela je copierai l'évangile Saint Jean. (12. gutuna. Ozaze, 1871-7-18)

Nogaret artzainari igorri gutunetan, Ana Ürrütik maiz aipatzen zituen *Ebanjelio Saintiaren* argitalpenak sorrarazi buruhausteak. Apez katolikoek piztu herragatik, Ürrütik mila gaiztasuni kontra egin behar izaten zion, eta horrek nabarmen zaildu zuen argitalpena. Lapurdin bizi zenean, adibidez, beldur zen bere gutunak gal litezen: «Demain je vais à Ainhoa, où je mettrai cette lettre à la poste ; le facteur est si ami avec le curé que je crains pour mes lettres» (6. gutuna. Senpere, 1870-7-31). Ozazen zenean ere, eskakizun bereziak egin behar izaten zizkion zerbait igorri nahi zion orori:

Pardonnez-moi, chère Madame [Nogaret], si je m'adresse à vous ; c'est que je ne voudrais pas en réponse une lettre de Monsieur Cazals frappée du timbre de son imprimerie, on y fait attention à tout [cela]. (17. gutuna. Ozaze, 1873-9-5)

Bestenaz, Ana Ürrütik aferak izan zituen inprenta probekin. Garai hartan Ozazen bizi zen, aitaren etxean, eta ale inprimatu berriak Baionatik jaso behar zituen.

Si donc Monsieur Cazals a quelqu'un qui puisse le faire [= corriger les épreuves], je serai bien aise, car les faire venir ici, ce serait une grande affaire. Il faut seulement que celui qui verra les épreuves connaisse le basque de Soule. J'avais convenu avec Monsieur De Félice [= pasteur à Orthez] de faire tirer 1000 ; pour le moment ce sera assez. (15. gutuna. Ozaze, 1873-6-16)

Me voilà de retour à Ossas. Ne sachant pas si Monsieur Cazals a reçu les épreuves, j'aimerais bien le savoir. Monsieur Habiague m'a assuré qu'il les a envoyées. Je ne sais si je dois le croire ou si lui-même, craignant quelques désagréments, il les aurait gardées ; je ne sais que croire, et cependant il me semble qu'il m'a dit la vérité. (17. gutuna. Ozaze, 1873-9-5)

Je suis bien peinée que mon travail soit perdu, mais toute recherche serait inutile. Voilà ce qu'il m'arrive dès qu'on s'aperçoit que je suis en rapport avec les protestants. Ma correspondance m'a été bien funeste, c'était tout ce que j'appréhendais, malheureusement je n'ai pu l'éviter. Maintenant voilà ce qu'il y a de mieux à faire, et Monsieur De Félice pensait aussi. Monsieur Cazals pourrait finir ce qui est commencé, puis reprendre ses caractères jusqu'à que je puisse refaire le reste ; il faut seulement que je sache à quel chapitre je dois recommencer. Je pense que ce garde général de forêts, ce Monsieur Vinson qui a déjà un évangile pris de mes livres à Saint-Pée chez mon beau-frère. (18. gutuna. Ozaze, 1873-9-10)

#### 1.4. Emaitzeta eta harrera

Gaiztasun guztien despit, 1873ko abenduaren hastapenean Ana Ürrütik bere *Ebanjelio Saintiaren* lehen ehun ale inprimatuak hunkitu ahal izan zituen. Badakigu itzulpenaren euskarak harrera ona izan zuela zuberotarren artean:

J'ai passé une journée et la nuit de la semaine dernière chez des amis à la montagne. Je leur avais porté un évangile, ils ont été dans l'admiration : « C'est le vrai basque ! » — disent-ils (leur basque). Ils ont été très contents. J'en ai déjà vendu deux et hier on est venu me demander deux autres que j'avais promis. Cela fait tout un autre effet à un basque qu'ils ne comprennent pas. (20. gutuna. Ozaze, 1873-12-8)

Bai eta harago ere: «Et même Monsieur le Prince [= L.-L. Bonaparte] a été très content de la traduction de l'évangile et de l'épître» (26. gutuna. Londres, 1874-2-18). Izan ere, ezaguna da Bonapartek Ana Ürrütiren zuberera euskalkiarene garbitasunaren eredutzat hartu zuela (ikus, halaber, Cid 2010):

Je commence donc pour vous dire que M. Archu dans ses traductions emploie toujours *zien* pour *zian*, ainsi que *zutien* pour *zutian* [...] ; de même qu'il emploie *zuten* pour *zien* et *zitzten* pour *zutien* [...], et ainsi *dagouen*, *nayen*, etc., pour *dagouan*, *nayan*, etc. Ou je me trompe fort, ou M. Archu s'est amusé à mêler les dialectes, chose que, pour mes études, j'abhorre comme la peste, ainsi que les archaïsmes et les mots (d'origine basque ou non) qui ne sont pas en usage général dans le dialecte littéraire dans lequel on écrit. [...] Je pense que M. Archu n'emploie pas, du moins dans ses terminatifs, un souletin pur ; car ils ne sont pas toujours ceux que nous avons recueillis ensemble en Soule, ni ceux de votre *Verbe*, ni ceux de Mlle Urrutz [sic], employés dans la traduction de l'Evangile de Saint Jean et des trois lettres de Saint Pierre, ni ceux enfin, de Mrs Abbadie et Chaho. (*Seconde lettre de Son Altesse le Prince Louis-Lucien Bonaparte adressée à Monsieur le Chanoine Inchauspe*, 1889ko otsailaren 8ko [Bonaparte 1928: 427-429]).

Bigarren edizioa Biblia Sozietateak hartu zuen bere gain. Gutunen testigantzaz landara, Aline Rossier-ek adiskide Anari dedikatu lan kasik hagiografikoan (Hoffmann 1922: 88) ondokoa irakur daiteke:

So kam es, daß Anna Urruty statt der groben Pflichten ihrer Vergangenheit von jetzt ab, die Feder in der Hand, ein ernstes, aber schönes Leben geistiger Tätigkeit führte. Ohne sie würde ja das Werk der großen Bibelgesellschaft schwerlich zustande gekommen sein; mit ihrer Hilfe und durch Gottes Gegen gelang es aber. Sie besaß ja die Erfahrung, hatte ihren Dialekt durch und durch studiert und erfreute sich der Zustimmung ihres himmlischen Herrn, ein Gut, das mehr wert ist als alles auf Erden.

[Hortaz, hemendik aitzina Anna Urrutyk, luma eskuan, bere iraganeko betebehar dorpeen ordez, jarduera intelektualeko bizitza zurren baina ederra eramanen zuen. Hura gabe, Biblia Sozietate handiaren lana nekez sortuko zen; baina hala haren babesaz nola Jainkoaren laguntzaz ere, lortu zuen. Bazuen esperientzia, bere euskalkia sakonki ikasi zuen eta zeruko Jaunaren onespaz gozatu zuen, lurreko ezer baino gehiago balio duen jabegoa.— Nihaurek zuzendutako itzulpen automatikoa]

Euskal Herri katolikoan, Ana Ürrütiren izena ahantzia izan da literaturen historiografian; beharbada, nahita ignoratua ere —Lafitteren «ahanzturarentzat», ikus Urgell (2023)—. Hala

izan ez delarik ere, Ürrütik ez du zor zitzzion aitortza jaso. Adibidez, Bibliaren euskaratzeen gaineko lan batean, ondoko baieztapen groteskoa irakurtzen dugu:<sup>2</sup>

Anna Urruthy’ren xuberoerazko itzulpena. Leizarraga’ri iarraituz egiña dirudi une askotan, arena ordea, emakume onena baino askotaz iatorragoa da. “*Hatsean zen hitza, eta hitza zen Iainkoa baithan, eta Iainko zen hitza*” dio Leizarraga’k. Anna Urruthy’k aldiz: “*Hatxarrian Elhia cen, eta Elhia Jaincuareki zen eta Elhe hau Jaiakoa zen*”. Ikus ditekenez, ez dago alde aundirik batetik bestera. (Ibiñagabeitia 2003 [1954]: 227)

Egun ere, Altonagak (2018: 59) baliozko jujamendua plazaratu du Ürrütiren zubereraren kalitateaz —arraposta batentzat, ikus Padilla-Moyano (2023: 247)—. Soilik 2013an Iñigo Roquek maisuki bildu du ordura arte eskuragarri baina barreiatua zegoen informazioa.

### 1.5. Itzulpenaren iturriez

Bere itzulpenean Ana Ürrütik zein iturritatik edan zukeen argitzea ez da eginkizun aise gertatu. Lehen ikusi denez (§ 1.2), iturri protestanteek jaso dute, ezen «she translated the Gospel of St John and the Epistles of St Peter from the French of de Sacy and Ostervald into the Souletin of her childhood» (Canton 1910: 258). Argitaragabe jarraitzen duen lan distiratsu batean, Agirrek (2016) zehazkiago deskribatu du Ürrütiren itzultziale jokamoldea, *Ebanjelio Saintia* ontzean Sacy zein Ostervald jarraitu zituelako hipotesia bermatuz, mahai gainean bi-biak balitu bezala aritu baitzen.

Aldiz, Ana Ürrütik Ebanjelioaren euskarazko bertsiorik ere baliatu zuelako zantzuak —batzuetan froga argiak— han-hemen ageri dira. Nogaret artzainari idatzi gutunetan, Ürrütik maiz aipatzen du *Testament basque* delako bat, ebanjelizazioan erabiltzen baitzuen. Ene hipotesian, liburu hori Baionan 1828an argitaratu zutena izan daiteke, *OEHk* TB laburduraz aipatzen duena. Baino Ürrütik beste *Testament basque* bat aipatzen du, «avec la signature de l'évêque», eta itxura guztien arabera hori Maurice Harrietek moldatutako Haranederren itzulpena litzateke, Baionan 1855ean argitaratua, eta *OEHk* HeH gisara aipatua. Harago, jakin badakigu Ürrütik lehenago edo berantago Leizarragaren testua ere ezagutu zuela.

Hortaz, Ana Ürrütiren *Ebanjelio Saintiaren* edizio kritikoa adelatzean, frantseseko bi iturriak (hots, Sacy eta Ostervald) gehi lapurterazko beste hirurak erabili ditut; aparatu


---

<sup>2</sup> Ez du inolako funtsik, bere itzulpenean Ana Ürrütik gutxienez lau iturrirekin lan egin zuelako; horrezaz gainera, ez da gauza segurua Leizarraga ere erabil zezan.

kritikoan bost bertsio horiek maiz dira aipatuak. Dena den, Ürrütiren itzulpen iturrien azterketa zehatza egiteke gelditzen da.

## 2. Edizioaz

Gorago erran den bezala (§ 1.2), Ana Ürrütiren *Ebanjelio Saintia Jesus-Kristena Jondane Johaneren arabera* liburuak bi argitaraldi izan zuen: 1873an (Baiona, Cazals) eta 1888an (Ortheze, Goude-Dumesil). Adelatu dugun edizio kritikoa bi argitaraldi horietan oinarritua da, bai eta beherago zehaztuko diren Joanesen Ebanjelioaren beste bost itzulpenekiko konparantza sistematikoan ere. 1. irudiak testuaren transmisioa erakusten du, non A = 1873ko edizioa, eta B = 1888koa.



**1. irudia.**

*Ebanjelio Saintiaren* stemma

*A priori*, pentsa liteke *Ebanjelio Saintiaren* bigarren edizioa lehena baino zainduagoa dela, argitaratzeko ardura Biblia Sozietateak bere gain hartu baitzuen. Kalitateari dagokionez, Baionako eta Orthezeko edizioen artean ez da desberdintasun markagarririk. Kuantitatiboki, bigarren edizioan lehenean baino huts gutiago ageri da —55 vs 89—; halere, batzuetan 1873koan xuxen zirenak akastun bihurtzen dira. Hortaz, okerrez harago, testuaren bi edizioen arteko irakurketa diber gente gehienetan 1873koaren aldaerak lehenetsi ditut, Ana Ürrütiren beraren *usus scribenditik* zein zubereratik hurbilago direlakoan.

Batzuetan *Ebanjelio Saintiaren* 1888ko argitaraldiak 1873koaren forma edo pasarte bat beharrik gabe zuzentzen du; horrela gertatu denean, 1873ko formak utzi dira. Adibidez, *hautxeric* vs *hautxiric* bikotean (7,23) lehen edizioak zubereraren tradiziokoa den *hautse* partizipioa islatzen du. Edo *hare gana* vs *haren gana* aldaeren artean (1,47), lehen edizioak genitibo arkaikoaren itxura gorde du, Zuberoako testuetan ongi lekukotua. Orobak 1873ko

*harrikhaldustatcez* → *harrikhaldustatcea* aldaketa (8,5); gramatikala balitz ere, zuzenketa hutsala da, 1873ko *harrikhaldustatcez* zuzena delako; cf. *Moisec Leguean manatu daucu harricatceaz suerte hortan direnac* TB & *Moisesec leguean aguindu darocu hunelacoac harricatceaz* HeH; hori gutxi balitz, 1888ko *harrikhaldustatcea* horrek Zuberoan idatzizko lekukotasun zaharrenetarik egikaritua agertzen den erdiko bokalaren igoeraren araua hausten du: izateko, *harrikhaldustatcia* behar luke.

Are gehiago, zenbaitetan bigarren edizioaren beharrik gabeko zuzenketa batzuk agramatikal gertatzen dira: *ikhousiric etcela han beste barkharic dicipuliac sarthu ciren hora baicic* [= ‘barka hora baizik’] → *ikhousiric etcela han beste barkharic dicipuliac sarthu ciren hourac baicic* (6,22). Edo zentzuaren kanbiarazle: *Philipec deithu çutian* [= ‘zaituen’] *beno lehen* → *Philipe deithu içen cinen beno lehen* (1,48). Azkenik, inoiz bigarren edizioak lehen edizioko huts bat gaizki zuzentzen du, etsenpluz *bethi izain behar diela Kristac* (12,34) → *bethi izan behar diela Kristac*, testuak *irain behar duenean*;<sup>3</sup> cf. *bethi iraun behar duela Christoc* HeH. Erran gabe doa, hainbatetan bigarren edizioak egiazki zuzentzen ditu lehengoaren hutsak: *hongnetara* → *hougnetara* (10,32), *icen* → *cien* (8,54), *ordian* → *erdian* (19,18), bestea bestea.

Horregatik guztiagatik, ezin erran *Ebanjelio Saintiaren* bigarren argitaraldia lehena baino zainduagoa edo fidagarriagoa dela. Beraz, lan honek edizio kritiko bat eskaini behar zuela deliberatu dut. Horretarako, 1873ko eta 1888ko edizioen erkaketa sistematikoa egin ez ezik, Ana Ürrütik itzulpenaren iturri gisara erabili zituzkeen beste zenbait bertsiorekiko konparantza ere egin dut. Honat erkatu diren testuak eta esleitu zaizkien laburdurak —ahal delarik, *OEHrenak*—:

- EvS = *Ebanjelio saintia Jesus-Kristena Jondane Johaneren arabera*.
- A = *EvSren* lehen argitaraldia (Baiona, Cazals, 1873). Transkribatu eta erabili alea Gipuzkoako Koldo Mitxelena Kulturuneko katalogoa da, Oñatiko Artxiboan gordeta, J.U. 4655a sinaduraz.
- B = *EvSren* bigarren argitaraldia (Ortheze, Goude-Dumesil, 1888). Erabili alea Koldo Mitxelena Kulturuneko katalogokoa da, J.U. 4655b sinaduraz.
- Sacy = Lemaistre de Sacy, Louis-Isaac. 1855. *La Sainte Bible, contenant l'Ancien et le Nouveau Testament, traduite sur la Vulgate par Le Maistre de Saci*. Brusela: Société Biblique Britannique et Étrangère.

---

<sup>3</sup> Testuan, ikus oin-oharra.

- Ost = Ostervald, Jean-Frédéric. 1867. *La Sainte Bible qui contient le Vieux et le Nouveau Testament. Revue sur les originaux par J. F. Ostervald. Avec des parallèles.* Brusela: Société Biblique Britannique et Étrangère.
- Lç = Leizarraga, Joannes. 1571. *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria.* Arroxela: Pierre Hautin imprimâcale.
- TB = *Jesus-Christo gure Jaunaren Testament Berria. Lapurdico escuararat itçulia.* Baiona, Lamagnière, 1828.
- HeH = *Iesu-Christo gure iaunaren Testament berria. Lehenago I. N. Haraneder Done Ioane Lohitsuco iaun aphez batec escuararat itçulia; orai, artha bereci batequin garbiquiago, lehembicico aldicotçat aguer-arazia, Laphurtar bi iaun aphezec.* Baiona, Lasserre, 1855. Testu hau Haranederren 1740 inguruko bertsioaren moldaketa da, Maurice Harrietek egina.

Testu editatua jatorrizko grafian eskaintzen da, Ürrütiren sistema grafikoa ez delako Zuberoako usantzatik urrunten eta, beraz, ez du aparteko zaitasunik. Aparatu kritikoari dagokionez, oharrek bi multzotan banatu dira: i) azalpenezkoak, orri pean emanak; eta ii) egindako zuzenketen berri ematen dutenak, kapitulu bakoitzaren urrentzean bilduak. Ebanjelioaren testuak bertseten araberako zenbakuntza agerrazten duenez, bi sailetako oharrek dagozkien bertsetetara igortzen dute; horrela, testuan ez da oharretarako deirik txertatu beharrik izan.

Gogoraraz dezadan, finitzeko, zein-nahi edizio kritikotan bezala, testua zuzendua izan dela. Horretarako, goian zerrendatu diren bertsioen arteko konparantza sistematikoa egin da. Zenbaitetan akats tipografiko hutsak garbitu dira, baina halakoetan ere ediziogile honek betiere gainerako bertsioetara jo du, akats tipografikoak oro ez baitira berdin hautemangarri. Kasu batentzat, *sablatcera* → *salbatcera* (3,17) ordeztea errutinazko zuzenketa da, eta gainera EvSren bigarren argitaraldian ongi emana da. Aldiz, tipo bat ifrentzukatzearen ondoriozko errakuntza guziz gramatikal gerta daiteke: adibidez, bi edizioek *han* adberbioa dakarte (1,19), *hau* erakuslea behar lukeenean.

Edizio irizpideak:

- 1) Grafia originalaren atxikitzea. Bi argitaraldien arteko desadostasunek grafia hunkitzen dutenean, 1873ko hautuak hobestea, bi salbuespenekin: i) dardarkarien neutraltzearen eta galeraren ondoriozko grafietan, eta ii) leherkari aitzineko txistukari lepokarietan.<sup>4</sup>
- 2) Hutsen zuzenketatik kanpo bi argitaraldien arteko desadostasunak direnean, 1873ko formen eta moldeen lehenestea, egilearen gogotik eta hizkeratik hurbilago direlakoan.
- 3) Jatorrizko paragrafoak beren horretan uztea, hots, bertsetka.
- 4) Hitz zatiketa euskara batuaren arauetara ekartzea: *Jingoua ganic, arra jin, hil erazteco, jar-araz* → *Jincouaganic, arrajin, hilerazteco, jarraraz*.
- 5) Puntuazioa egungo usadioaren arabera moldatzea, testua ahal bezain konprenigarri errendatzeko.
- 6) Letra larri eta xehea egungo arauen arabera ematea, etnonimoetan ere: *Pharisienac, Espiritu saintia* → *pharisienac, Espiritu Saintia*.
- 7) Testuaren barneko estilo zuzena eta aipuak kakotx latindarren artean ematea: «estilo zuzena eta aipuak»; estilo zuzenaren barneko estilo zuzena edo aipuak, aldiz, kakotx ingelesen artean: “bigarren mailako estilo zuzena eta aipuak”.

### 3. Erreferentziak

- Agirre, Pello. 2001. Catechima laburra, zubereraren ezaugarri fonologikoen lekukoa. *ASJU* 35(2). 653-787.
- Agirre, Pello. 2016. *Belapeireren hiztegia eta zubereraren lexiko historikoa*. Eskuizkribu argitaragabea.
- Altonaga, Kepa. 2018. *Duvoisin kapitainaren malura. Bonaparte printzearen itzalean*. Iruñea: Pamiela.
- Bonaparte, Louis-Lucien. 1928 [1889]. Une lettre du prince Bonaparte. *Gure Herria* 8(5), Buruila-Urria. 427-429.
- Canton, William. 1910. *A history of the British and foreign Bible Society. Vol. 4*. Londres: John Murray.
- Chaho, Augustin. 1856. *Dictionnaire basque, français, espagnol et latin, d'après les meilleurs auteurs classiques et les dictionnaires des Académies française et espagnole*. Baiona: Lespèces.

---

<sup>4</sup> Bi kasu horietan forma fonologikotik —ez fonetikotik— hurbilago diren aldaerak hautatu dira, 1. zein 2. ediziokoak izan. Adibidez, 1873an *barreiaturic* eta 1888an *barreiatuic* agertzen denean (11,52), ediziorako lehena hobetsi da; aldiz, 1873an *errakasten* eta 1888an *erakasten* (5,39) agertzen denean, bigarrena. Edo 1873ko *eguiazki* vs 1888ko *eguiaski* parearen artean (3,5) lehena hautatu da; aldiz, 1873ko *çaspi* vs 1888k *çazpi* (4,18), bigarrena.

- Cid, Jesús Antonio. 2010. Archu frente a Bonaparte. Modelos antagónicos de aproximación a la lengua. *Idatz & Mintz* 50. 66-70.
- Fernández, Beatriz, Beñat Oihartzabal, Josu Landa, & Ibon Sarasola. 2010. *-le/-tzaile inflexiozko atzizkiaz*. *ASJU* 44(2). 457-510.
- Gèze, Louis. 1873. *Éléments de grammaire basque. Dialecte souletin*. Baiona: Lamaignère-ren alarguntsa.
- Hoffmann, Frau Adolf [= Rossier, Aline]. 1922. *Wie ein schöner Traum – Letzter Gruß an Frauen und Töchter*. Luzerna, Meiringen & Leipzig: Walter Loepthien-Klein.
- Ibiñagabeitia, Andima. 2003 [1954]. Itun berria'ren euskal itzulpenak eta Zaitegi Abaren *Bidalien egiñak*. In *VIIIème Congrès d'Etudes Basques = Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua = VIII Congreso de Estudios Vascos* (8. 1954. Baiona, Uztaritz), 223-233. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Krajewska, Dorota. 2022. The marking of spatial relations on animate nouns in Basque: a diachronic quantitative corpus study, *Journal of Historical Linguistics* 12(2). 241–281. <https://doi.org/10.1075/jhl.20061.kra>.
- Lafitte, Piarres. 1944. *Grammaire basque. Navarro-labourdin littéraire* (Berragut. Donostia: Elkar, 2008).
- Lécluse, Fleury de. 1826. *Manuel de la langue basque*. Baiona: Douladoure & Cluzeau.
- Manterola, Julen. 2006. -a euskal artikulu definituaren gainean zenbait ohar. In Joseba A. Lakarra & José I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask* (= *ASJU* 40), 651-76. Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2013. Euskararen lagunzaile ahantzia: \*iron aditzaren historia. *Fontes Linguae Vasconum* 116. 131-169. <https://doi.org/10.35462/flv116.5>.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2017. *Analyse diachronique du dialecte souletin (XVI<sup>e</sup> – XIX<sup>e</sup> siècles) – Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa (XVI – XIX. mendeak)*. Vitoria-Gasteiz & Bordele: UPV/EHU & Université Bordeaux Montaigne-ko doktorego tesia.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2018. *Feitac espravi dutuču*: partizipio sail berri bat Zuberoan. *ASJU* 52(1-2). 579-596. <https://doi.org/10.1387/asju.20220>.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2019. Txistukari ozenak Zuberoako testuen argitara. In Irantzu Epelde & Oroitz Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*, 457-480. Bilbo: UPV/EHU.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2020. A propòs deth contacte basc-gascon: eth cas des presentatius. In Jean-François Courouau & David Fabié (arg.), *Fidelitats e dissidéncias. Actes du XIIe Congrès de l'Association internationale d'études occitanes*, 245-254. Tolosa: Association Internationale d'Études Occitanes.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2023. *Aucun prophète n'est bien reçu dans son pays*. Ana Ürruti (1826-1900) ebanjelista eta itzultzaiaren bizitza eta gutunak. *ASJU* 56(2). 251-307. <https://doi.org/10.1387/asju.24116>.
- Roque, Iñigo. 2003. Ana Urruti. In *31 eskutik* [bloga]. <http://31eskutik.com/2013/03/08/ana-urruti/> (2022/11/22).
- TLFi = *Trésor de la langue Française informatisé*. [Nancy]: ATILF - CNRS & Université de Lorraine. <http://stella.atilf.fr>.

Urgell, Blanca. 2023. Emazteki ezabatuak. Berria 2023/05/10.

[https://www.berria.eus/iritzia/larrepetit/emazteki-ezabatuak\\_1335001\\_102.html](https://www.berria.eus/iritzia/larrepetit/emazteki-ezabatuak_1335001_102.html).

Vinson, Julien. 1891. *Essai d'une Bibliographie de la langue basque*. Paris: Maisonneuve (Berragut).  
Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1984).

Ana Ürrüti

*Ebanjelio Saintia Jesus-Kristena*

*Jondane Johaneren arabera*

1873

# Ebanjelio Saintia Jesus-Kristena Jondane Johaneren arabera

## I. CAPITULIA

<sup>1</sup> Hatxarrian Elhia cen, eta Elhia Jincouareki cen, eta elhe hau Jincoua cen.

<sup>2</sup> Hastian Jincouareki cen.

<sup>3</sup> Gaiçac oro harec eguinic dira, eta hora gabe ezta eguin içan deus ere.

<sup>4</sup> Hartan cen bicia, eta bicia cen guiçonen arguia.

<sup>5</sup> Eta arguiac arguitu du ulhumpetan, bena ulhumpec eztie errecebitu.

<sup>6</sup> Guiçon bat içan da, Jincouac igorria, deitcen cena Johane.

<sup>7</sup> Houra jin cen jakitate errendatceco, jakitate errendantceco arguari, eta haren arguiaz oroc sinhetx lecen.

<sup>8</sup> Etcen hora arguia, bena igorriric cen jakitate errendatceco arguari.

<sup>9</sup> Hau cen eguiazco arguia, mundiala jiten diren guiçonen ororen arguiçale dena.

<sup>10</sup> Mundian cen, eta mundia harec eguinic içan da, bena mundiac eztu eçagutu.

<sup>11</sup> Jin da berenetara, eta berenec eztie errecebitu.

<sup>12</sup> Bena errecebitu diener orori eman deye Jincouaren haur içateco çucena, erran nahi da haren icenian sinhesten diener,

<sup>13</sup> eta çouin ezpeitira sorthu odoletic, ez eta araguiaren nahikuntetic, ez eta guiçonaren nahitic, bena bai Jincouaganic.

<sup>14</sup> Eta elhia aragui eguin içan da, eta egon içan da goure artian graciaz eta eguiaz betheric; eta ikhoussi dugu haren loria, loria bat beita, aitaren seme bakhoitçaren loria beçala.

<sup>15</sup> Johanec arren errendatu du jakitate hartçaz, oihuz ciouelaric: «Hau da çountçaz erraiten benian: “Ene ondotic jiten dena ni beno handiago da, ceren ni beno lehenago cen ere”».

---

<sup>5</sup> *bena*: TB dateke juntagailu adbertsatiboaren iturria; cf. eta ilhumbeac hora eztu comprehenditu Lç; bainan ilhumbec ez dute errecebitu TB; eta ilhumbeec eztute aditu içan HeH; et les ténèbres ne l'ont point comprise Sacy; et les ténèbres ne l'ont point reçue Ost.

<sup>7</sup> *haren arguiaz*: Ürrütik *arguiaz* ematen du, beste ezein bertsiotan kausitzen ez dena. Ene aieruan, bertset hau HeHtik itzultzean, Ürrütik *haren ariaz* ‘haren kausaz’ → *haren arguiaz* aldatu zuen; cf. *guciéc harçaz sinhets lehetçençat* Lç; *amoreagatic guciec sinhex cecaten hartaz* TB; *haren ariaz guciec sinhets lehetçençat* HeH; *afin que tous crussent par lui* Sacy, Ost.

<sup>7</sup> *sinhetx lecen*: zubereraz, perpaus nagusia iraganaldian denean, helburuzko perpaus jokatuetan ohikoa da hipotetikoaren *l-* morfema ematea, XIX. mendean gainerako mintzoetan *z-* erabiltzen denean. Cf. *sinhets lehetçençat* Lç; *sinhets ceçaten* TB; *sinhets lehetçençat* HeH.

<sup>11</sup> *berenetara*: ‘bereengana’. Izen bividunen kasu espazialetan, animazitatearen markarik gabeko morfemen erabilpena ohikoa da Iparraldeko testuetan, eta numeroa (plurala) da markatze orokorraren agerpena faboratzen duten faktoreetarik bat; ikus Krajewska (2022).

<sup>14</sup> Ürrütik <ikhoussi-> nahiz <ikhousi-> grafiatzen du: 42 & 33 aldiz, hurrenez hurren. Zuberoako tradizioan, bokalartean <ss> & <s> grafia kontrastiboak dira, txistukari ahoskabeak eta ahostunak adierazten baitituzte, hurrenez hurren; gaiaren kontu errendatze zehatzarentzat, ikus Agirre (2001) eta Padilla-Moyano (2019).

<sup>16</sup> Eta errecebitu dugu oroc haren bethetarçunetic, dohaign dohaignaren.

<sup>17</sup> Ceren leguia emanic içan da Moïsaren medioz, dohaigna eta egua jin dira Jesus-Kristez.

<sup>18</sup> Ihourc ere eztu seculan Jincoua ikhoussi; Seme bakhotchac, Aitareki denac berac, eçaguteraci deiku.

<sup>19</sup> Eta heben da Johanec jakinaraci diana, nouiz ere judiouec igorri beitciren Jerusalemetic sakrificaletařic eta levitetaric, galthatcera: «Cu nour cira?»

<sup>20</sup> Aithortu cian eta etcian ukhatu; aithortu cian, ciouelaric: «Eniz ni Krista».

<sup>21</sup> Eta galthatu ceien: «Nour cira arren? Elias cira? Erran cian: Eniz Elias. Profeta cira?» Eta arrapostu eman cian: «Ez».

<sup>22</sup> Erran ceien ordian: «Nour cira arren, arrapostu eman ahal deçagun igorri gutiener? Cer dioču cihaurtçaz?»

<sup>23</sup> Erran ceien: «Desertian “Aphain itçatçie Jaunaren bidiac Esaias profetac erran dian beçala” oihuz denaren botça niz».

<sup>24</sup> Eta harengana igorriric içan cirenac pharisienetaric ciren.

<sup>25</sup> Interrogatu cien orano, eta erran ceien: «Certaco batheyatcen ari cira, etcirelaric Krist, ez Elias, ez profeta?»

<sup>26</sup> Johanec arrapostu eman ceien: «Nic batheyatcen dut hourez; bena bada bat cien artian, ciec eçagutcen eztuciena.

---

<sup>16</sup> *dohaign dohaignaren*: historikoki, Zuberoako euskaran genitiboaren morfema biluziak gainerako mintzoetan bestelako kasu marka konplexuen medioz adierazten diren balioak kodifika ditzake; cf. *gratia gratiagatic* Lç; *dohaina dohainarentcat* TB; *grâce pour grâce* Sacy & *grâce sur grâce* Ost. Gaiaren deskripzio batentzat, ikus Padilla-Moyano (2017: II, § 1).

<sup>17</sup> *Moïsaren medioz*: postposizioaren hautuak TB seinalatzen du (*Moiseren medioz*); halaber, Ürrütik eta TBk bat egiten dute adbertsatibozko juntadurarak ez ematean; cf. *mais la grâce et la vérité a été apportée par Jésus-Christ* Sacy; *mais la grâce et la vérité sont venues par Jésus-Christ* Ost; *baina gratiá eta eguiá Iesus Christez eguiñ içan da* Lç; *[Ø] dohaina eta egua ethorri da Jesus-Christoz* TB; *gracia ordean eta egua Iesu-Christoc eguinac dirade*. HeH.

<sup>19</sup> *beitciren*: jakina, *beitcien* ‘baitzuten’ irakurri behar da. Bokalarteko /r/-ren galeraren ondorioz, Zuberoan aditz forma zenbaitetan sinkretismoa gertatu da, adibidez *zien* ‘zuten’ & ‘ziren’. Hortaz, tradizio idatzian hiperzuzenketa ohikoak dira, bereziki XIX. mendean.

<sup>23</sup> Bertset honetan Ürrüti gainerako euskaratzeetako sintaxitik urrunten da, hitz ordena kanonikorat gehiago hurbildurik. Gainerakoan, HeHrekin bat egiten du *aphain* hautu lexikoan, vs *plana* Lç & *chuchen* TB; cf. *rendez droite* Sacy & *aplanissez* Ost. Ohart, halaber, Ürrütiren *bidiac* beste inon agertzen ez den pluralean emana dela: *Plana eçaue Iaunaren bidea* Lç; *chuchen çaue Jaunaren bidea* TB; *Aphain eçaue Iaunaren bidea* HeH; *Rendez droite la voie du Seigneur* Sacy; *Aplanissez le chemin du Seigneur* Ost.

<sup>24</sup> *pharisienetaric*: etnonimoetan Ürrüti gainerako euskaratzaleak baino frantsesetik hurbilago dabil; cf. *Phariseu* Lç; *Pharisaunetaric* TB; *Pharisauetaric* HeH.

<sup>26</sup> Bertset honetan Sacy zein Ostervald baliatu zaizkioke Ürrütiri. Bestenaz, *hourez* instrumentalaren hautuak Leizarragarekin (*urez*) eta Ostervaldekin (*d'eau*) batzen du, vs *urean* TB & HeH; orobat 1,31 & 1,33 bertsetetan.

<sup>27</sup> Houra da ene ondotic jiten dena, çouin ni beno lehenagocoua beita, eta ezpeniz ni digne haren houynetaco oski khorden deseguiteco».

<sup>28</sup> Gaiça horic heltu cien Bethabarian, Jourdaignaren beste aldian, noun ere Johanec batheyatcen beitcian.

<sup>29</sup> Biharamenian, Johanec ikhoussi cian Jesus jiten harengana, eta erran cian: «Hori da Jincouaren achouria, munduco bekhatiac elkitcen dutiana.

<sup>30</sup> Hori da erraiten nian hora: “Guiçon bat jiten da ene ondotic, ni beno handiago dena, ni beno lehenagocoua delacoz”.

<sup>31</sup> Eta nic enian eçagutcen, bena jin niz hourez batheyatcera, hora Israelez eçaguturic içan dadin».

<sup>32</sup> Johanec errendatu cian jakitate, erraiten cialaric: «Ikhoussi dut espiritua eraisten celutic urço bat beçala, eta phausatu da hartan gagnen.

<sup>33</sup> Eta nic enian eçagutcen; bena hourez batheyatcera igorri naianac berac erran ceitan: “Çountara ere ikhousten beituçu Espiritua eraisten, eta haren gagnen egoiten, hora duçu Espiritu Saintiaz batheyatcen diana”.

<sup>34</sup> Eta ikhousi dut, eta jakitate errendatu dut hora dela Jincouaren semia».

<sup>35</sup> Biharamenian orano Johane ukhuratu cen eta hareki bere bi dicipulu,

<sup>36</sup> eta ikhoustez Jesus igaraiten, erran cian: «Horra Jincouaren achouria».

<sup>37</sup> Eta bi dicipulieci hori entçunic, jarraiki citçaitçon Jesusi.

<sup>38</sup> Eta Jesus utçuliric, eta ikhoustez jarraikitzen ceitçola, erran ceien: «Ceren ondouan çabiltciade?» Arrapostu eman ceien: «Rabbi —erran nahi beita Nausia—, noun egoiten cira?»

<sup>39</sup> Erran ceien: «Tciauste, eta ikhous eçacie». Jouan ciren eta ikhoussi cien noun çagouen, eta egon ciren egun hartan hareki, ceren hamarguerren orenaren ungurunia beitzen.

<sup>40</sup> Eta hetaric bat, Andres, Simon-Pierraren anaia cen, çouignec entçun beitcian mintçatzen Johane, eta jarraiki cen Jesusi.

<sup>41</sup> Harec ediren cian lehenic Simon bere anaia, eta erran cion: «Ediren diagu Messia (erran nahi beita Krist)».

---

<sup>28</sup> *Bethabarian*: cf. *Bethabarai* Lç, TB, *Béthabara* Ost vs *Béthanie* Sacy, *Bethanian* HeH.

<sup>32</sup> *hartan gagnen*: Zuberoan ohikoa den inesibo arkaikoaren adibidea, mugagabea. Harago, zubereraren [X + GAÑEN/GAÑIAN] egituraz ikus Padilla-Moyano (2017: VII, § 1).

<sup>35</sup> *ükhüratu*: nonbait TBko *baratu* aditzetik hurbilago; Leizarragak eta Haraneder-Harrietek *egon* ematen dute. Erremarka bedi bokal asimilazioaz *ekhüratü* > *ükhüratü*.

<sup>36</sup> *Igaraiten*: Ürrütik Sacyren *passait* eta HeHren *iragaiten* segitu ditu, vs *ebilten* Lç, *ibilcen* TB & *marchait* Ost.

<sup>38</sup> Ürruti Ostervaldi zein Haraneder-Harrieti darraikie: *s'étant retourné, et voyant* Ost → *utçuliric, eta ikhoustez* EvS, vs *Itçultzen da Iesus, eta ikhusten duela* HeH. Aldiz, frantssezko iturrien *Que cherchez-vous?* euskaratzean Ürrütik HeHren formulazio bera ematen du: *Ceren ondoan çabiltçate?* → *Ceren ondouan çabiltciade?* vs *cer bilhatzen duçue?* TB.

<sup>39</sup> *Tciauste*: jaugin aditzaren inperatibozko forma sintetikoa, ‘jin zaitezte’; cf. *tciauri* ‘jin zaitez’ 1,46.

<sup>42</sup> Eta erakharri cian Jesusengana. Jesusec beguiztatu cian ondouan, erran cion: «Çu Simon cira, Jonasen semia; hebentic aitcina deithuric içanen cira Cephas (erran nahi beita Harria)».

<sup>43</sup> Biharamenian Jesus Galilealat jouaiten celaric, bathu cian Philipe, çouigni erran betceion: «Jarraiki neçaçu».

<sup>44</sup> Philipe Bethsaidaco cen, Andresen eta Pierraren hirico.

<sup>45</sup> Philipec bathu cian Nathanaël, eta erran ceion: «Bathu diagu Jesus Nazarethecoua, Josephen semia, çountçaz Moisac izkiribatu beitu leguian, eta çountçaz Profetec ere izkiribatu beitie».

<sup>46</sup> Nathanaëlec erran cion: «Cerbait hounic elkhitcen ahal deia Nazarethetic?» Philipec erran cion: «Tciauri, eta ikhous eçaçu».

<sup>47</sup> Jesusec ikhousi cianian Nathanaël haregana jiten, erran cian: «Horra eguiazco Israelita bat, çountian ezpeita faltxukeriaric».

<sup>48</sup> Nathanaëlec erran cion: «Nountic eçagutcen naiçu?» Jesusec erran cion: «Philipec deithu çutian beno lehen, phicotciaren pian cinelaric, ikhousten çuntudan».

<sup>49</sup> Nathanaëlec erran cion: «Naussia, çu Jincouaren semia cira, çu cira Israeleco erreguia».

<sup>50</sup> Jesusec arrapostu eman cion: «Ceren erran deiçudalacoz ikhousten çuntudala phicotce pian, sinhesten duçu nitan? Hori beno gaiça handiagoric ikhoussico duçu».

<sup>51</sup> Guero erran cian: «Eguiazki, eguiazki erraiten deiciet, hebentic aitcina ikhoussico duciela celia çabalic, eta Jincouaren ainguriac igaraiten eta eraisten guiçonaren semiaren gagna».

---

<sup>43</sup> *Galilealat*: Ürrütiren zubereran adlatibozko morfemen arteko kontraste semantikoa hein handi batean indarrean da; hortaz, hemen *-t* morfoak balio direkzionala adierazten du. Beste maila batean, zubereraren adlatiboaren alomorfoen artean, *-ala(t)* normalean izen arruntekian espero genuke, baina ageri da zenbait toponimorekin idazle zuberotarrek *-ala(t)* erabiltzen dutela. Bada, ene tesiarentzako prestatu zuberera historikoaren corpusean (Padilla-Moyano 2017: ATALASEAN, § 3). *Galilea* eta *Judea* exonymoen agerraldi guziak Ana Ürrütiren *Ebanjelio Saintia* honetan dautza, eta adlatibozkoak salbuespenik gabe *-ala(t)* alomorfoaz dira emanak: *Galileala(t)* 1,43, 4,3, 4,34, 4,45, 4,46, 4,47 & 4,54; *Judeala(t)* 7,3; 11,7 & 3, 22.

<sup>43</sup> *jarraiki neçaçu*: XIX. mendeko Zuberoan *-ki* multzoko aditzen aditzoinetan *-k* bukaerako forma berriak ageri dira: *jarraik*, *idok*, *eraik*, etab. Horri dagokionean, beraz, Ürrütik *jarraiki* aditzoina atxikitzeak nolabait joera gordetzaileagoa seinalatzen du; halere, ikus *ourtouc* ‘aurtuki’ 2,19 & *hounc eçaçu* ‘hunki’ 20,27.

<sup>44</sup> *Bethsaidaco*: ekialdeko euskaran mugagabearen erabilpena ohikoa da atributuan (Manterola 2006).

<sup>51</sup> Erkatu diren bertsioen artean, bertset honetan Jesusen hitzen barneko zeharkako estiloa soilik Ostervalden itzulpenean atzman daiteke; cf. *Egiuaz eguiaz erraiten drauquet*, *Hemendic harat ikhussiren duçue ceruä irequiric Lç*; *Eguiazqui, eguiazqui erraiten dautçut*; *hemendic aitcina ikhussico duçu cerua çabaldua* TB; *Eguiazqui, eguiazqui erraiten darotçuet*, *ikhüsiren ditutçue Iaincoaren ainguerauc igaiten* HeH; *En vérité, en vérité je vous le dis : vous verrez le ciel ouvert* Sacy; *En vérité, en vérité, je vous dis, que désormais vous verrez le ciel ouvert* Ost.

<sup>51</sup> Ez nahas *semiaren gana* & *semiaren gagna* ‘gainera’; lehena absolutiboaren gainean ere erabil daiteke: *semia gana*.

**1,9** hau] A B *han*; cf. Sacy *celui-là* : Lç *haur* : TB *argui hau* : HeH *hau*. **1,19** sakrificaçaletaric eta levitetaric] B *çoumbait sakrificaçale eta levitac*. A zuzena da, ezkerreko *Jerusalemetic ablatiboak* ondoko bi partitiboekiko nahasagarri suerta badaiteke ere. Menturaz arazo hori konpondu nahian Bk beharrik gabeko ABS PL ematen du; cf. Sacy *les Juifs envoyèrent de Jérusalem des prêtres et des Lévites* : Ost *les Juifs envoyèrent de Jérusalem des sacrificeurs et des Lévites* : TB *Jerusalemerat [sic] Sacrificatçailetaric eta Levitataric* : Lç *Sacrificadoreac eta Levitác* : HeH *Apheçac eta hauquienleinuticaco batçu*. **1,25** ceien] A *cenie*. **1,47** haregana] B *haren gana*. **1,48** Philipec deithu çutian beno lehen] B *Philipe deithu içan cinen beno lehen*; cf. Sacy *Avant que Philippe vous eût appelé* : Ost *Avant que Philippe t'appelât* : Lç *Philipec dei ençan baino lehen* : TB *Philippec oihu eguin çauçun baino lehen* HeH *Philipec deith cinitçan baino lehen*.

## II. CAPITULIA

<sup>1</sup> Hantic hirour egunen burian, eguin içan ciren eztei eli bat Cana Galileacouan, eta Jesusen ama ere han cen.

<sup>2</sup> Jesus bera ere khumitaturic içan cen ezteietara, bere dicipulieki.

<sup>3</sup> Eta eskastu betceien ardoua, erran ceion Jesusi bere amac: «Ardouric ezticie haboro».

<sup>4</sup> Bena Jesusec arrapostu eman ceion: «Emaztia, cer da çoure eta ene artian? Ene orena ezta orano heltu».

<sup>5</sup> Haren amac erran cian cerbutcharier: «Cer ere erranen beteicie, hora eguin eçacie».

<sup>6</sup> Bacen han sei harrizco ountci, eçarriric judiouen chahutarçunaren costuma cen beçala; bakhotchac biga edo hirour pegar etchekitcen beitcian.

<sup>7</sup> Jesusec erran ceien: «Bethetçatcie ountci horic hourez». Eta bethe çutien gagniala artino.

<sup>2</sup> *bere dicipulieki*: cf. *eta haren discipuluac* Lç; *bere dicipuluequin* HeH; *bere Discipuluequin* TB; *avec ses disciples* Sacy & lui et ses disciples Ost.

<sup>3</sup> *ardouric ezticie haboro*: frantsesetik, eta bereziki Ostervaldengandik hurbil dabil Ürrüti; cf. *mahatsarnoric eztíe* Lç; *ez dute arnoric* TB; *arnoric eztute* HeH; *Ils n'ont point de vin* Sacy & *Ils n'ont plus de vin* Ost.

<sup>5</sup> *Cer ere ... beit-*: korrelatibozko egituraren agerraldi guztiz berankorra da zuberera historikoaren corpusean, beharbada azkena. Markatzekoa da 1828koa den, eta ustez Leizarragaren moldaketa hutsa den TBren egileak (Lécluse 1826: 21; Vinson 1891: § 3.g) egitura hori ezaba zezan, baina ez Ürrütik, mende erdi berantago; cf. *Cer ere erran baitieçaque, eguiçue* Lç *eguiçue erranen dautçuen guciac* TB *Cer ere erranen baitaroçue, eta hura eguiçue* HeH

<sup>6</sup> *judiouen chahutarçunaren costuma*: juduen ohituraren ideiak Ürrütiren bertsioa, Ostervald (*en usage*) eta TB (*haztura*) batzen ditu.

<sup>6</sup> *biga edo hirour pegar*: cf. *birá edo hirurná neurri* Lç; *biga edo hirur neurri* TB; *sei edo hamabi pegar* HeH; *deux ou trois mesures* Sacy & Ost. Erremarka bedi *neurri* hitza euskalki guztietañ lekukotzen dela, zubereran izan ezik; hemen edukiera neurri unitate gisara erabilia da. Gainerakoan, ez dakit zergatik HeH ordura arteko *deux ou trois mesures / biga edo hirur neurri* → *sei edo hamabi pegar* egokitu duen. Halaber, ez dakit Haraneder-Harrietentzat *pegar* baten edukiera *neurri* batena baino tipiagoa denetz, zenbatzaileen adierazpena aldatu baitu. Nolanahi ere, Ürrütik *pegar* hartu du, iturrietako kopuruak errespetaturik.

<sup>7</sup> *Bethetçatcie*: Zuberoan *betha* aditzoina espero genuke. Hemengo itxura ez da aditz laguntzailearen formarekilako baturaz azaltzen; cf. *bethe çadin* 12,38, *bethe dadin* 13,18 & *bethe ledin* 18,32.

<sup>8</sup> Erran ceien guero: «Har eçacie orai, eta eraman eçacie mahaigneco buruçguiari». Eta eraman ceien.

<sup>9</sup> Tcheste cianian mahaigneco buruçguiac hour ardou khambiaturic —noula ezpeitçakian nountic ekharriric cen, bena hour hora ekarri cien cerbutchariec başakien—, deithu cian espousa,

<sup>10</sup> eta erran ceion: «Nourc-nahi hastian ardou houna emaiten du; guero, ounxa edan ondouan, emaiten du aphalchiagotic; bena çuc ardou houna orai artino beguiratu duçu».

<sup>11</sup> Hori da Jesusec eguin cian lehen miracuillia, Cana Galileacouan; eta eçaguteraci cian bere loria, eta bere dicipulieci sinhetxi cien hartan.

<sup>12</sup> Jouan cen guero Capernaumera bere amareki, bere anaieki eta bere dicipulieki; bena etcen han egon çoumbait egun baicic.

<sup>13</sup> Eta noula judiouen Bazcoua huillan beitcen, igaran cen Jerusalemera.

<sup>14</sup> Ediren cian Templian idi, eta ardi, eta urço saltçale eta diharu khambiaçaliac jarriric ciagouela.

<sup>15</sup> Eta eguinic açote bat soka mehar batez, elkaraci çutian oro Templutic beren idieki eta ardieki; eta dihariac ichouriric, mahaignac utçuli çutian.

<sup>16</sup> Eta urço saltçaler erran ceien: «Khen itçatçie horic hebantic, eta ezteçaciela eguin ene Aitaren etchia sal-erosteco etche bat».

<sup>17</sup> Ordian orhitu ciren haren dicipuliac noula izkiribaturic den: «Çoure etchiaren alderaco garrac erratcen nai».

---

<sup>10</sup> *Nourc-nahi*: izenordain zehaztugabe gisara gramatikalizatzeko bidean, *nourc-nahi* forma fase goiztiarrago baten lekukoa da, kasu marka ezkerreko izenordinari erantsia baitu; cf. *norc nahic* TB & *nor nahic* HeH.

<sup>14</sup> *ciagouela*: ‘zeudela’; cf. *iarriric ceudela* Lç; *yarriric çaudenac* TB & *iarriric cegocela* HeH. Adizkiaren -i- beharbada forma alokutiboekiko erakarpenak eragin du. Zuberoako testuetan antzeko bi adizki atzeman dugu, bi-biak alokutibo: *[Antigona princessa] Polonicaren thomban ciagocun tristeric, garda bat jouan cioçu hartcera armaturic* Edipa 825 & *Berbo eternal, çoure semiaren gloriari ciagoçun haïtatu çian amaren bekhatu originaleti beguiratcia* HOrdre 75 (*Heren-Ordreco esculibia igante-bestetaco officio berrieiki. Jaun Aphezcupiaren baimentiarekin*. Oloroe: B. Lapeyrette, 1860 [Vinson 1891: § 314]).

<sup>15</sup> Ez dakigu zergatik Ürrütik singularrean eman duen soka mehar batez; cf. *açotebat kordatoz* Lç, *soca thipi batçuez azote bat* TB, *açotesca bat sokha mehar batçuz* HeH, *un fouet avec des cordes* Sacy & *un fouet de petites cordes* Ost.

<sup>16</sup> *ezteçaciela eguin*: TBren antzora (*ez çäquela eguin*), Ürrütik ez du Leizaragaren eta Haranederren *eztaguiçuela* sintetikoa atxiki.

<sup>17</sup> *çoure etchiaren alderaco garrac erratcen nai* ← *çure etchearen alderaco kharrac erretcen nau* HeH. Gainerakoan, *hire etcheazko zeloac ni ian niauc* Lç & *çure etchearen kharrac yan nau* TB.

<sup>18</sup> Bena judiouec elhia harturic erran ceien: «Cer miracuilluz eracoutxico deikuçu holaco gaicen eguiteco eskia baduçula?»

<sup>19</sup> Jesusec arrapostu emanic erran ceien: «Ourthouc eçacie Templa hau, eta, hirour egunen barnian, eçarrico deiciet tchutic».

<sup>20</sup> Judiouec erran ceien: «Cer? Egon dira berrogei eta sei ourthe Templa hounen eguiten, eta çuc hirour egunez arra althatuco duçula?»

<sup>21</sup> Bena Jesus mintço cen bere khorpitceco templiaz.

<sup>22</sup> Hartacz hiletaric phiztu cenian, bere dicipuliac orhitu ciren hori erran ciala, eta sinhetxi cien izkiribietan, eta Jesusec erran cian hitzean.

<sup>23</sup> Eta noula Jerusalemen beitcen Bazcoco besta egunian, hanitxec sinhetxi cian haren icenian, ikhoustez haren miracuilliac.

<sup>24</sup> Bena Jesus etcen fidatcen haier, ceren oro eçagutcen beitçutian,

<sup>25</sup> eta ezpeitcian beharric ihourc ere eçaguteraz liçon guiçon bat, ceren berac eçagutcen beitu cer den guiçonian.

**2,16** 16 Eta urço] A B *Eta urço*. **2,18** miracuilluz] A B *miracuillu*. Bietan *miracuillu* absolutiboan emana da, eta huts horren gibelean TB dateke; cf. TB *Cer miraculu erakhasten darocuçu* : HeH *Cer ikuhsarriz eracutsico darocuçu* : Sacy *Par quel miracle nous montrez-vous...* : Ost *Par quel signe nous montres-tu que...* **2,19** eçarrico deiciet] A *eçarrico deiciet*. **2,22** hitzean] A B *hitzetan*; cf. Sacy *à la parole* : Ost *à cette parole* : TB *hitcean*.

### III. CAPITULIA

<sup>1</sup> Bacen pharisien bat, Nicodema deitcen cena, judiouen aitcindarietaric bat,

<sup>2</sup> çouin jin beitcen gaiaz Jesusengana, eta erran ceion: «Nausia, badakigu erakasle bat çirela Jincouaganic jinic; ceren ihourc ere eztu eguiten ahal çuc eguiten dutuçun miracuilliac, ezpada Jincoua hareki».

<sup>3</sup> Jesusec arrapostu eman ceion, eta erran ceion: «Eguiazki, eguiazki erraiten deiçut: ihourc ere eztu ikhousten ahal Jincouaren erresouma, ezpada berriz sortcen».

<sup>4</sup> Nicodemac erraiten deio: «Noula guiçon bat berriz sortcen ahal da çahartu denian? Sartcen ahal deia bere amaren sabelian, eta berriz arrasortcen?»

<sup>5</sup> Jesusec arrapostu emaiten deio: «Eguiazki, eguiazki erraiten deiçut: guiçon bat ezpada arrasortcen hourez eta Espiritu Saintiaz, ezta sartcen ahal Juincouaren erresouman.

---

<sup>18</sup> EvSren bi edizioetan *miracuillu* absolutiboan emana da —hemen instrumentalarekin zuzendu dugu—, eta huts horren gibelean TBko *miraculu* datza; cf. *Par quel miracle nous montrez-vous* Sacy; *Par quel signe nous montres-tu* Ost; *Cer miraculu erakhasten darocuçu* TB & *Cer ikuhsarriz eracutsico darocuçu* HeH.

<sup>19</sup> *Ourthouc*: ‘aurtiki’ aditzoinaren forma indartua, *ourthouki-ren* ordez. Lehen aldikoz XIX. mendearren hastapenean lekukotzen da: *Lôt, ourthouc bersset hounen erraitiareki* (SteEli 519-di). Gainerakoan, -ki multzoko aditzen aditzoinaren formeい dagokienez, Ürrütik ez du -k itxurako aditzoin berriekiko joera nabarmena; ikus *jarraiki neçaçu* 1,43 eta bertako oharra.

<sup>6</sup> Araguitic sorthu dena aragui da, Espiritutic sorthu dena espiritu da.

<sup>7</sup> Etcitala estona erraiten dudalacoz behar duçuela berriz sorthu.

<sup>8</sup> Aiciac bouhatcen du nahi dian lekialat, eta entçuten duçie haren herotxa, bena eztakicie nountic jiten den, ez nourat jouaiten den: hala-hala da Espiritu Saintiaz sorthuric den guïçona».

<sup>9</sup> Nicodemac erraiten deio: «Noula hori eguiten ahal da?»

<sup>10</sup> Jesusec erran cion: «Cer? Çu Israelen naussietaric bat çira, eta horic eztakitçu?

<sup>11</sup> Eguaizki, eguaizki erraiten deiçut dakigunaz mintço guirela, eta ikhousi duguna errakousten dugula; bena eztuçie errecebitcen goure jakitatia.

<sup>12</sup> Ber guisan, lurreco gaicez mintço nitçaitçunian ezpanaiçu sinhesten, noula sinhesten ahal naiçu celuco gaicez mintço niçanian?

<sup>13</sup> Ceren ihour ere ezta igaran celialat, celutic eraitxi dena baicic, erran nahi da Guiçonaren semia, celian dena.

<sup>14</sup> Eta noula Moïsac altchatu beitçian metalezco sugua desertian, ber guisan guiçonaren semiac behar du içan altchaturic goiti,

<sup>15</sup> amorecatic hartan sinhesten dien guiçonetaric bat ere eztadin gal, bena ukhen deçan bethiereco bicitcia.

<sup>16</sup> Ceren Jincouac hain du maithatu mundia, noun eman beitu bere seme bakhotcha, amorecatic hartan sinhesten dien guiçonetaric batere eztadin gal, bena ukhen deçan bethiereco bicitcia.

---

<sup>5</sup> *hourez eta Espiritu Saintiaz*: Leizarragak, TBk eta Ürrütik instrumentalean ematen dute; Haraneder-Harrietek, aldiz, ablatiboan: *uretic eta Ispiritu Saindutic*; cf. fr. *si un homme ne renait de l'eau et du Saint-Esprit* Sacy & *si un homme ne naît d'eau et d'Esprit* Ost.

<sup>7</sup> *Etcitala estona*: ‘ez zaitezela estona’; cf. *Etcitaiela estona* ‘ez zaiteztela estona’ 5,28. Ezezko aginduetan inperatiboaren formari -(e)la konpletiboaren atzikia eranstea Iparraldeko mintzoetako garapen historikoa da. Ürrütiren zubereran halakoak subjuntiboan oinarritu formak dira, aditz laguntzaile iragankorretan orainaldiiko d- azaleratzen baita: *ezteçaciela eguin* 2,16, *ezteçaciela marmoucika* 6,43. Aldiz, beste egile batzuek egiazko inperatiboaren morfologiarekin lekukotzen dute -(e)la konpletiboa: *ez çaçuela eguin* TB Io 2,16, *ez çaçuela murmura* TB Io 6,43.

<sup>14</sup> *metalezco sugua*: Exodoan Jainkoaz duda egiteagatik suge gaitoez pozoiindu juduen sendatzekotzat Moisak altxatu zuen sugeaz ari da, bertsioaren arabera kobrezko ala urre gorrizko (brontzezko) izan. Ürrütik ez du metala zehazten; cf. *cobrezcoguea* TB & *le serpent d'airain* Sacy. Beste bertsio batzuetan besterik gabe suge Lç, HeH edo *le serpent* Ost.

<sup>15</sup> *amorecatic*: gaskoieraren *pr'amor de lokuzio* preposisionalaren kalko hau XIX. mendearen bukaerara arte ongi lekukotua da Zuberoako testuetan. Helburuzko perpausak markatzen ditu, subjuntiboaren gainerako erabileretarik bereiziz; hortaz, *amorecatik* frantseseko iturrietako *afin que* moldearen ordaina da: *afin que tout homme qui croit en lui, ne périsse point* Sacy, *Afin que quiconque croit en lui ne périsse point* Ost. Euskaratzeen artean, TB ere horren lekukoa da: *Amoregatic norc ere sinhesten baitu hora baithan ez dadin fundit*. Leizarraga, aldiz, -tzat edo -gatik morfemez zerbitzatzen da: *hora baithan sinheste duenic batre gal eztadin, baina vizitze eternala duençát*; orobat HeHk: *Eztadintçat gal hora baithan sinheste duenic bat ere, aitcitican içan deçan bicitce bethierecoa*.

<sup>17</sup> Ceren Jincouac eztu igorri bere semia mundiala mundiaren jujatcera, bena bai mundiaren salbatcera.

<sup>18</sup> Hartan sinhesten diana ezta galduric içanen, bena hartan sinhesten eztiana galduric da, ceren ezpeitu sinhetxi Jincouaren seme bakhotcharen icenian.

<sup>19</sup> Eta hau da galtçapen horen arrazoua: arguia jin da mundiala, eta guiçonec maitiago ukhen die ulhumpia arguia beno, ceren haien obrac gaisto beitira.

<sup>20</sup> Ceren gaizkia eguiten dianac hugu du arguia, eta ezta huillantcen arguiala, lotxaz bere obrac içan ditian eçaguturic.

<sup>21</sup> Bena arguiaren arabera eguiten diana jiten da arguiala, haren obrac eçaguturic içan ditian, ceren Jincouaren beithan eguinic beitira».

<sup>22</sup> Gaiça hoien ondouan Jesus jin cen Judeaco lurretarra bere dicipulieki, eta egon içan cen han aphur bat haieki, eta ari cen batheyatcen.

<sup>23</sup> Johanec ere batheyatcen cian Enonen, Salimen hegarian, han hourtce handia beitcen; eta hanitx jiten ciren harengana, eta batheyatcen çutian.

<sup>24</sup> Ceren ordian orano Johane etcen gaztelian eçarriric.

<sup>25</sup> Eta içan cen questione bat Johaneren dicipulu çoumbaiten eta judiouen artian batheyaren gagnen.

<sup>26</sup> Eta jinic Johanegana, erran ceien: «Nausia, Jourdaignaren beste aldian çoureki cen hora, çouigni ere jakitate errendatu beituçu, batheyatcen ari da bere alde, eta oro harengana badouatça».

<sup>27</sup> Jouhanec erran ceien: «Guiçonac eztu deus ere ukheiten ahal, ezpaçaio emanic celutic».

<sup>28</sup> Cihauriec jakile cirade noula erran dudan: «Eniz ni Krist, bena haren aitcinian igorriric niz.

---

<sup>19</sup> *arrazoua*: /ara'zūa/ aldaeran zubereraren bi ezaugarri fonologiko batzen da: i) biarnesetik sartutako maileguetan kausitzen diren bokal sudurkari «berriak», eta ii) txistukari ahostunak. Bigarrenaz denaz bezainbatean, ohart bedi Ürrütiren sistema grafikoan bokalartean <z> grafema markatua dela; cf. *Lazare* 11,1, *Nazaretecoua* 18,5, *Hozana* 12,13, *plazer* 8,29, *circoncisionia* 7,22, *arrazouric* 15,25, etab. Hortaz, *gaizbidiagatic* 16,1 Ürrütik erabilitako lapurterazko iturrien eraginagatik azal daiteke (*gaizbidetuac* TB, *gaizbideac gatic* HeH), eta *bazaquian* 6,6 horrekiko salbuespen bakanetakoa da.

<sup>19</sup> *gaisto*: Ürrütik behin baizik ez du horrela ematen, gainerako guzietan *gasto* aldaera erabiltzen baitu (5,14, 7,7, 9,16, 9,24, 9,25, 9,31). Mendebaletik kanpo, *gasto* aldaera Voltoirek, Mendigatzak eta Etxahunek lekukotzen dute (*OEH*, s.v. *GAIZTO*).

<sup>25</sup> *questione*: ‘disputa’; cf. *une dispute* Sacy & Ost; *leya bat* TB; *iharduquitce bat* HeH.

<sup>25</sup> *batheyaren gagnen*: euskararen tradizio idatzian ‘gaia’ (*topic*) adierazteko baliabide gramatikal ohikoa izan da [GEN + gainean] postposiziozko egitura; cf. *Bada içan cen leya bat alchatua Joannesen Discipuluez Juduequin garbitasunaren gainean* TB eta *Altchatu cen bada iharduquitce bat Ioanesen dicipulu cembaiten eta Iduuen artean, bathaioaren gainetic* HeH. Hortaz, markagarria da Bibliaren euskaratzerik zaharrenean instrumentalala aertzea: *Altcha cedin bada questionebat Ioannesen discipuluetaric Iduuequin purificationeaz* Lç. Frantsesezko iturriei begiraturik, Sacyk eta Ostervaldek, bi-biek *une dispute* [...] *touchant le baptême* ematen dute.

<sup>29</sup> Espoussa diana, hora da espousa; bena espous berriaren adiskide baicic eztena, haren khantian dago, eta behatzen da haren botçari eta boztariouan da; ikhousten dut orai boztario hori complituric.

<sup>30</sup> Behar du handitu, eta behar dut gutitu.

<sup>31</sup> Gaignetic jin dena ororen gaigneco da; lurretic jin dena lurreco da, eta lurretic mintço da; celutic jin dena ororen gaigneco da,

<sup>32</sup> eta erakousten du ikhousi eta entçun diana; eta hati ihourc ere eztu errecebitzen haren jakititia.

<sup>33</sup> Haren jakititia errecebitzen dianac, segurtatzen du Jincoua egua dela.

<sup>34</sup> Ceren Jincouac igorriric denac erraiten dutu Jincouaren hitzac; ceren Jincouac ezpeteio espiritia aphurchki emaiten;

<sup>35</sup> ceren aitac maite du semia, eta gaiçac oro eman deitço eskiala.

<sup>36</sup> Semiaren beithan sinhesten dianac badu bethiereco bicitcia; bena semiaren beithan sinhesten eztianac eztu ikhousico bethiereco bicitcia, bena Jincouaren colera hartan gagnen egoiten da».

---

<sup>28</sup> *cirade*: *izan* aditzaren orainaldiiko 2. pertsonari dagokionez, Ürrütik hiru forma erabiltzen du: i) *cira*; ii) *cirade*; eta iii) *ciradeie*. Numeroaren arabera, i) *cira* beti singulararekin komunztatua da; ii) *cirade* behin ageri da singularreko balioaz (14,22) vs 27 aldiz pluralekoaz: 3,28, 5,35, 5,40, 7,23, 7,44, 8,21, 8,22, 8,23 (bitan), 8,24 (bitan), 8,31 (bitan), 9,27, 10,34, 13,10, 13,11, 13,17, 13,35, 14,19, 15,3, 15,4, 15,7, 15,10, 15,19, 15,27 & 16,32; eta iii) *ciradeie* plural pleonastikoa hirutan ageri da: 4,38, 6,26 & 7,21. Forma modalak direnaz bezainbatean, *cirateke* beti pluralarekin ageri da: 8,36, 15,14, 15,8 —*ciateke*—, 15,27 & 16,20 (bitan), eta morfologia pleonastikoa duen forma bi aldiz: *beitciratekie* 5,20 & *ciatekienian* 21,18.

<sup>29</sup> *espoussa*: -a berezkoa duenean, ‘emazte’, eta bestenaz ‘senar’; halere, ESPOUS sarreran Gèzek époux & épouse parekatzen ditu, eta orobat Xahok. Hortaz, *espusa* formak printzipioz ‘emazte’, ‘emazte.DET’ zein ‘senar-DET’ adieraz dezake. Halere, Ürrütik lehenean <ss> grafia erabili du bokalen artean, eta bigarrenean liaisonen ondoriozko /z/ igurzkari ahostuna adierazten duen <s> bakuna. Zubereraren lexikografian deusek ez du *espusa* femeninoa eta *espus* maskulinoa igurzkari ahostunaz bereiz litezen; horrezaz gain, Ürrütik berak *espousa* ‘emaztea’ 2,9 ere idazten du.

<sup>30</sup> Ürrütik aski estilo sobrean errendatzen du bertset hau, TBk bezain trinko; cf. *Harc behar du handitu, eta nic chipitu Lç; Handitu behar du, eta gutitu behar dut* TB; *Hura behar da gurendu, ni aldiz gutitu* HeH; fr. *Il faut qu'il croisse, et que je diminue* Sacy & Ost.

<sup>32</sup> *hati*: ‘haatik’ (1888ko edizioan *hari*). OEHk ez du aldaera hau HAATIK sarreran jaso; bestenaz, HATI sarrerakoan, harridurazko perpausetakoa, arras beste zerbait da. Cf. *baina haren testimoniagea nehorc eztu rezebitzen* Lç; *bainan nihorc ez du errecebitzen haren lekhucotassuna* TB; *eta bizquitartean nehorc eztu nahi haren lekhucotasunic* HeH; *mais personne ne reçoit son témoignage* Ost. Ürrütik *eta hati* segidan erabiltzen du (6,36, 6,70, 7,19, 7,26, 9,30, 10,35, 13,10), salbuespen batekin (12,42).

<sup>34</sup> *aphurchki*: “Avec parsimonie” [sic] (Harriet apud OEH, s.v. APURXKI). Azpimarratu behar da OEHren sarrera Ürrütiren bertset honekin baizik ez dela ilustratua. Gainerako euskaratzaleek *neurriz*, *neurtu* eta erro bereko lexemak erabili dituzte; Ürrütik erabili zituen frantsesezko bi bertsioetan *par mesure* datza.

**3,1** III capitulia] A II capitulia. **3,5** Eguiazki, eguiazki] B Eguiaski, eguiaski. **3,17** salbatcera] A sablatcera. **3,19** hau] A B han; cf. Ost voici : Lç haur : HeH hau gatic. **3,24** eçarriric] A eçariric. **3,29** behatcen] A beatcen. || boztariouan] B bostariouan. **3,32** hati] A hari; cf. Ost mais personne ne reçoit son témoignage : Lç baina : TB bainan.

#### IV. CAPITULIA

<sup>1</sup> Jesusec jakin cianian pharisienc entçun cirela ari cela batheyatcen, eta eguiten ciala Johanec beno dicipulu haboro

<sup>2</sup> (nahibada Jesusec berac etcian batheyatcen, bera bai haren dicipulie),

<sup>3</sup> utci cian Judea, eta jouan cen berriz Galilealat.

<sup>4</sup> Eta noula behar beitcian igaran Samarian gaintic,

<sup>5</sup> jin cen Samariaco hiri Sichar deithu batetara, çouin beita Jacobec bere seme Josephi eman ceion lurraren ondouan.

<sup>6</sup> Han bacen phutçu bat, deitcen beitcien Jacoben uthurria, eta Jesus bidiaz einheric beitcen, jarri cen phutciaren hegorian. Egüerdi ungarunia cen.

<sup>7</sup> Jin cen hara Samariaco emazte bat, hourkaro. Jesusec erran cion: «Indaçu edatera».

<sup>8</sup> Ceren bere dicipuliac jouanic ciren hiriala janhari eroстра.

<sup>9</sup> Bera emazte Samariaco harec erran cion: «Noula çuc judio içan eta, galthatcen deitadatçu edatera, ni emazte Samariaco bat içan eta? Ceren judiouec eztie comerciaric samaritaneki».

<sup>10</sup> Jesusec erran cion: «Eçagutcen bacinu Jincouaren dohaigna, eta nour den çouri errailia “Indaçu edatera”, cihauc ere galthatuco ceneion, eta emanen ceiçun hour laster batetaric».

<sup>11</sup> Emazte harec erran ceion: «Jauna, eztuçu deus ere hour hartceco, eta phutcia barna duçu; nountic duçu aren hour laster houn hoi?

---

<sup>2</sup> *nahibada*: balio kontzesibozko lokailua zubereran (erronk. *nahibeda*), “documentado desde mediados del s. XVII en autores suletinos y mixanos, y en Harizmendi, Elissamburu y Mendigacha” (*OEH*, s.v.).

<sup>5</sup> Ürrütik euskararen historian —eta bereziki Iparraldeko mintzoetan— ohikoa izan den izenaren ondoko erlatibozko egitura ematen du. Erkatu diren euskaratzeen artean, bertset honetan soilik TBk ez du erlatibo postnominala erabiltzen: *Samariaco hiri Sichar deitzen den batetara* Lç; *Samaritaco hiri batetarat, deithua Sichar* TB; *Samariaco hiri, Sichar çaritçon batetara* HeH; *Samariaco hiri Sichar deithu batetara* EvS. Frantseseko iturriean ez da erlatiborik, aposizioa baizik: *en une ville de Samarie, nommée Sichar Sacy & à une ville de Samarie, nommée Sichar Ost.*

<sup>7</sup> *hourkaro*: “En busca de agua, a por agua” (*OEH*, s.v. URKARO; Ürrütiren pasarte hau baizik ez du adibidetzat bildu); cf. *ur idoquitera* Lç, *urca* TB —hutsa ote?—, *urqueta* HeH. Akitaniako mintzoen tradizioan azken forma horrek (*h*)urkaro baino anitez ere erabilpen hedatuagoa izan du.

<sup>10</sup> *çouri errailia*: euskalki gehienetan eratorpen hutsezko morfema den -le atzizkia ekialdean perpaus osoari erants dakioke, hemen [çouri *indaçu edatera erran*]-le; ikus Fernández et al. (2010).

<sup>10</sup> *hour laster*: bi adiera izan dezake: i) “corriente de agua, río” eta ii) “Agua que corre, agua corriente” (*OEH*, s.v. UR); bada, bigarren adieran *OEH*k Ürrütiren pasarte hau jasotzen du. Gainerako euskaratzeetan *ur vicitic* Lç, *ur bicitic* TB, *ur laster batetaric* HeH; cf. fr. *de l'eau vive* Sacy & *une eau vive* Ost.

<sup>12</sup> Jacob goure aita beno handiago çira, çouignec eman betiku phutcia, eta berac edan beitu, eta bere haurrec ere bai, eta cabalec?»

<sup>13</sup> Jesusec erran cion: «Nourc ere edanen beitu hour hountaric egarrituren da berriz; bena nic emanen dudan houretic edanen dianac eztu haboro egarriric ukhenen;

<sup>14</sup> ceren nic emanen dudan hora içanen da haren beithan uthurri bethi iraingnen dian bat, heltu beita bethiereco biciticialartino».

<sup>15</sup> Emaztiac erran cion: «Jauna, eman içadaçut hour hortaric, ezteçadan ukhen guehiago egarriric, eta eznadin jin hounat idokitcera».

<sup>16</sup> Jesusec erran cion: «Çouaça, deit eçaçu çoure senharra, eta tciauri houna».

<sup>17</sup> Arrapostu eman cion emastiak eta erran cion: «Eztut senharrik». Jesusec erran cion: «Ountxa erran duzu “eztut senharrik”,

<sup>18</sup> ceren izan duçu çazpi senhar eta orai duçuna ezta çure senharra; eguiazki mintço cinen».

<sup>19</sup> Erran cion emaztiac: «Jauna, iduri du profeta bat cirela.

<sup>20</sup> Goure aitec adoratu çuten mendi huntan, eta ciec erran ducie Jerusaleme dela adoratceco lekhia».

<sup>21</sup> Jesusec erran cion: «Emaztia, sinhetx neçaçu: orena jin da, noun ezpeituie adoratuco Aita, ez mendi hountan, ez Jerusalemen.

<sup>22</sup> Adoratcen duçie eşagutcen eztuciena; guc adoratcen dugu eşagutcen duguna, ceren salbamentia jiten da judiouetaric.

<sup>23</sup> Bena orena heltu da, eta orai da, çouintan eguiazco adoraçalec adoraturen beitie Aita espirituz eta eguiaz, ceren halaco adoraçale galthatcen du Aitac.

---

<sup>11</sup> *aren*: dardarkarien lenizioaren ondoriozko forma; jakina, ‘arren’; cf. *beraz* Lç, TB & HeH eta frantses *donc* Sacy & Ost. Ürrütik sistematikoki *<aren>* idazten du, eta 1888ko argitaratzaileek ez dute beti horrela konprentitu, *aren* 7,11 → *haren* kanbiatuz.

<sup>13</sup> Bertset honetako azken zatia egiazki 14. bertsetari dagokio. Horrek Ürrütiren eta Haraneder-Harrieten bertsioak bateratzen ditu, erkatu diren euskarazko zein frantsesezko gainerako bertsioen artean inon ez baita testuaren banaketa hori atzmanan.

<sup>13</sup> *egarrituren da ... eztu haboro egarriric ukhenen*: estiloaren bariazio ariketa batean, Ürrütik bi modutara errendatzen du frantsesaren *avoir soif*. Gainerako euskaratzaillek molde bakarra darabilte: Leizarragak eta Haranederrek *egarritu* errepikatzen dute, eta TBren egileak *egarri içan* ‘úkan’.

<sup>14</sup> *iraingnen*: honetaz landara, Ürrütik beste batean baizik ez du *<ngn>* grafia eman: *Jourdaingnaren* 10,40.

<sup>14</sup> *biciticialartino*: hitz banaketak *artino* terminatibozko postposizio askea *-ala* adlatiboaren morfemari eransteko bidean dela seinalatzen du; cf. *bethierecoualartino* 4,36 & *mementoualartino* 13,1, baina *gagniala artino* 2,7. Bestenaz, Zuberoako testu zaharretan terminatiboaren adierazpide ohikoena izan zen *-ala drano* postposizio egitura XIX. mendean itzali zen (Padilla-Moyano 2017: II, § 2.4.3).

<sup>15</sup> *icadaçut*: ‘iezadazu’. Ohart *-da-* + *-t* datiboaren komunzaduraren pleonasmoa; ikus *deitzadan* 5,36 eta hango oharra.

<sup>17</sup> *duzu*: horrela datza 1873ko eta 1888ko edizioetan. Agerraldi bakarra da, vs *<duçu>* grafia 41 aldiz; ez ahantz Ürrütiren sistema grafikoan —eta, oro har, Zuberoako testu zaharretan— bokalarteko *<z>* grafemak txistukari ahostuna irudikatzen duela; ikus *arrazoua* 3,19 eta bertako oharra.

<sup>24</sup> Jincoua espiritu da, eta adoratcen dienec behar dire adoratu espirituz eta eguiaz».

<sup>25</sup> Emaztiac erran cion: «Badakit Messia (erran nahi beita Krista) jin behar diala; nouiz ere jin beitateke, gaiçac oro erakouxico deizkula».

<sup>26</sup> Jesusec erran cion: «Ni niz, çouri mintço dena bera».

<sup>27</sup> Ber demboran bere dicipuliac heltu cien, eta estonatu cien emazte bateki elhez ari celacoz. Arastan ihourc ere etceion erran: «Cer galthatcen duçu?» Edo: «Certaco mintço cira horreki?»

<sup>28</sup> Ordian emaztiac utciric han bere pegarra, jouan cen hiriala, eta erran cian jenter:

<sup>29</sup> «Tciauste, ikhous eçacie guiçon bat çougnec erran beteitçat eguin dutudan gaiçac oro, hau ezteia othe Krista?»

<sup>30</sup> Elkhi cien ordian hiritic eta jin cien harengana.

<sup>31</sup> Ber demboran, dicipuliec othoitcen cien cerbait har leçan, erraiten cielaric: «Naussia, jan eçaçu».

<sup>32</sup> Bena ihardetxi ceien: «Nic badut janhari bat hartceco noun ezpeitucie eçagutcen».

<sup>33</sup> Dicipuliec erraiten cien beren artian: «Nourbaitec ekharri othe deioua jatera?»

<sup>34</sup> Jesusec erran ceien: «Ene janharia da ene Aitaren boronthatiaren eguitia eta haren obren complitcia.

<sup>35</sup> Eztucieia erraiten badela orano lau hilabethe eta guero errecolta jinen dela? Bena nic erraiten deiciet: Goiti itçatcie cien beguiac, suguicie bazterrer noula deja chouri dien, eta errecolta çohi.

<sup>36</sup> Eta errecolta biltçaliac badu bere saria, eta goititcen dutu bere errecoltac bicitce bethierecoualartino, ereiliac ere ukhen deçan boztarioua, biltçaliac beçala.

---

<sup>24</sup> *dire*: bistan dena, *die* ‘dute’ irakurri behar da. Zuberoan bokalarteko /r/-ren ezabatzearen ondorioz, idazle zuberotarrak hiperzuzenketa egiten hasi ziren; ikus *beitciren* 1,19.

<sup>27</sup> *Arastan*: OEHren arabera (s.v. ARRASTA 2), “por lo demás” (Azkue), “au reste” (Harriet); bestenaz, OEHk bereiz jasotzen du *arrastan puru* “du reste, cependant” (Lhande). Aldiz, hemen Ürrütik frantsesaren néanmoins itzultzeko erabili du *arrastan soila*; cf. *badaric-ere* Lç *bizquitartean* TB; *halaric ere* HeH néanmoins Sacy & néanmoins Ost. Gainerakoan, Ürrütik *arrasta* 6,12 ‘reste’ erabiltzen du, <rr> bikoitzaz.

<sup>35</sup> *deja*: ‘jada, jadanik’. Ediziogile honi eskapatzen zaizkion arrazoientzatik OEHk DEIA sarrera dakar, eta ez DEJA —bai, ordea, JA, JADA & JADANIK—, eta orobat DEIADANIK eta DEIARADANIK sarreretan. Ekialdeko tradizioan lekukotzen da. Ana Ürrütik behin *dejadanik* 13,2 erabili du, eta gainerako guztietaan *deja*: 4,35, 5,24, 5,25, 6,17, 7,14, 9,22, 9,27, 11,39, 13,10, 15,3, 16,11, 16,32 & 1933.

<sup>35</sup> *errecolta*: erkatu diren gainerako euskaratzaleek *uzta* ematen dute, eta frantses iturriek *la moisson*.

<sup>37</sup> Ceren ordenarizki erraiten diena egua da: batec ereiten diela eta bestec biltcen.

<sup>38</sup> Igorri çutiet ciec biltcera ereign eztucien lurriala; bestec lana eguin die eta sarthu ciradeie haien lanian».

<sup>39</sup> Eta hiri hartaco hanitx samaritanec sinhetxi cien hartan, ceren emazte harec erran ceielacoz: «Erran deitçat eguin dutudanac oro».

<sup>40</sup> Samaritanouac jinic harengana, othoitu cien haieki egoiteco; eta egon cen han bi egunez.

<sup>41</sup> Eta hanitx haboroc sinhetxi cien bera entçun ondouan.

<sup>42</sup> Eta erran cien emaztiari: «Eztugu haboro sinhesten çoure erranagatic, bena guihauc entçun dugulacoz, eta badakigu hau eguiazki Krista dela, mundiaren salbaçalia».

<sup>43</sup> Bi egunen burian, elkhi cen hantic, eta jouan cen Galilealat,

<sup>44</sup> ceren Jesusec berac erran cian profeta bat eztela bere herrian ouhouraturic.

<sup>45</sup> Jin cenian aren Galileala, galilearrec errecebitu cien boztario handi bateki, ikhousiric Jerusalemen besta egunian eguin çutian gaiçac oro; ceren hourac ere bestan beitciren.

<sup>46</sup> Jesus jouan cen biguerren aldico Cana Galileacouala, noun hora ar dou khanbiatu beitcian. Eta bacen Capernaumen jaun bat, çougnec semia eri beitcian.

<sup>47</sup> Jaun harec entçunic Jesus heltu cela Judeatic Galileala, jouan ceion, eta othoitu cian jin cedin haren semiaren sendotcera, bestela hiltcen cela.

<sup>48</sup> Jesusec erran ceion: «Ezpaduçie ikhousten miracuilluric edo espantagarriric, eztuçie sinhesten».

<sup>49</sup> Jaunac erran cion: «Naussia, tciauri ene semia hil beno lehen».

<sup>50</sup> Jesusec erran cion: «Çouaça, çoure semia bici da». Jaun harec sinhetxi cian Jesusec erran ceion elhia, eta jouan cen.

<sup>51</sup> Jouaiten celaric, bere cerbutcharietaric çoumbait jin ceitçon aitciniala erraitera: «Çoure semia bici da».

<sup>52</sup> Galthatu ceien cer orenetan hobeki ikhousi cien, erran ceien: «Atço, çazpi orenen ungurunian sukharrac utci çiçun».

<sup>53</sup> Aita harec eçaguturic oren hartan berian Jesusec erran ceiola «Çoure semia bici da», sinhetxi cian berac eta bere etcheco oroc.

<sup>54</sup> Jesusec hoi biguerren miracuillia cian, Judeatic Galileala arrajinez gueroz.

**4,10** errailia] B *erraillia*. || ceiçun] A çeiçun. **4,12** cabalec] B *kabalec*. **4,13** edanen] *eda-en* lerroartean. **4,14** iraignen] A B *iraingnen* testu osoan <ngn> digrafoa bitan baizik; cf. *Jourdaingnaren* 10,40. **4,17** eztut] A *estut*.

<sup>37</sup> *ordenarizki*: aldaera hau ez da OEHren ORDENARIOZKI sarreran jasoa. 1812. urtekoa den «Inperioaren katiximaren» zubererazko bertsioan ere ageri da: *Gincouaren offensatuz dolumen bat phitzuric ordenarizqui behatiaren itchoustarçunaz edo ifernuco phenen loxac* [65. or.] (*Doctrina khristia haurren instrucciones* t. Baiona: Cluzeau [Vinson 1891: § 171c]).

<sup>37</sup> *batec ... bestec*: Ürrütiren zubereran *batec* mugagabearen zein pluralaren ergatiboaren forma da; cf. *Batec erraiten cien*: «*Guicon houn bat da*»; *eta bestec erraiten cien*: «*Ez, bena jentiac inganatzen dutu*» 7,12.

<sup>47</sup> *jin cedin*: *jin ledin* igurika genezake; ikus *sinhetx lecen* 1,7 eta hango oharra.

**4,18** çazpi] A *çazpi*. **4,19** emaztiac] A *emastiac*. **4,20** ducie] A *duzie*. **4,25** beita] A B *beitita*. **4,35** bazterrer] A *bezterrer*.

## V. CAPITULIA

<sup>1</sup> Gaiça hoien ondouan, Judean bacen besta bat, eta Jesus igaran cen Jerusalemera.

<sup>2</sup> Jerusalemen bada, ardién merkhatian, maignhatceco leku bat hebruez deithia Bethesda, noun beitcen bost portale,

<sup>3</sup> noun ere beitcen etçanic eri hanitx, uxu, tchainku, eta jente menbriac idorturic çutienac; oroc egurukitcen cien houraren iguidura.

<sup>4</sup> Ceren ainguru bat eraixten cen demborati demborala hour hartara eta nahasten cian hora, eta thurbosten. Eta hour harten sartcen cen lehen eria, hora thurbustu ondouan, cernahi eritarçun ukhenic ere, sendoturic cen.

<sup>5</sup> Han bacen guiçon bat noun eri beitcen hogei eta hamaçortci ourthe harten.

<sup>6</sup> Jesusec ikhoustez etçanic eta eçagutuz aspaldian eri cela, galthatu ceion: «Sendotu nahi cira?»

<sup>7</sup> Eriac ihardetxi ceion: «Jauna, eztit ihour ere, hora thurbustu ondouan houriala ourthoukitcen naianic, eta ni eraisten niçan demboran, beste nourbait eraisten çait ni beno lehen».

<sup>8</sup> Jesusec erran ceion: «Jaiki cite, har eçaçu çoure ohia, eta ebil cite».

<sup>9</sup> Ber mementouan guiçon hora sendotu cen, eta bere ohia harturic ebilten cen. Eta egun hora errepausuco eguna cen.

<sup>10</sup> Hartacoz judiouec erran cien sendotu cen guiçon hari: «Errepausuco eguna duçu egun, etçaiçu permis çoure ohiaren eramaitia».

<sup>11</sup> Arrapostu eman ceien: «Sendotu naianac erran deit: “Cargueçaçu çoure ohia eta ebil cite”».

<sup>12</sup> Galthatu ceien: «Nour da guiçon hora, noun erran beteiçu: “Harçaçu çoure ohia eta ebil çite”?»

<sup>13</sup> Bena guiçon sendoturic içan cen harec berac ere etçakian nour cen, ceren Jesus elkhí cen bilkura hartaric.

---

<sup>1</sup> *Judean bacen besta bat*: soilik Ürrütik ematen du *Judean*; cf. *Iuduén bestabat cen Lç; bacen juduen festa bat TB; iai-eguna çuten Iudutarrec HeH; la fête des Juifs* Sacy & les Juifs avaient une fête Ost.

<sup>2</sup> *maignhatceco leku*: cf. *ikhuzgarribat Lç; mainhu toqui TB; ikhuz toquia HeH; piscine des brevis* Sacy.

<sup>3</sup> *egurukitcen*: ‘igurikitzen’. Aitzineuskaren \*e- aurizkiaren itxuraz denaz bezainbatean, Zuberoako euskara bereziki gordetzaile izan da (Padilla-Moyano 2017: IV, § 1). Ürrütik, halere, asimilazioa iragan duten formak ere baditu, hala nola *ikhüratü* <ukhuratu> 1,35 <ekhüratü>.

<sup>4</sup> *thurbosten*: “troubler” (Gèze, s.v. THURBUST); zubereraren tradizioko hitza.

<sup>5</sup> *hogei eta hamaçortci ourthe harten*: ohart inesibo singularraren komunzaduraz, TBn eta HeHn ere kausitzen dena; Leizarragak *hoguey eta hemeçortzi urthez*.

<sup>14</sup> Guerochiago, Jesusec ikhousi cian templian, eta erran cion: «Horra sendoturic içan cira; ez haboro behkaturic egun, cerbait gastouago hel eztakiçun».

<sup>15</sup> Guiçon hora jouan cen, eta erran cian judiouer Jesus cela haren sendorazlia.

<sup>16</sup> Eta hortacoz judiouec tcherkhatcen cien Jesusen hileraztia, gaiça horic eguiten çutialacoz errepausuko egunian.

<sup>17</sup> Bena Jesusec erran ceien: «Ene aita bethidanic ari da lanian, eta bai ni ere».

<sup>18</sup> Horegatic judiouec hobeki tcherkhatcen cien hileraztia, certaco ez solamente etçialacoz errepausuko eguna beguiratcen, bena erraiten çialacoz Jincoua haren aita cela, eta Jincouaren bardin cela erraiten cialacoz.

<sup>19</sup> Bena Jesusec erraiten deie: «Eguiazki, eguiazki erraiten deiçiet, Semiac eztiala deus ere eguiten ahal, ezpadu ikhousten Aitari eguiten; ceren Aitac eguiten dutianac oro, Semiac ere eguiten dutu harec beçala.

<sup>20</sup> Ceren Aitac maite du Semia, eta eguiten dutianac oro erakhousten deitço, eta erakhoutxico deio orano horic beno handiagoric ere, noun admiracionez betheric beitciratekie.

<sup>21</sup> Ceren noula Aitac hillac phizten beitutu eta bicia emaiten, ber guisan Semiac bicia emaiten du.

<sup>22</sup> Ceren Aitac eztu jujatcen ihour ere, bena jujamentia oro eman du Semiari,

<sup>23</sup> amorecatic oroc ouhoura decen Semia, Aita ouhouratcen dien beçala. Semia ouhouratcen eztianac eztu ouhouratcen Aita ere, çougnez igorri beitu.

<sup>24</sup> Eguiazki, eguiazki erraiten deiçiet: Nourc ere ene elhia entçuten beitu, eta niigorri naianian sinhesten badu, harec badu bicitce bethierecoua, eta ezta condemnacionala erorico; bena deja igaranic da hiltceti bicia.

<sup>25</sup> Eguiazki, eguiazki erraiten deiçiet: Orena jiten da, eta deja jinic da, noun hilec entçunen beitie Jincouaren Semiaren botça; eta nourc ere entçuten beitu, hora bicico da.

---

<sup>14</sup> *gastouago*: Ürrütik aldaera hau erabiltzen du; ikus *gaisto* 3,19.

<sup>15</sup> *sendorazlia*: 1888ko edizioan *sendarazlia*. *OEHk* *sendorazi* nahiz *sendarazi* jasotzen ditu (s.v. SENDOARAZI & SENDARAZI, hurrenez hurren), aditz desberdinatik eratorriak direlako; *sendorazi* aldaera bakarrik Zuberoan lekukotzen da. Bestalde, aditz arazlearen estrategia Ürrütirena da, Ebanjelioaren gainerako euskaratzetan bestelako formulak irakurtzen baititugu; cf. *Iesus cela hora sendatu ukana quena Lç; Jesus cela sendatu quena TB; Jesus cela haren ontsatçaillea HeH*; frantssez *C'était Jésus qui l'avait guéri* Sacy, Ost.

<sup>18</sup> *certaco*: hemen kausa edo zergatia —zentzu hertsian— adierazten da; cf. frantses iturrietako *parce-que* (Sacy, Ost) eta euskaratzaileen *ceren* (Lç, TB, HeH). Morfologikoki bi aukera dakusagu: i) zinez -taco funtziokzko kasu marka izatea; edo ii) *certaraco* > *certaco* higadura fonologikoa.

<sup>20</sup> *beitciratekie*: ‘baitzaratekete’. Zuberoan -ke morfemari -e pluralgilea eranstearen emaitza klasikoa -keie da. Hortaz, -kie segidak nolabaiteko higadura erakusten du, jada XVII. mendean lekukotua: *datekiela* Etchart 8,1r; O Po 53. Ana Ürrütik ez du behin ere -keie ematen: *beitciratekie* 5,20, *datekienian* 7,24, 7,31, 13,19, 15,16, 15,26, 16,4, 16,8 & 16,13 eta *niçatekienian* 12,32 & 14,3; gainerakoan, *lukien* ‘luketen’ 21,25 zuzenketa kontziente baten ondorioz editatu dela *luken* ‘lukeen’ ordez.

<sup>26</sup> Ceren noula Aitac bicia berartan beitu, ber guisan eman du Semiari biciaren ukeiteco bere beithan.

<sup>27</sup> Eman deio jujatceco photeria, ceren guiçonaren Semia beita.

<sup>28</sup> Etcitaiela estona hortçaz, ceren orena jinen da, noun hobietan direnec oroc entçunen beitie Jincouaren Semiaren botça,

<sup>29</sup> eta nource ere ountxa eguin beitu, elkhico da hobitic arraphizturic bethi bicitceco; bena nource ere gaizki eguin beitu, hora elkhico da condemnacioniaren.

<sup>30</sup> Eztut deus ere eguiten ahal nihaurtçaz, jujatcen dut entçuten dudan beçala, eta ene jujamentia justo da, ceren ezpeitut tcherkhatcenene boronthatia, bena bai Aitaren boronthatia, çougnec igorri benai.

<sup>31</sup> Bardin nihauc ene buriari jakitate errenda baneça, ene jakitatia elicte eguiazcoua.

<sup>32</sup> Bena beste bat bada ene jakitatia egua dela errakousten beitu, eta badakit jakitate errendatcen deitadana eguiazcoua dela.

<sup>33</sup> Igorri duçie Johanegana, eta errendatu du jakitatia eguiari.

<sup>34</sup> Eztut tcherkatzcen guiçonen aprobacionia; bena erraiten dutut gaiça horic, amorecati salbaturic içan çitaien.

<sup>35</sup> Johane cen arguiçagui arguitxu bat, eta ciec nahi içan cirade iratcheki.

<sup>36</sup> Bena nic badut jakitate bat Johanerena beno handiagoua; ceren ene Aitac eguiteco eman deitzadan obrac, obra hec berec erakousten die nitçaz, eta ene Aitac igorri naiala.

---

<sup>26</sup> *berartan ... bere beithan*: Ürrütik barazio estilikoa darabilke, gainerako euskaratzaleek molde bata ala bestea errepikatzen dutelarik: *bere baithan* Lç, HeH, *berartan* TB; egun euskara batura itzulia den Elizentzako Bibliak ere *bere baitan* errepikatzen du.

<sup>29</sup> *condemnacioniaren*: hemen genitiboak balio destinatiboa kodifikatzen du; ez balio benefaktiboa (*-rentzat, -rentako*), baizik eta egiazko destinatiboa (*-rako*) denboran proiektaturik; cf. *ressusciteront pour la condamnation Ost; [ilkhiren dirade] kondemnazioneko* [DEST] *resurrectionera* Lç; *berriz condemnacionearen içaiteco* TB; *phizturic galtçapenecotçat* [PURP] HeH.

<sup>31</sup> *Bardin*: ‘baldin’. 1873ko testuan Ürrütik lau aldiz idatzi du *bardin* (5,31, 15,20 —bitan— & 21,23) vs *baldin* bakarra (7,23). *Bardin* aldaera existitzen da, baina Mendebaleko tradizioan lekukotua; OEHk (s.v. BALDIN) bizkaieraren etiketaean sailkatzen du. 1888ko edizioan *baldin* zuzendu nahi izan dute (15,20, 21,23); halere, *bardin* bat itzuri zen, hain zuzen bertset honetakoa.

<sup>31</sup> *errenda baneça*: subjuntibozko baldintza Haraneder-Harrieten bertsioan ere datza: *Baldin nerorrec neure buruari lekhucotasun ekhar banioça*; aldiz, Leizarragak eta TBk *badut* dakarte.

<sup>35</sup> Ürrütik ez du gainerako bertsioetako *pour un peu de temps* (Sacy, Ost), *appur-batetacotz* (Lç), *dembora pochi batentçat* (TB) edo *aphur bat* (HeH) bezalakorik ematen.

<sup>36</sup> *deitzadan*: ‘dizkidan’. Zuberak singularreko 1. pertsonaren datiboaren komunztaduraren pleonasmoa garatu du; fenomenoa erronkarieraz ere ezaguna da, singularrean nahiz pluralean. Berrikuntza goiztiarra izan arren —jada Oihenart eta Belapeirerengen lekukotua—, testuen tradizioan bederen forma pleonastikoek ez zituzten pleonasmorik gabekoak guztiz itzali (Padilla-Moyano 2017: V, § 2). Ürrütik erregularzki ematen ditu horrelako formak, *deitztanac* 6,37 salbuespen bakarra izanik.

<sup>37</sup> Ene Aita igorri naianac erakouxi du berac ene jakitatia. Eztuie secula entçun haren botça, ez ikhousi haren begithartia.

<sup>38</sup> Eta haren elhia ezta egoiten cien beithan, ceren ezpeitucie sinhesten ni igorri naianian.

<sup>39</sup> Iracour itçatcie souagnouski izkiribiac, ceren hetaric sinhesten ducie bethiereco bicitcia baduciela, eta hec erakasten die ni nour niçan.

<sup>40</sup> Bena etcirade nahi jin eneganat bethiereco bicitciaren ukheiteco.

<sup>41</sup> Eztut ene loria guiçonetaric tcherkhatcen,

<sup>42</sup> bena eçagutcen dut ountxa eztuciela Jincouaren amorioua cien beithan.

<sup>43</sup> Jin niz ene aitaren icenian, eta enaicie errecebitcen; beste bat jiten bada bere icenian, hora errecebitcen ducie.

<sup>44</sup> Noula sinhesten ahal ducie, batac bestiaren loria tcherkhatcen ducienaz gueroz, eta eztucienaz gueroz tcherkhatcen Jincouaganic jiten den loria bera?

<sup>45</sup> Ezteçaciela ouste ukhen accusatu behar çutiedala ene Aitaren aitcinian; Moïsa, çouintan khountatcen beitucie, harec accusatuco çutie.

<sup>46</sup> Ceren Moïsa sinhetx baceneçacie, ni ere sinhetx nindiocie, harec nitçaz izkiribatu dialacoz.

<sup>47</sup> Bena ezpaducie sinhesten haren izkiribietan, noula sinhesten ahal duçie nic erraiten dutudanetan?»

**5,2** Bethesa] A B *Beth-esda*. **5,9** hora] B *hourra*. **5,15** sendorazlia] B *sendarazlia*. **5,24** sinhesten] B *cinhesten*. **5,34** citaien] A B *citçaien*; cf. Sacy Ost *afin que vous soyez sauvés* : Lç *salba çaiteztentçat* : TB *içan çaiteztentçat salbatuac* : HeH *salba çaiteztentçat çuec*. **5,39** erakasten] A *errakasten*. **5,44** eztucienaz] A B *eztucianaz*.

## VI. CAPITULIA

<sup>1</sup> Gaiça hoien ondouan Jesus jouan cen Galileaco itchasouaren beste gaintiala, çouin beita Tiberiaco itchasoua.

<sup>2</sup> Eta populu tropa handi batec jarraikitcen cian, ikhousiric erien gagnen eguiten çutian miracuilliac.

---

<sup>38</sup> *naianian*: ‘nauenagan, nauenarengan’. Gogora bedi Ürrütiren zubereran maiz bizidunek ez dutela animazitatearen araberako morfologia erakusten.

<sup>45</sup> *çouintan khountatcen beitucie*: cf. *ceinetan çuec sperança baituçue* Lç; *ceintan condatcen baidutçue* [sic] TB; *ceintan baituçue çuen ustantça* HeH; *en qui vous espérez* Sacy, Ost.

<sup>46</sup> *nindiocie*: \*iron aditzaren forma, ‘nintzakezue’ adizkiaren baliokoa; cf. *nindiroqueçue* Lç; *nindioçue* TB; *nindeçaqueçue* HeH.

<sup>1</sup> *Tiberiaco itchasoua*: cf. *Tiberiacora* Lç vs *Tiberiadako ixasoa* TB; *Tiberiadaco aintciraren* HeH; *le lac de Tibériade* Sacy; *la mer de Tibériade* Ost.

<sup>2</sup> *populu tropa*: molde hau ez da OEHn jasoa; cf. *gendetze* Lç, *yende oste* TB, *oste* HeH & *foule de peuple* Sacy, Ost.

<sup>3</sup> Ordian Jesus igaran cen mendi batetara eta han jarri cen bere dicipulieki.

<sup>4</sup> Eta Bazco besta, çouin beitcen judiouen besta handi bat, huillan cen.

<sup>5</sup> Eta Jesusec bere beguiac goraturic, eta ikhoustez populu hora jiten cela harengana, erran cian Philiperi: «Nountic erosiren othe dugu ogui, hoier jatera emaiteco?»

<sup>6</sup> Bena hoi erraiten ceion esprobatceco, ceren bazakian berac cer egun behar cian.

<sup>7</sup> Philipek erran cien: «Bagunu ere ehun liberaren ogua, ezkinioçu eman ahal bakhotchari ahamen bat!»

<sup>8</sup> Beste dicipulu batec, Andres Simon-Pierraren anaiac, erran cion:

<sup>9</sup> «Bada heben mothico bat, diana bost garagar ogui eta bi arrain; bena cer da hori haimbeste jenteren?»

<sup>10</sup> Ordian Jesusec erran ceion: «Jarraraz itçaçu». Ceren sorho hartan bacen belhar hanitx. Eta jarraraci çutien, eta bost milla guiçonen ungurunia jarri cen.

<sup>11</sup> Ordian Jesusec harturic ogua, eta eskerrac errendatu ondouan, eman ceien dicipulier, eta dicipuliec jarriric ciener, eta ber guisan arrain nahi cien beçaimbeste.

<sup>12</sup> Eta asse cirenian, erran cian bere dicipulier: «Bil itçatçie arrasta soberakin direnac, deus gal eztadin».

<sup>13</sup> Bildu çutien, eta bost garagar ogui phouzkaz hamabi çare bethe çutien, arrasta baratu cienetaric.

<sup>14</sup> Eta jente hec ikhousirc Jesusec egun cian miracuillia, erraiten cien: «Hau da eguiazco mundiala jin behar cian Profeta».

---

<sup>6</sup> *esprobatceco*: Zuberoako tradizioan *esprabatü / esprabi* “poner a prueba” (*OEH*, s.v.) dokumentatzen da. Pasarte honetakoa ez bada huts, orduan lekukotu gabeko aldaera litzateke; halere, cf. *esprobatceco* 8,36. Gainerako bertsioetan *enseyatzearagatic* Lç, *frogatceco* TB, *haztatcen* HeH, *pour le tenter* Sacy & *pour l'éprouver* Ost.

<sup>7</sup> *ehun liberaren ogua*: honetan Haraneder-Harrietengandik hurbilago dabil Ürrüti; cf. *ber-ehun dineroren oguiaz* Lç; *birehun diru pecen ogua* TB; *ehun liberaren ogua* HeH; *deux cents deniers de pain* Sacy, Ost.

<sup>7</sup> *ezkinioçu*: \**iron* laguntzailearen forma alokutiboa, *ez giniro* ‘ez genezake’; cf. *ecin eman guinioçaque* ‘geniezaioke’ HeH.

<sup>9</sup> *haimbeste*: bertset honetan Ürrütik *hain beste* idatzi du eta ondoren *beçain beste* 6,11. Hitz banaketa egungo arauetara ekartzeko irizpidearen betetzeak grafiaren aldaketa dakar, baina ez da inolaz ere bortxatua, Ürrütik berak maizenik loturik idatzi baitu: *haimbeste* 12,37, 14,9, 21,6, 21,11 & *haimbestereki* 13,26.

<sup>9</sup> *jenteren*: hemen genitibo soilak adiera benefaktiboa kodetzen du, ‘jenderentzat / jenderendako’, ‘pour [tant] de gens’.

<sup>11</sup> *beçaimbeste*: ikus *haimbeste* 6,9.

<sup>12</sup> *arrasta*: “Reste” (Lhande); cf. *pusca soberaquin* TB; *Ramassez les morceaux qui sont restés* Sacy, Ost. Ürrütik <r> bakunaz grafiatzen du izen horretatik lexikalizatua den *arrastan* (*phüriü*) lokailua; ikus *arrastan* 4,27 eta bertako oharra.

<sup>13</sup> *phouzkaz*: *OEH*k Ürrütiren etsenplu hau jasotzen du (s.v. PUSKA).

<sup>15</sup> Bena Jesusec eçaguturic jin behar citçaitçola hartcera, haren erregue eguiteco, utçuli cen berbera orano mendialat.

<sup>16</sup> Eta nouiz ere arratxa heltu beitcen, dicipuliac eraitxi cien itchasso bazterriala.

<sup>17</sup> Eta barkha batetara igaranic, huillantcen cien Capernaumeco aldialat, çoin beita itchasouaren beste aldian. Eta deja ulhun beltça cen, eta Jesus etcen orano jin haiengana.

<sup>18</sup> Ordian, jaiki cen aice azcar bat, eta itchasoua hassi cen goratcen.

<sup>19</sup> Eta lecoua bat beno haboro bide eguin ciencero, Jesus heltcen cen houren gagnen ebiltcen celaric, eta barkhala huillantcen cela ikhousiric icitu cien.

<sup>20</sup> Bena erran ceien: «Ni niz, ez içan lotxaturic».

<sup>21</sup> Hartu cien berhala barkhan, eta ber mementouan barkha heltu cen jouaiten cien lekhiala.

<sup>22</sup> Biharamenian, itchassouaren beste gaintian egon cen populiac ikhousiric etcela han beste barkharic dicipuliac sarthu ciren hora baicic, eta Jesus etcela sarthu bere dicipulieki, bena dicipuliac jouan cirela berac;

<sup>23</sup> eta noula jin beitcen gueroztic beste barkha Tiberiati, ogua jan cien lekhiaren khantuti, noun ere Jesusec eskerrac errendatu beitçutian.

<sup>24</sup> Populu harec ikhousiric Jesus etcela han, ez dicipuliac ere, sarthu ciren barkha hetan, eta jin ciren Capernaumera Jesusen tcherkhatcez.

<sup>25</sup> Edirenic itchassouaren beste aldian, erran ceren: «Jauna, nouiz jin cira houna?»

<sup>26</sup> Jesusec erran ceien: «Eguiazki, eguiazki erraiten deiciet: Tcherkhatcen naicie, ez miracuillu ikhousi ducielaco, bena bai ogui jan ducielaco, eta asse ciradielaco.

<sup>27</sup> Ari citeie lanian, ez galtcen den anhouaren ondouan, bena bai bethiereco bicitcialartio iragnen dian anhouaren ondouan, çouin/guiçonaren Semiac emanen beteicie, ceren Jinco Aitac hartan eçarri du bere marka».

<sup>28</sup> Galthatu ceien ordian: «Cer eguiten dugu Jincouaren obren eguiteco?»

<sup>29</sup> Jesusec arrapostu eman ceren: «Jincouaren obra da sinhetx deçacienigorri dianaren beithan».

<sup>30</sup> Berriz erran ceren: «Cer miracuillu eguiten duçu, aren, ikhous deçagun eta sinhetx deçagun? Cer obra eguiten duçu?

---

<sup>15</sup> *haren*: osagarri zuzenaren genitiboa, hots, ‘Jesusen’.

<sup>15</sup> *berbera*: zubereraz izenordainen forma indartuak ‘bakarrik’ adieraz erabil daitezke; cf. *itçuli cen oraino bakharric mendirat* TB & *itçuri citçaien berriz mendirat bakhar bakharric* HeH, *lui seul* Sacy.

<sup>19</sup> *barkhala*: 1888ko edizioan *barkala*. Lhandek *barka* zein *barkha* biltzen ditu.

<sup>22</sup> *hora baicic*: 1888ko edizioan *hourac* zuzendu dute, oker. Hona pasartearen zentzia: ‘ez zen beste barkarik [dizipuluak sartu ziren] hora baizik’; cf. *voyant qu'il n'y avait point eu là d'autre barque que celle dans laquelle ses disciples étaient entrés* Ost.

<sup>22</sup> *dicipuliac jouan cirela berac*: ‘bakarrik’; ikus *berbera* 6,15.

<sup>27</sup> *anhouaren ondouan*: *anhoua* < lat. *annona*. “C'est la pitance du pasteur (S-bas)” O VocPo apud OEH (s.v. ANOA). Gainerako bertsioetan *vianda* Lç, *yanharriaren* TB, *ianhariari* HeH & *nourriture* Sacy, Ost.

<sup>31</sup> Goure aitec jan die manna desertian, izkiribaturic ere beita: “Eman deie celuco ogua jatera”».

<sup>32</sup> Jesusec erran ceren: «Eguiazki, eguiazki erraiten deicet: Moïsac ezteicie eman celuco ogua jatera, bena ene Aitac emaiten deicie celuco eguiazco ogua.

<sup>33</sup> Ceren Jincouaren ogua da celuti eraitsi dena, eta mundiari bicia emaiten diana».

<sup>34</sup> Erran ceren ordian: «Jauna, eman içaguçu bethi ogui hartaric».

<sup>35</sup> Jesusec erran ceren: «Ni niz bicizco ogua; eneganat jiten denac eztu ukhenen gosseric; eta nitan sinhesten dianac eztu ukhenen egarriric.

<sup>36</sup> Bena erraiten deicet ikhousi naiciela, eta hati eztucie sinhesten.

<sup>37</sup> Ene Aitac emaiten deitztanac oro jinen dira enegana, eta enegana jiten dena eztut campouan eşarrico.

<sup>38</sup> Ceren eraitsi niz celuti, ez ene boronthatiaren eguitera, bena bai igorri naianaren boronthatiaren eguitera.

<sup>39</sup> Eta heben da Aitaren boronthatia çougne igorri benai, ezteçadan gal bat ere eman deitzadanetaric, bena arraphitz ditçadan azken egunian.

<sup>40</sup> Eta heben da igorri naianaren boronthatia: Nourc ere soguiten beitu Semiari eta hartan sinhesten, haren ukhen deçan bethiereco bicitcia; hartacoz arraphitztuco dut azken egunian».

<sup>41</sup> Eta judiouac mintço ciren haren countre, erran cialacoz: «Celuti eraitsi ogua niz».

<sup>42</sup> Ceren erraiten cien: «Ezteia hau Jesus, Josephen semia, çouinaren aita eta ama eçagutzen beitetugu? Noula dio hounec: “Eraitsi niz celuti”?”

<sup>43</sup> Jesusec arrapostu emanic, erran ceren: «Ezteçaciela marmoucika cien artian.

<sup>44</sup> Ihour ere ezta jiten ahal enegana, Aita igorri naianac ezpadu deitzen, eta nic arraphitztuco dut azken egunian.

<sup>45</sup> Profetec izkiribaturic da: İçanen dira oro Jincouaz erakatxiric. Nourc ere entçun beitu eta behatu Aitari, hora jiten da enegana.

<sup>46</sup> Ez nourbaitec ikhoussi dialacoz Aita, Jincouaganic jinic denac berac du ikhoussi Aita.

<sup>47</sup> Eguiazki, eguiazki erraiten deicet, nitan sinhesten dianac badiala bethiereco bicitcia.

<sup>48</sup> Ni niz bicizco ogua.

<sup>49</sup> Cien aitec jan die manna desertian, eta hil dira.

<sup>50</sup> Heben da celuti eraitsi den ogua, amoregati nourbaitec hartaric jaten badu, eztadin hil.

---

<sup>37</sup> *deitztanac*: ‘dizkidanak’. Zuberoan ohikoa den singularreko 1. pertsonaren datiboaren komunztaduraren pleonasmoa erakusten ez duen adizkia; ikus *deitzadan* 5,36.

<sup>39</sup> *bat ere*: ediziogile honek bereiz uzten du; cf. *est que je ne perde aucun de tous ceux qu'il m'a donnés* Sacy; *que je ne perde aucun de ceux qu'il m'a donnés* Ost.

<sup>43</sup> *marmoucika*: “Murmurer” (Harriet apud OEH, s.v. MARMAZIKATU, Ürrütiren hauxe adibide delarik). Cf. *Ezteçauela murmura* Lç; *ez çäçuela murmura* TB; *ezteçauela ... eras* HeH; *Ne murmurez point entre vous* Sacy, Ost.

<sup>51</sup> Ni niz biciarazten dian ogua, celuti eraitxi niçana; nourbaitec jaten badu ogui hountaric, bicico da bethi ere; eta nic emanen dudan ogua ene araguia da, çouin emanen beitut mundiaren biciarazteco».

<sup>52</sup> Judiouec aren erraiten cien alkharren artian, ciouelaric: «Noula hounec emaiten ahal deiku bere araguia jatera?»

<sup>53</sup> Jesusec erran ceren: «Eguiazki, eguiatzki erraiten deiciet: ezpaducie jaten guïçonaren Semiaren araguia, eta haren odola ezpaduçie edaten, eztucie bicia ukheiten ahal cien beithan.

<sup>54</sup> Ene araguia jaten dianac eta ene odola edaten, badu bethiereco bicitcia; eta nic arraphitzaracico dut azken egunian.

<sup>55</sup> Ceren ene araguia eguiatzko hazcurri bat da, eta ene odola eguiatzko edarri bat.

<sup>56</sup> Ceren ene araguia jaten diana eta ene odola edaten nitan dago, eta ni hartan.

<sup>57</sup> Noula ene Aita igorri naiana bici beita, eta ni ere bici niz ene Aitaz; eta ber guisan, ni jaten naiana nitçaz bicico da.

<sup>58</sup> Heben da celuti eraitxi den ogua; ezta cien aitek jan dien manna beçalacoua eta guero hil beitira; bena ogui hau jaten diana bicico da seculacoz».

<sup>59</sup> Gaiça horic erran çutian Jesusec Synagogan erakasten cialaric Capernaumen.

<sup>60</sup> Eta bere dicipulietaric hanitxec hori entçunic, erran cien: «Hitz hori gogor da, nourc entçuten ahal du?»

<sup>61</sup> Bena Jesusec beitçakian bere beithan bere dicipuliac hortçaz mintço cirela, erran ceren: «Hounec scandalisatcen çutie?

<sup>62</sup> Cer date aren ikhouston baducie guïçonaren Semia igaraiten lehen cen lekhialat?

<sup>63</sup> Espiritiac du biciarazten, araguia ezta deusetaco cerbutchatcen; nic erraiten deitçiedan elhiac ezpiritu eta bici dira.

<sup>64</sup> Bena bada hanitx cien artian ezpeitie sinhesten». Ceren Jesusec başakian hastetik nourc etcian sinhetxico, eta nourc salduren cian.

<sup>65</sup> Eta erraiten ceren: «Hortacoz erran deiçiet ihour ere eztela jiten ahal eneganat, ez baçaio emanic ene Aitaz».

<sup>66</sup> Ordudanic bereti bere dicipulietaric hanitxec utci cien, eta etcien haboro hareki ebilten.

<sup>67</sup> Eta Jesusec erran cian hamabier: «Eta ciec ere enaiçieia nahi utci?»

<sup>68</sup> Bena Simon-Pierrac erran cion: «Jauna, nouenganat jouanen guira? Çuc dutuçu bethiereco bicitciaren elhiac.

<sup>69</sup> Sinhetxi dugu, eta eçagutu dugu Krist cirela, Jincouaren semia».

<sup>70</sup> Jesusec erran ceren: «Etçutieta haitatu ciec hamabiac? Eta hati cietaric bat debru bat da».

---

<sup>65</sup> *ez baçaio: ezpaçaio igurika liteke.* Bertset honetan Ürrütik seguruenik TB izan du eredu: *Erran cioten beraz: horrelacotz erran dautçuet: nihor ez dela ethortcen ahal ni ganat, baldin ez baçaco emana ene Aitaz.* Haraneder-Harrieten bertsioan orainaldiko baldintza arkaikoa datza, ohikoa den herskariaren ahoskabetzearekin: *baldin eman ezpadeço ene Aitac.*

<sup>71</sup> Erran nahi cian hoi Judas Iscariota Simonen semiaz, ceren houra cen haren saltçalia, hamabietaric bat cena.

**6,5** erosiren] A *eras-siren*. || hoier] A B *hoiez* moldiztegian Ürrütiren izkirioaren hitz bukaerako <r> → <z> bihurtu zuketen; cf. *hauquiei iatera emaitecotçat?* HeH; *pour donner à manger à tout ce monde ?* Sacy. Huts mota bertsua obratu zuketen *berez* hitzean (15,22), izkirioan <berer> baitzatekeen. Ana Ürrütiren kaligrafia haren frantses gutunetan azterkatzen ahal da (Padilla-Moyano 2023). **6,14** hau da] A B *han da*; cf. Lç *haur da* : TB *hau da* : HeH *hau da* : Sacy *celui-ci* Sacy : Ost *c'est là*. **6,19** *barkala*] B *barkala*. **6,22** *houra*] B *hourac*. **6,28** *dugu*] A *duu*. **6,29** *sinhetx*] B *sinhets*. **6,32** *deiciet*] B *deicet*. **6,36** *hati*] A B *hari*; cf. Ost *et cependant vous ne croyez pas* : TB *eta bizquitartean ez duçue sinhesten*. **6,41** *Judiouac*] A B *Judiouec*. || *haren*] A *aren*. **6,45** *enegana*] A *ene gan* gisa guzian karaktere bat hutsik gertatu da. **6,57** *naiana*] A B *naianac*; cf. Ost *celui qui me mangera vivra par moi* : Lç *ni ianen nauena ere, vicico da hura ere niçaz* : TB *guisa berean yaten nauena, bicico da ere nitaz*. **6,58** *diana*] A B *dianac* ikus *naiana* 6,57; cf. Ost *celui qui mangera ce pain vivra éternellement* : Lç *ogui haur ianen duena vicico da eternalqui*. **6,59** *synagogan*] A *Synagagouan* : B *Synagogouan*. **6,60** *dicipulietaric*] A *dicipulietarie*. **6,70** *etçutieti*] A B *etçutielia* huts tipografikoa, ediziok ediziora errepikatua; cf. Ost *Ne vous ai-je pas choisis, vous douze ?* : Lç *Etçaituztet nic hamabi elegitu ... ?* : TB *Ez çaituztete [sic] hautatu çuec hamabiak ?* : HeH 6,71 *Ezta eguia hamabi hautatu çaituztedala nic ?*

## VII. CAPITULIA

<sup>1</sup> Gaiça hoien ondouan Jesus Galilean çagouan, etcen nahi egon Judean, ceren judiouec tcherkhatcen beitcien haren hileraztia.

<sup>2</sup> Bena judiouen besta *Tabernacle* deithia huillan cen.

<sup>3</sup> Eta bere anaiec erran ceren: «Pharti çite hebeti eta çouaça Judealat, çoure dicipuliec ere ikhous decen eguiten dutuçun obrac.

<sup>4</sup> Ceren deus ere eztu eguiten segretian eguiazki erakatxi nahi dianac. Gaiça horic eguiten dutuçunaz gueroz, aguer cite cihau mundiari».

<sup>5</sup> Ceren bere anaiec ere etcien hartan sinhesten.

<sup>6</sup> Jesusec erran ceren: «Ene dembora ezta orano jin, bena cien dembora bethi da.

<sup>7</sup> Mundiac etçutie huguntcen ahal, bena ni huguntcen nai, ceren erraiten beitut haren obrac gasto direla.

<sup>8</sup> Igaran citeie ciec besta hartara; ni eniz orano igaraiten besta hartara, ceren eta ene dembora ezpeita orano bethe».

<sup>9</sup> Eta haier erranic gaiça horic, egon cen orano Galilean.

<sup>10</sup> Bena bere anaiac phartitu cien ondouan, jouan cen bera ere bestala, ez aguertcez, bena segretian beçala.

<sup>11</sup> Judiouec aren tcherkhatcen cien bestan, eta erraiten cien: «Noun da?»

<sup>2</sup> *judiouen besta Tabernacle deithia*: ez da aposizioa, izenaren ondotikako erlatiboa islatzen duen sintaxia baizik; bestenaz errateko, *besta* hitza mugagabea datza.

<sup>11</sup> *aren*: 1888ko edizioan *haren* zuzendu dute, oker. Gogora bedi Ürrütik *aren* ‘arren’ idazten duela; ikus *aren* 4,11 eta bertako oharra. Cf. *bada* Lç, TB eta *donc* Sacy, Ost. Horrezaz gainera, 1888ko *haren* agramatikal gertatzen da, objektu zuzenaren genitiboa (TOGEN) aditz jokatu arrunt batekin azaleratzea implikatzen baitu.

<sup>12</sup> Eta elhetce handi bat bacen bilkuaren artian harengatic. Batec erraiten cien: «Guiçon houn bat da»; eta bestec erraiten cien: «Ez, bena jentiac inganatcen dutu».

<sup>13</sup> Arastan ihour ere etcen mintço clarki, judiouen lotxa cielacoz.

<sup>14</sup> Eta noula deja besta erditan beitzen, Jesus igaran cen templiala, eta erakasten cian.

<sup>15</sup> Eta judiouac estonaturic cien, erraiten cielaric: «Noula hounec dakitça izkiribiac, ez ikhassi eta?»

<sup>16</sup> Jesusec arrapostu emanic, erran ceren: «Ene erakouspena ezta enia, bena bai niigorri naianarena.

<sup>17</sup> Nourbaitec egun nahi badu Jincouaren boronthatia, jakinen duenean erakasprena Jincouaganic denez, ala mintço nihaurtçaz.

<sup>18</sup> Berartçaz mintço denac bere loria tcherkhatzen du; bena igorri dianaren loria tcherkhatzen diana eguiazcoua da, eta ezta haren beithan gueçurric.

<sup>19</sup> Moïsac ezteiçieia eman leguia? Eta hati cietaric batec ere eztu leguia beguiratzen».

<sup>20</sup> Populiac erran ceron: «Debru bat badu; nour da çoure hilaraztia tcherkhatzen diana?»

<sup>21</sup> Jesusec erran ceren: «Obra bat egun dut errepausuko egunian, eta oro estonaturic ciradeie.

<sup>22</sup> Eta ciec Moïsac eman deicielacoz circoncisionia (çouin arastan ezpeita Moïsaganic bena lehenagoco aitenganic) emaiten ducie circoncisionia errepausuko egunian.

<sup>23</sup> Baldin guiçon batec errecebitzen badu circoncisionia errepausuko egunian, Moïsaren leguia eztadin içan hautxeric, certaco khechatiac cirade ene contre sendotu dudalacoz osoki errepausuko egunian?

<sup>24</sup> Ezteçaciela juja aperentziaren arau, bena juja eçacie justoki».

<sup>25</sup> Ordian jerusalemetar çoumbaitec erraiten cien beren artian: «Ezteia hau tcherkhatzen ciena hilerazteco?

<sup>26</sup> Eta hati mintço da ororen aitcinian, eta ezteie deus ere erraiten. Aitcindariec eçagutu othe dieia hau dela eguiazki Krista?

---

<sup>12</sup> *elhetce*: soilik Ürrütik lekukotzen du, TBren *elhatze* aldaerarekin batean; *OEHk* (s.v. ELETZE), pasarte hau jasotzen du. Gainerako euskaratzeetan *murmuratione* Lç eta *erasia* HeH irakurtzen dugu.

<sup>12</sup> *harengatic*: hemen morfema kausalak ‘gaia’ (*topic*) adierazten du; cf. *harçaz* Lç, *haren gainean* TB, *haren gatic* HeH, *de lui* Sacy, Ost.

<sup>22</sup> *circoncisionia*: gogora bedi Zuberoako testu zaharretan bokalarteko <z> grafia usuenik txistukari ahostuna irudikatzen duela, eta Ürrütik aski banaketa sistematikoa erakusten duela; ikus *arrazoua* 3,19 eta bertako oharra. Hemen ere <circoncisionia> 7,22 & 7,23 grafia markatua da, /z/ ahostuna *circoncision* /siRkɔ̃sizjɔ̃/ frantses ahoskerari zor zaiolarik. Izan ere, Ürrütik gainerako -ZIONE atzizkidun guztiak <cione> grafiaz ematen ditu: *admiracioniez* 5,20, *condemnacioniala* 5,24, *condemnacioniaren* 5,29, *aprobacionia* 5,34, *Dedicacioneco* 10,22, *acusacione* 18,29, *preparacioniaren* 19,14 & *preparacione* 19,31.

<sup>26</sup> Ürrütik izan ezik, lehen perpusean erkatu bertsio guztiekin forma aurkezkaria erabiltzen dute: *Et néanmoins le voilà qui parle* Sacy; *Et le voilà qui parle* Ost; *Eta huna, frangoqui minço da* Lç; *Eta bizquitartean huna, mintço da aguerian* TB & *Eta huna non mintço den ororen aitcinean* HeH.

<sup>27</sup> Bena badakigu ountxa hau nounco den, bena Krista jiten datekienian ihourc ere eztakike nounco den».

<sup>28</sup> Ordian Jesus hassi cen oihuz, templian erakasten cialaric: «Badakicie nour niçan ni, eta nountic heltu niçan, eta eniz jin nihaurtçaz, bena igorri naiana eguiazcoua da, eta ciec eztucie eçagutcen.

<sup>29</sup> Bena nic eçagutcen dut, ceren jin beniz hareganic, eta houra da igorri naiana».

<sup>30</sup> Ordian hartcera abiatu cien, bena ihourc ere etcian eçarri eskia hartan gagnen, ceren haren orena ezpeitcen orano heltu.

<sup>31</sup> Bena populitic hanitxec sinhetxi cian hartan, eta erraiten cien: «Krista jin datekienian, equinen dia hounec eguiten dian beno miracuillu haboro?»

<sup>32</sup> Pharisieneç sacrificäcale aitcindarieki igorri çutien sarjantac hartcera.

<sup>33</sup> Eta Jesusec erran ceren: «Dembora bouchi baten orano cireki niz, guero banoua igorri naianarenganat.

<sup>34</sup> Tcherkhatuco naicie, bena enaicie ediren; eta noun ere beiniçate hara etçaiteke jin ahal».

<sup>35</sup> Judiouec erraiten cien beren artian: «Nouat jouan behar du, ezpeitugu ediren? Behar dia jouan greken artian berreiaturic direnetara, eta haier erakatxi?»

<sup>36</sup> Cer da erran dian hau: «Tcherkhatuco naicie, bena enaicie ediren?»

<sup>37</sup> Eta bestaco azken egun handian, Jesusec oihu eguin cian, ciouelaric: «Nourbait egarri bada, jin bedi enegana, eta edan beça.

<sup>38</sup> Nitan sinhesten dianac izkiribiaren arabera, hour erreka bicikouac touroustatuco dira harenganic».

<sup>39</sup> Erraiten cian hori espiritua errecibitu behar cielacoz hartan sinhesten ciene; ceren Espiritu Saintia etcen orano lorificaturic.

<sup>40</sup> Elhe horic entçunic hanitxec erraiten cien: «Hau eguiazki profeta da».

<sup>41</sup> Beste çoumbaitec erraiten cien: «Hau Krista da». Bena bestec erraiten cien: «Krista jinen da Galileati?

<sup>42</sup> Iskiribiak estia erraiten Krista jinen dela Daviten odoleti, eta Betheleemeco hiriti, çountacoua beitcen Davit?»

---

<sup>26</sup> *hati*: adbertsatiboaren iturria Sacyk behar du izan, ikus aitzineko oharreko pasarteak.

<sup>32</sup> Ürrütik ez du bertset honetako lehen perpausa eman; cf. *Ençun ceçaten Phariseuéc gendetzea hauén gainean harçaz murmuratzen* Lç; *Pharisauec ençun çuten mulzua elhatcen hauça hauc hartaz* TB; *Entçun cituzten Pharisauec osteac lesusez ciotçan solhas horiec* HeH; *Les pharisiens entendirent ces discours que le peuple faisait de lui* Sacy; *Les Pharisiens ayant appris ce que le peuple disait sourdement de lui* Ost.

<sup>36</sup> Ürrütik ez du bertsetaren azken perpausa eman; cf. *Que signifie cette parole qu'il vient de dire : Vous me cherchez, et vous ne me trouverez point ; et vous ne pouvez venir où je serai ?* Sacy.

<sup>38</sup> *touroustatuco*: “*Turrustatiü*, verser, répandre abondamment” Gèze, “*Couler en cascade*” Larrasquet ap. OEH, s.v. TURRUSTATU, non Maurice Harrietek Ürrütiren pasarte hau bere hiztegian aipatu zuela azaltzen baita.

<sup>43</sup> Eta populia mintço cen beren artian, batac guisa batiala, bestec bestiala harengati.

<sup>44</sup> Eta bacien hartu nahi cukianic, bena ihourc ere etcian ecarri eskia hartan gagnen.

<sup>45</sup> Eta sarjantac utçuli cien sacrificäcale aitcindarietara eta pharisienetara, eta haiec erran ceren: «Certaco eztuie hartu?»

<sup>46</sup> Sarjantec erran ceren: «Egundano ezta guiçon hori beçala guiçonic mintçatu».

<sup>47</sup> Bena pharisienec erran ceren: «Ciec ere irabaciac ciradeia?

<sup>48</sup> Gobernadoretaric edo pharisienetaric batec ere sinhetxi othe dia hartan?»

<sup>49</sup> Bena populaça harec ezpeitaki cer den leguia, maradicatiac beno sordei da.

<sup>50</sup> Nicodemac (gaiaz Jesusengana jin cenac çouin beitcen haien artian) erran ceren:

<sup>51</sup> «Goure leguiac jujatcen ahal dia guiçon bat entçun beno lehen eta eçagutu gabe cer eguin dian?»

<sup>52</sup> Arrapostu eman ceren, eta erran ceren: «Etcira çu ere Galileaco? Tcherkhaçaú, eta jakin eçaú profetaric batere eztela elkhi Galileati».

<sup>53</sup> Eta bakhotcha jouan cen bere etcherat.

**7,4 eztu]** A B *eztie* moldiztegian izkirioaren hitz bukaerako <u> → <ie> aldatu dukete. **7,11 aren]** B *haren*; cf. Sacy Ost *dono* : Lç TB *bada*. **7,12 inganatcen]** A *inganatçen*. **7,16 naianarena]** A B *naiarena*; cf. Lç TB HeH *nauenarena*. **7,23 hautxeric]** B *hautxiric*. || *khechatiac*] A B *khetchatiac*. **7,26 mintço da]** A B *mintço du*. **7,27 nounco]** B *nounko*. **7,39 hori]** A B *ori*. **7,42 Izkiribiac eztia]** A *Iskiribiac estia*.

### VIII. CAPITULIA

<sup>1</sup> Ordian Jesus jouan cen Olibetaco mendin gagna.

<sup>2</sup> Eta arguiaren hastian, berriz jin cen templiala, eta jentiac oro jin ciren hategana. Eta jarriric erakasten ceren.

<sup>3</sup> Eta scribouec eta pharisienec ekharri ceien emazte bat, nahasdura tçarrian hatçamana. Eta populiaren erdian eçarriric,

---

<sup>42</sup> *Bethleemeco*: horrela 1873ko eta 1888ko edizioetan; huts tipografikoa ala Ürrütiren egiazko grafia denetz ebazteke gelditzen da. Cf. frantses iturrietako *Bethléhem* (Sacy, Ost), eta euskaratzaileen *Bethlehemgo* Lç, *Bethlemeneco* TB & *Betlheengo* HeH.

<sup>43</sup> *harengatic*: ikus *harengatic* 7,12.

<sup>49</sup> *populaça*: hitz hau ez da OEHn. Gainerako bertsioetan *populu* Lç, *yendayatçar* TB, *guiça chehe* HeH & *populace* Sacy, Ost.

<sup>49</sup> *sordei*: “peor” (OEH, s.v. SORDDES). Atzikiren beharrik gabe, forma honek *gaizto* edo *txar* adjektiboen gehiagotasuneko konparatiboaren balioa du. Bertset honetan Ürrütik adierazkortasunaren baliabide bezala erabiltzen du, kontzeptua gainerako bertsioetan baino gogorrago errendanturik; cf. *maradicatua* Lç, TB; *maradicatu batçu* HeH; *des gens maudits de Dieu* Sacy; *exécrable* Ost.

<sup>1</sup> *Olibetaco mendin gagna*: *joan* aditzak adierazten duen hididuraren helmugaren kodifikazioan gainerako euskaratzaileek *-ra(t)* adlatibo soila darabiltenean, Ürrütik lokalizazioaren parametroa (SUPER) gaineratzen du, seguruenik frantses iturrien eraginez; cf. *il s'en alla sur la montagne des Oliviers* Sacy & Jésus *s'en alla ensuite sur la montagne des Oliviers* Ost.

<sup>4</sup> erran ceren: «Naussia! Emazte hau orai doidoa hatçaman dugu adulteriouan.

<sup>5</sup> Eta Moïsac erran diçu leguian harrikhaldustatcez suberte hortan direnac; çuc cer dioçu?»

<sup>6</sup> Eta hori erraiten ceren esprabatceco, ukheiteco cerbait haren accusatceco. Bena Jesusec, aphalturic behera, izkiribatcen cian bere erhiaz lurrian.

<sup>7</sup> Noula aitcina galthoz betceitçon, chuchentu cen, eta erran ceren: «Cietaric bekhatu gabe denac ourthouc biço lehen harria».

<sup>8</sup> Eta berriz aphalturic, izkiribatcen cian lurrian.

<sup>9</sup> Hori entçun cienian, elkhi cien bata bestiaren ondotic, çaharrenetaric hassiric; eta Jesus baratu cen bera, eta hareki, tchuti erdian cen emaztia.

<sup>10</sup> Ordian Jesus arrajaikiric, eta ikhoustez emaztia bera, erran cion: «Emaztia, noun dira çu accusatcen çuntienac? Condenatu çutia nourbaitec?»

<sup>11</sup> Erran ceion: «Batec ere, Jauna». Jesusec erran cion: «Etçutut nic ere condenatcen; çouaça, eta ez haboro bekhaturic eguin».

<sup>12</sup> Jesus mintçatu cen orano, cioelaric: «Munduco arguia niz; eni jarraikitcen dena eztabila ulhumpian, bena badu bicitceco arguia».

<sup>13</sup> Ordian pharisiene erran ceren: «Jakitate errendatcen duçu çoure buriari; çoure jakitatia ezta eguiaczoua».

<sup>14</sup> Jesusec arrapostu emanic erran ceren: «Nahibada jakitate errendatcen dudan ene buriari, ene jakitatia fediaren arabera da, ceren beitakit nountic heltu niçan, eta nouat jouaiten niçan; bena ciec eztakicie nounti heltu niçan, ez nouat jouaiten niçan.

<sup>15</sup> Jujatcen ducie araguiaren arabera; bena nic eztut ihour ere jujatcen.

<sup>16</sup> Bena jujatcen badut ere, ene jujamentia fediaren arabera da, ceren eniz nihau, bena ni eta ene Aita igorri naiana.

<sup>17</sup> Cien leguian ere izkiribaturic da bi/guiçonen jakilegoua fediaren arabera dela.

<sup>18</sup> Jakitatia errendatcen dut nihaurtçaz, bestalde igorri naian aitac ere errendatcen du jakitate nitçaz».

<sup>19</sup> Ordian erran ceren: «Noun da çoure aita?» Jesusec erran ceren: «Eztakizie ez ni nour niçan, ez ene Aita nour den».

---

<sup>3</sup> *nahasdura tçarrian*: hemen Ürrütik HeHren hautu lexikoa atxikitzen du; cf. *nahasdura tçarrean* HeH vs *adulterioan* Lç, TB & *en adultère* Sacy, Ost.

<sup>5</sup> *harrikhaldustatcez*: 1888ko edizioak *harrikhaldustatcea* dakar. Gramatikala balitz ere, azken forma horrek Zuberoan ezin gerta daitekeen ahoskera islatuko lukeen grafia du. Baino 1873koa zuzena da; cf. *Moisec Leguean manatu daucu harricatzceaz suerte hortan direnac* TB; *Moisesec leguean aguindu darocu hunelacoac harricatzceaz* HeH.

<sup>6</sup> *esprabatceco*: ikus *esprobatceco* 6,6.

<sup>19</sup> Ürrütik ez du bertset honen azken perpausa itzuli; cf. *Baldin ni eçagutzen baninduque, ene Aita-ere eçagut cindeçaquete*. Lç; *Baldin eçagut banindeçaçue, eçagut cinioquete ere ene Aita*. TB; *Eçagutzen bauinduque ni, aguian ene Aita ere eçagut cineçaquete*. HeH; *Si vous me connaissiez, vous connaîtiez aussi mon Père*. Sacy & *Si vous me connaissiez, vous connaîtiez aussi mon Père*. Ost.

<sup>20</sup> Jesusec erran çutian elhe horic erakastez templian tresora cen lekhian; bena ihourc ere etcian hararaci, ceren ezpeitcen orano haren orena heltu.

<sup>21</sup> Jesusec erran ceren orano: «Banoua, eta tchercatuco naicie, bena cien bekhatian hilen cirade. Etciaide jiten ahal ni nouan lekhialat».

<sup>22</sup> Judiouec erraiten cien beren artian: «Berac hilen othe du bere buria, erraiten beitu “Ni nouan lekhialat etcirade jiten ahal”?»

<sup>23</sup> Erran ceren: «Ciec behera hountacouac cirade, eta ni gagneco niz; mundu hountaco cirade, bena ni eniz mundu hountaco.

<sup>24</sup> Hortacoz erraiten deiciet hilen ciradela cien bekhatietan; ceren ezpaducie sinhesten Jincouaz igorriric niçala, hilen cirade cien bekhatietan».

<sup>25</sup> Galthatu ceien ordian: «Çu nour cira?» Jesusec erran ceren: «Erran deiciet haste-hasteti.

<sup>26</sup> Badut hanitx gaiça cietçaz erraiteco eta cietan condenatceco, benaigorri naiana eguiazcoua da, eta hareganic entçun dutudan gaiçac, erraiten dutut mundiari».

<sup>27</sup> Bena hec etcien eçagutu bere Aitaz mintço cela.

<sup>28</sup> Jesusec erran ceren: «Nouiz ere goitituko beitucie/guiçonaren Semia, ordian eçagutuko ducie nour niçan ni, eta eztudala deus ere eguiten nihaurtçaz, bena erraiten tudala gaiça horic ene Aitac erakatxi deiztadan beçala.

<sup>29</sup> Cerenigorri naiana eneki dago; Aitac enai utci nihau, ceren bethi eguiten beitut plazer çaitçon gaiçac».

<sup>30</sup> Gaiça horien entçutiareki, hanitzec sinhetxi cien hartan.

<sup>31</sup> Jesusec erraiten du sinhetxi cien judiouer: «Egoiten baciade ene elhian, içanen cirade eguiazki ene dicipuliac;

<sup>32</sup> eta eguija eçaguturen duçie, eta eguiac libre errendatuco çutie».

<sup>33</sup> Arrapostu eman ceren: «Abrahamen arraçati guira eta egundano ezkira ihoureren esclava; noula dioçu aren “Içanen çirade libre errendaturic”?»

---

<sup>25</sup> *ceien*: 1888ko edizioan *ceren*. Ürrütiren zubereran bi norabidetako sinkretismoa obratu da *ceien* & *ceren* aldaeren artean, biek bi balioitan bat egin baitute. Batetik, *ceren* formak honakoak adieraz ditzake: i) ‘hark haiei zien’, cf. 6,32, 6,35, 6,43, 6,53, 6,61, 670; ii) ‘haiak hari zioten’ 6,25, 6,30, 7,3, 7,50, 7,52, 8,4; eta iii) ‘haiak haiei zieten’ 7,45, 7,47. Bestetik, *ceien* formak: i) ‘hark haiei zien’ 1,21, 1,22; ii) ‘haiak hari zioten’ 1,23, 1,24; eta iii) ‘hura haiei zitzaien’ 2,3, 20,26. Hortaz, *ceien* utz daiteke, Ürrütik berak emana baita.

<sup>28</sup> *eçagutuko*: bi edizioetan *eçagutu* datza, baina Ebanjelioak geroaldia eskatzen du; cf. *connaîtrez* Sacy, Ost; *eçaguturen* Lç & *eçagutuko* TB, HeH. Partzipio prospektiboaren formari doakionean, Ürrütik 49 aldiz eransten die -ko morfema -tu multzoko aditzei (-tuko itxura), vs sei aldiz -(r)en morfema (-turen itxura).

<sup>33</sup> *ihoureren*: <*ihouren ere*>.

<sup>33</sup> *esclava*: ‘esklabo’, mugagabeen. Cf. *nous n'avons jamais été esclaves de personne* Sacy; *nous ne fûmes jamais esclaves de personne* Ost, eta euskaratzaireen artean *nehor eztiagu cerbitzatu egundano* Lç; *ez gare nihoren mempeco içan* TB; *ezcara egundaiño nehoren meneco içan* HeH. OEHk ez du aldaera hau ESKLABO sarreran bildu; ez bedi nahas femeninoa den *eskla* formarekin, jada Landuccik lekukotua.

<sup>34</sup> Jesusec arrapostu eman ceren: «Eguiazki, eguiazki erraiten deiçiet: Nourc ere eguiten beitu bekhatia, bekhatiaren esclava dela.

<sup>35</sup> Esclava dena ezta bethi egoiten etchen; Semia bethierecoz etchen da.

<sup>36</sup> Semiac libratcen baçutie eguiazki libre cirateke.

<sup>37</sup> Badakit Abrahamen haurrac ciradela; halere hilaraci nahi naicie, ceren ezpeitucie ene elhia hartcen cien beithan.

<sup>38</sup> Erraiten deiçiet ene Aitaren beithan ikhoussi dudana; eta ciec ere eguiten tucie cien aiten beithan ikhoussi dutucienac».

<sup>39</sup> Arrapostu eman ceren, eta erran ceren: «Goure aita Abraham da». Jesusec erran ceren: «Abrahamen haurrac baciaude, Abrahamen obrac eguin ciniotcie ciec ere.

<sup>40</sup> Bena orai hilaraci nahi naicie, ni guiçon bat beniz egua erran deiciedana, Jincouaganic ikhoussi dudana; Abrahamec eztu holacoric eguin.

<sup>41</sup> Eguiten dutucie cien aiten obrac». Erran ceren: «Ezkira haur bastart; eztiçugu oroc aita bat baicic, hora beita Jincoua».

<sup>42</sup> Jesusec erran ceren: «Jincoua baliz cien Aita, maite nundukecie, sorthu niçanaz gueroz Jincouaganic eta jin beniz hareganic; ceren eniz jin nihafturçaz, bena harec igorri nai.

<sup>43</sup> Cergatic eztucie entçutenene lengouagia? Ceren ezpeitciade behatcen ahal ene elher.

<sup>44</sup> Ciec debria ducie aita, eta cien aitaren desira nahi ducie eguin. Houra guiçon ehaile içan da hasteti, eta ezta egon eguiyan, ceren egua ezta harten. Gueçurraz mintço den aldi oroz, berartçaz mintço da; ceren gueçurti beita eta gueçurraren aita.

<sup>45</sup> Eta nic egua erraiten dudalacoz, enaicie sinhesten.

<sup>46</sup> Çouin da cietaric bekhatore niçala erakasten ahal dianic? Eta egua erraiten badeiciet, cergatic enaicie sinhesten?

<sup>47</sup> Jincouaganic denac, Jincouaren elhiac entçuten dutu; hartacoz eztucie entçuten, ceren ezpeitciade Jincouaganic».

---

<sup>39</sup> *baciaude*: içan aditzaren alegiazko forma, ‘bazinate’; cf. *Baldin Abrahamen haur bacinete* Lç; *Abrahamen haurrac bacinate* TB; *Si vous étiez enfants d'Abraham* Ost. Beste bi bertsioetan orainaldiko baldintza da: *Si vous êtes enfants d'Abraham* Sacy & *Abrahamen seme bacarete* HeH. Forma hau bera 9,41 bertsetean ageri da, han ere ‘si vous étiez’ / ‘bazinate’, eta salbuespenik gabe erkatutako bertsioetan: *Si vous étiez aveugles* Sacy, Ost; *Baldin itsu bacinete* Lç; *ixu bacinate* TB & *itsu bacinete* HeH. Azkenean, bada içan bacinaude ‘si vous étiez’ 15,19. Horiezaz gainera, singularrean Ürrütik behin erabili du *bacina* 11,32.

<sup>39</sup> *ciniotcie*: ‘zenitzakete’ balioa adierazten duen \*iron-en adizkia, zuberera klasikoan *zinitiroie*. Badirudi *zinotzie* formak ergatiboaren pleonasmoa erakusten duela, bai eta XIX. mendearen akabantzan azpimarratzeko den absolutiboaren pluralgilea: [Z-IN-IRO-TZ-ZÜ-E]; cf. *cinçaqueizte* Lç; *cineçazquete* TB.

<sup>46</sup> *enaicie*: 1873ko eta 1888ko edizioetan *enaicia* galderazkoa datza, eta horrek bi arazo sorrarazten du: i) galdera *zergatik* bada, -a galto morfemaren beharrik ez du; eta, garrantzitsuagoa, ii) *e + a* bilkura bakarra litzateke testu osoan, antzeko ingurunetan sistematikoki *eia* idatzia delarik: *badakicieia* 13,12, *deia* 1,46, *deicieia* 16,31, *dieia* 7,6, *enaiçieia* 6,67, *ezteia* 4,29, *eztucieia* 4,35, etab.

<sup>48</sup> Ordian judiouec arrapostu emanic erran ceren: «Eztuguia erraiten samaritano bat cirela, eta demonio bat baduçula?»

<sup>49</sup> Jesusec arrapostu eman ceren: «Eztut nic demonioric, bena ene Aita ouhouratcen dut, eta ciec desouhouratcen naicie.

<sup>50</sup> Nic eztut tcherkhatcen ene loria; bada bat tcherkhatcen beitu, eta jujatcen beitu.

<sup>51</sup> Eguiazki, eguiazki erraiten deiçiet, nourc ere beguiratcen beitu ene elhia, hora ezta hilen».

<sup>52</sup> Judiouec berriz erran ceren: «Orai eçagutcen diçugu demonio bat baduçula; Abraham hil içan beita, profetac ere bai, eta erraiten duçu: nourbaitec beguiratcen badu ene elhia, ezta hilen.

<sup>53</sup> Goure aita Abraham hila dena beno handiago çira? Profetac ere hil dira, nour eguiten çira çihaur?»

<sup>54</sup> Jesusec erran ceren: «Lorificatcen baniz nihau, ene loria ezta deus ere; ene Aita da lorificatcen naiana, hora erraiten beitucie cien Jincoua dela.

<sup>55</sup> Arastan eztucie eçagutcen, bena nic eçagutcen dut; eta erran baneça eztudala eçagutcen, gueçurti nintçate ciec beçala; bena nic eçagutcen dut, eta haren elhia beguiratcen.

<sup>56</sup> Abraham cien aitac desiratu du azcarki ene egunaren ikhoustia; ikhousi du eta boztario handi bat ukhen du».

<sup>57</sup> Hortan gagnen judiouec erran ceren: «Eztu orano berrogei eta hamar ourthe, eta ikhousi duçu Abraham?»

<sup>58</sup> Jesusec erran ceren: «Eguzki, eguiazki erraiten deiçiet: Abraham sorthu beno lehen, nintçan ni».

<sup>59</sup> Ordian hartu cien harri haren contre ourthoukitceco, bena Jesus gorde cen, eta elkhi cen templuti.

**8,5** harrikaldustatez] B *harrikaldustatcea*; cf. TB *harricatceaz* : HeH *harricatceaz*. **8,7** betceitçon] A B *beteitçon*. **8,9** cien bata] B *cienat ba*. **8,14** beitakit] A *heitakit*. **8,16** ni eta ene Aita igorri naiana] A B *ni ene Aita igorri naiana*; cf. Sacy *moi et mon Père qui m'a envoyé* : Lç *ni eta ni igorri nauen Aita* : TB *ni eta ni egorri nauena*. **8,17** jakilegoua] A B *jakilegouia*. **8,23** hountacouac] A *hountatacouac*. **8,23** gagneco] A B *gagnoco*. **8,24** ciradela] A *ciradeia*. **8,25** ceien] B *ceren*. **8,26** bena igorri] A *benai gorri*. **8,28** eçagutuço] A B *eçagutu*; cf. Sacy Ost *connaîtrez* : Lç *eçaguturen* : TB HeH *eçagutuko*. **8,43** ceren] A B *cer*; cf. Ost *C'est parce que vous ne pouvez écouter ma parole* : Lç *Ceren ecin ençun baitiroqueçue ene hitza?* : TB *Ceren eta ez baituçue ençuten ahal ene hitça* : HeH *ceren ene hitça ecin ençun ere baitiroçue*. **8,44** ehaile] A *ebaile*. || eguin] A *eguia*. **8,54** cien] A *icen*. **8,58** erraiten] A *errai en*.

## IX. CAPITULIA

<sup>1</sup> Jesusec igaraitian ikhousi cian guiçon bat sortcez utxu cena.

<sup>2</sup> Eta bere dicipuliec galthatu ceien: «Naussia, nourc eguin othe du bekhatu, hounec ala hounen aita-amet, hola sorthu beita utxu?»

<sup>3</sup> Jesusec arrapostu eman ceren: «Eztu hounec eguin bekhatu, ez eta hounen aita-amet ere, bena hola helthu içan da, aguer dadin hounen beithan Jincouaren obra.

<sup>4</sup> Behar dut eguna deno eguin igorri naianaren obrac, gaia heltcen da, noun ezpeititake eguin.

<sup>5</sup> Mundian niçano, mundiaren arguia niz».

<sup>6</sup> Elhe horic erran eta, thu eguin cian lurriala, eta aho-goço hareki eguin cian lohi-lohi bouchi bat, eta lohiaz fretatu çutian utxiaren beguiac.

<sup>7</sup> Eta erran ceion: «Çouaça, eta chaha cite Siloeco uthurian» (Siloe erran nahi da “igorria”). Jouan cen eta chahatu cen, eta utçuli bistareki.

<sup>8</sup> Eta haren aiçouac, eta lehenago utxu cela ikhousi çienec, erraiten cien: «Ezteia hau jariric çagouen houra, eta amouina galthatcen beitcian?»

<sup>9</sup> Batec erraiten cien: «Houra da»; eta bestec: «Houra uduri du». Bena berac erraiten cian: «Houra bera niz».

<sup>10</sup> Erran ceren aren: «Noula içan dira çoure beguiac çabalturic?»

<sup>11</sup> Arrapostu eman cian, eta erran: «Jesus deitcen dien guiçon batec, lohi bouchi bat eguinic, harçaz beguiac fretatu deitçat, eta erran deit: “Çouaça Siloeco uthurrialala, eta chaha cite han”. Jouan niz, eta chahatu niçan ondouan, ikhoussi dut».

<sup>12</sup> Galthatu ceren: «Noun da guiçon houra?» Harec erran ceren: «Eztakit».

<sup>13</sup> Ordian eraman cien pharisienetara guiçon utxu ohia.

<sup>14</sup> Eta noula errepausuko egun bat beitcen Jesusec lohi eguin cianian, eta utxiari beguiac çabaltu,

<sup>15</sup> hartacotz pharisienec galthatu cien orano: «Noula ukhen duçu bista?» Eta erran ceren: «Eçarri du lohi ene beguien gagnen, chahatu niz, eta ikhousi dut».

<sup>16</sup> Hortan gagnen pharisienen arteco çoumbaitec erran cien: «Guiçon houra ezta Jincouaz igorria, ceren ezpeitu beguiratcen errepausuko eguna». Bena bestec erraiten cien: «Noula guiçon gasto batec eguiten ahal du holaco gaiça espantagarria?» Eta beren artian nahaskerian cien.

<sup>17</sup> Erran cien orano utxiari: «Çuc, cer dioçu hartçaz, çoure beguiac çabaltu deitçulacoz?» Arrapostu eman cian: «Profeta dela».

<sup>18</sup> Ihoula ere judiouec etcien sinhesten ahal guiçon houra utxu içan cela, eta guero bista jin ceiola. Haren aita eta ama ekharreraci çutien.

---

<sup>6</sup> *lohi-lohi*: bikoizketa ez da OEHn esplikatua, nahiz eta pasarte hau osotik jasoa den (s.v. LOHI).

<sup>6</sup> *fretatu*: Zuberoako aldaera da, Larrasquetek bildua (OEH s.v. FROTATU).

<sup>16</sup> Itxura guztien arabera, bertset honetan Ürrütik TBtik itzuli du; azpimarratutako hautu lexikoak eta molde guziak bat datozen, eta aldi berean ez dira gainerako euskaratzeetan aurkitzen: Hortan gainen Pharisauen arteko cembaitec erran çuten: Guiçon hau ezda Jincoaz egorria, ecen ez du beguiratcen errepausuko eguna. Bainan berce batçuec erraiten çuten: nola guiçon gaisto batec eguin ahal leçaque holaco gauça espantagarritic? Eta nahasqueria bacen heyen artean. TB.

<sup>18</sup> Ürrütik libreago itzuli du bertset hau; adibidez, erkatutako gainerako bertsio guzietan datzan denbora mugaren adierazpena ez du ematen; cf. *jusqu'à ce qu'ils eussent fait venir son père et sa mère* Sacy, Ost; *ikustea*

<sup>19</sup> Galthatu ceien: «Hau da cien seme, sortuz gueroz utxu cela dioçuen hora? Eta noula ikhousten du orai?»

<sup>20</sup> Haren aita eta amac erran ceren: «Badakigu hau dela goure semia, eta utxu sorthu dela,

<sup>21</sup> bena noula ikhousten dian orai, edo nourc çabaltu deitçon beguiac, eztakigu deus ere. Badu adina; galtha eçacie, berac arrapostu emanen du».

<sup>22</sup> Haren aitac eta amac erran ceren gaiça hori, judiouen lotxa cielacoz, ceren judiouec deja erran cien alkhareki nourbaitec aithortcen bacian Jesus Krista cela, synagogati igorriric içanen cela.

<sup>23</sup> Hartacoz haren aitac eta amac erran ceren: «Adina badu, galtha eçacie bera».

<sup>24</sup> Deithu cien biguerren aldian guiçon utxu içan cen hora, eta erran ceren: «Emac loria Jincouari, badakigu guiçon hora guiçon gasto bat dela».

<sup>25</sup> Arrapostu eman ceren, eta erran: «Eztakit gasto denez; bena ountxa dakidan gaiça da, utxu nintçala eta orai ikhousten dudala».

<sup>26</sup> Erran ceren orano: «Cer egun deiçu? Noula çabaltu deitçu çoure beguiac?»

<sup>27</sup> Arrapostu eman ceren: «Deja erran deiciet, eta entçun ducie; certaco nahi ducie orano entçun? Nahi ciradeia ciec ere içan haren dicipulu?»

<sup>28</sup> Ordian hassi ceitçon injuriatcen, eta erran ceren: «Çu içan cite haren dicipulu; gu Moïsaren dicipuliac guira.

<sup>29</sup> Badakigu Jincoua mintçatu dela Moïsari; bena hau, eztakigu nounco den».

<sup>30</sup> Guiçon harrec arrapostu eman ceren: «Segurki hau gaiça estonagarria da, eztakicielacoz nounco den; eta hati ene beguiac çabaltu dutu.

<sup>31</sup> Hati, badakigu Jincouac eztiala gastouer arrapostu emaiten, bena nourc ere eguiten beitu haren boronthatia, hora Jincouac laguntcen du.

<sup>32</sup> Egundano ihourc ere eztu entçun erraiten utxu sorthu den baten beguiac çabalturic.

<sup>33</sup> Hau ezpaliz Jincouacigorri bat, holacoric deus ere elio egun ahal».

<sup>34</sup> Pharijenec erran ceren: «Ossoki bekhatian sorthuric cira, eta gouri cerbait errakoutxi nahi deicuçu?» Eta khentu cien camporat.

<sup>35</sup> Jesusec jakin cian noula camporat elkharaci cien, eta bidian bathuric, erran cion: «Sinhisten ducia Jincouaren semiaren beithan?»

<sup>36</sup> Guiçon harec arrapostu eman cion, eta erran: «Nour da, Jauna, sinhetx deçadan hartan?»

<sup>37</sup> Jesusec erran cion: «Ikhousi duçu, eta hora mintço çaiçu».

<sup>38</sup> Ordian erran cion: «Sinhisten dut, Jauna». Eta ahozpe eroriric adoratu cian.

<sup>39</sup> Jesusec erran cion: «Mundu hountara jin niz jujamentiaren ekhartera, ikhousten dienac utxu ditian».

---

recebitu çuenaren aitamáci dei litzaqueteno. Lç; hunen burrasuac erakharri cituzten arteraino. TB & deithu artean haren burhasoac. HeH.

<sup>38</sup> ahozpe: “boca abajo, de bruces; postrado, prosternado” (VocBN; apud OEH, s.v. AHUSPE); cf. ahuzpez eroriric HeH; se prosternant Sacy & se prosterna devant lui Ost.

<sup>40</sup> Hori entçunic, hareki cien pharisien çoumbaitec erran ceren: «Eta gu ere, utxiac guira?»

<sup>41</sup> Jesusec arapostu eman ceren: «Utxu baciaude, etçunuke bekhaturic; bena orai erraiten ducie “ikhousten dugu”, eta hortacoz da cien bekhatia egoiten cietan».

**9,3** houne] A B *hounen*; cf. HeH *Eztu hunec bekhatu eguin*. || aita-amet] A *aita amec*. **9,9** bera] A B *bere*. **9,15** eçarri du lohi] A *eçarri lohi*. **9,21** bena] A B *bene*. **9,22** bacian ... cela] A B *baciens ... cirela*; cf. TB *baldin norbaitec eçagutzen baçuen Christotçat, khendua içanen cela*. : HeH *baldin eta nehorc aithortzen baçuen Jesus Christo cela, içanen cela etchatua batçarretic*. **9,23** aitac eta amac] B *aita eta amac*. || bera] B *berari*. **9,41** arapostu] A *arapostu*.

## X. CAPITULIA

<sup>1</sup> «Eguiazki, eguiazki erraiten deicet: Nour ere ez beita sartcen arditegian borthati, bena bai beste gainti batetaric, hora ouhouin bat da.

<sup>2</sup> Bena borthati sartcen bada, hora da ardiens artçaigna.

<sup>3</sup> Hari borthaçagnac çabaltcen deio, eta ardiens entçuten die haren botça, eçagutzen die, eta bere ardiac deitzen dutu çouin bere icenaz, eta alhaguialat eramaiten dutu.

<sup>4</sup> Eta bere ardiac elkhacici dutianian, haien aitcinian badoua; eta ardiac jarraikitzen çaitço, ceren haren deia eçagutzen beitie.

<sup>5</sup> Bena arrotz bati etçaitço jarraikitzen, bena ihesi douatça, ceren ezpeitie eçagutzen hotx eguite arrotçarena».

<sup>6</sup> Uduripen hau erran ceien Jesusec, bena etcien comprenitu certçaz mintço citçaien.

<sup>7</sup> Erran ceren orano ere: «Eguiazki, eguiazki erraiten deicet: Ni niz ardiens bortha.

<sup>8</sup> Ni beno lehen jin direnac oro ouhouin içan dira, bena ardiens eztutie behatu.

<sup>9</sup> Ni niz bortha; nitaric nourbait sartcen bada salbatuco da, eta sarthuco, eta elkhico da, eta ediren alhapide.

<sup>10</sup> Ouhouigna ezta jiten lekhiala ebastera eta hilarazteria baicic; bena ni jin niz biciarazteria, amorecatie içan ditian abundantzia.

<sup>11</sup> Ni niz artçain houna. Artçain hounac emaiten du bere bicia bere ardiens.

<sup>12</sup> Bena alocaidian artçain direnac, ardiac beriac eztutianac, alocaidian delacoz, ikhousten dianian otxoua jiten, uzten dutu ardiac, eta ihesi badoua; eta otxouac hatçamaiten dutu ardiac, eta barreiatzen.

<sup>13</sup> Alocaidian artçain dena ihesi doua, alocaidian delacoz, eta ezpeita phenan jarten.

---

<sup>41</sup> *baciaude*: ikus *baciaude* ‘si vous étiez’ 8,39.

<sup>5</sup> *hotx eguite arrotçarena*: ohart izenaren modifikatzailaren eskuineko kokapenaz.

<sup>11</sup> *bere ardiens*: genitiboaren markak motiboa edo zioa adierazten du, eta ez kausa hertsia; cf. *Le bon pasteur donne sa vie pour ses brebis* Sacy, Ost; *bere ardiacgatik* Lç; *bere ardientçat* TB; *bere ardientçat* HeH.

<sup>12</sup> *alocaidian*: “Salario, sueldo, jornal; premio, pago” (*OEH*, s.v. ALOKAIRO). Aldaera hau Lhandek bildu du Zuberoan. Badira bokalarteko *r > d* bilakabidearen bestelako etsenpluak, hala nola (*h*)atxaidü, *feida < altzairu, feria*; fenomeno horretaz, ikus *FHV*, § 12.4.

<sup>14</sup> Bena ni artçain houna niz, eta eçagutcen dutut ene ardiac, eta ene ardiec ere eçagutcen naie;

<sup>15</sup> hala noula eçagutcen benai ene Aitac, eta nic ere eçagutcen dut ene Aita, eta ene bicia emaiten dut ene ardiengatic.

<sup>16</sup> Beste ardi badut orano saldo hountaric eztirenac; eta hourac ere erakharri behar dutut. Eta ene botça entcunen die, eta eztateke saldo bakhotx bat, eta artçain bakhotx bat baicic.

<sup>17</sup> Hartacoz ene aitac maite nai, ceren ene bicia uzten beitut berriz arrahartceco.

<sup>18</sup> Ihourc ere ezteit idekitcen, bena uzten dut nihauc. Badut photeria behin uzteco, eta photeria berriz arrahartceco. Errecibitu dut manu hoi ene Aitaganic».

<sup>19</sup> Discours hoiengati, içan cen orano nahaskeria judiouen artian,

<sup>20</sup> ceren haien artian hanitxec erraiten cien: «Demonio bat badu, eta centcia galdu du; cergati behatcen ducie?»

<sup>21</sup> Eta bestec erraiten cien: «Elhe horic eztira demoniostatu batenac: demonio batec çabaltcen ahal tia utxu sorthu den baten beguiac?»

<sup>22</sup> Eta Jerusalemen eguiten cien Dedicacioneco besta, eta neguia cen.

<sup>23</sup> Eta Jesus başabilan harat-hounat templian, Salomonen galerian.

<sup>24</sup> Judiouec unguratu cien, eta erran ceren: «Nouiz artino etchekico duçu goure arima dudan? Krist başıra, erran içaguçu clarki».

<sup>25</sup> Jesusec arrapostu eman ceren: «Erran deiciet, eta eztucie sinhesten; ene Aitaren icenian dutudan obrec berec erakousten die nitçaz.

<sup>26</sup> Bena ciec eztucie sinhesten, ceren ezpeitiade ene ardiataric.

<sup>27</sup> Ene ardiec ene botça eçagutcen die, eta nic nihauc eçagutcen dutut, eta jarraikitcen naie; 28

<sup>29</sup> Ene Aita, çougnez eman beteitçat, oro beno handiago da; eta ihourc ere eztutu elkhitcen ahal ene Aitaren eskietaric.

<sup>30</sup> Ni eta ene Aita bat bera guira».

<sup>31</sup> Ordian judiouec hartu cien harri haren harrikaldustatceco.

---

<sup>16</sup> *beste ardi*: mugagabeen, partitiborik gabe; cf. *berce ardiric-ere* Lç; *berce ardiric* TB; *bertce ardiac* HeH; *d'autres brebis* Sacy, Ost.

<sup>21</sup> *demoniostatu*: OEHk TBren eta Ürrütiren pasarte hau jasotzen du DEMONIOZTATU sarreraren adibidetzat; cf. *deabrua duenarenac* Lç; *deabruac daducan baten solhasac* HeH; *d'un homme possédé du démon* Sacy; *d'un démoniaque* Ost.

<sup>28</sup> Ürrütik ments du 28. bertseta; cf. *Je leur donne la vie éternelle, elles ne périront jamais, et nul ne les ravira de ma main* Ost. 1873ko edizioan jauzia zenbakuntzan hautematen da, baina 1888koan bertseten zenbakuntza aldatu dute hutsunea bete gabe. Edizio honek Joanesen ebanjelioaren zenbakuntza errespetatzen du, hutsunea agerian utzirik.

<sup>31</sup> *harri*: ohart mugagabearen erabilera gainerako bertsioek partitiboa edo plurala ematen dutenean; cf. *harri* Lç; *harriac* TB, HeH; *des pierres* Sacy, Ost.

<sup>31</sup> *harrikaldustatceco*: OEHk (s.v. HARRUKALDIZTATU) Ürrütiren bertset hau bildu du adibide gisara.

<sup>32</sup> Jesusec erran ceren: «Cien beguien aitcinian eguin dut hanitx obra ene Aitaren phartez; hetaric çougnengatic harrikhaldustatcen naicie?»

<sup>33</sup> Judiouec ihardetxi ceien: «Etçutugu harrikhaldustatcen çoure hounki eguinagati, bena bai blasfemio batengati, eta guiçon bat baicic ez içan eta, Jinco eguiten cielacoz».

<sup>34</sup> Jesusec arrapostu eman ceren: «Ezta izkiribaturic cien leguian “Erran dut: Jincouac cirade?”

<sup>35</sup> Aren, Jinco deithu batu Jincoua mintçatu çaienac eta hati izkiribia ezta ezdeusturic içaten ahal,

<sup>36</sup> noula erraiten ahal ducie blasfematcen dudala, ni Aitac santificatu naiana, etaigorri naiana mundiala, erran dudalacoz “Jincouaren semia niz”?

<sup>37</sup> Ezpatut eguiten ene Aitaren obrac, eneçaciela sinhetx.

<sup>38</sup> Bena eguiten badutut, eta ezpaducie nahi sinhetxi, sinhetx eçacie obra hoyengati, eçagut deçacien eta sinhetx deçacien Aita ene beithan dela, eta ni Aitaren beithan».

<sup>39</sup> Berriz ordian nahi ukhen cien hartu, bena ezcapi cen hayen ezkietaric.

<sup>40</sup> Eta jouan cen orano Jourdaingnaren beste aldiala, Johanec hasteti batheyatcen cian lekhiala, eta han egoiten cen.

<sup>41</sup> Eta hanitx jiten cien haregana, erraiten cielaric: «Johanec eztu miracuilluric batere eguin; bena Johanec hountçaz erran dutianac oro, eguiac içan dirade».

<sup>42</sup> Eta han hanitxec sinhetxi cien haren beithan.

**10,4** deia] B *dela*. **10,12** dianian] A *dianan*. **10,18** ihourc ere] A B *ihour ere*; cf. TB *nihorc* : HeH *nehorc*.  
**10,24** Ak ments du bertsetaren zenbakia. **10,28** Ak zein Bk ments dute bertset osoa.

---

<sup>35</sup> *batu*: < *badutu*; cf. *Si donc elle appelle dieux ceux à qui la parole de Dieu était adressée* Sacy.

<sup>37</sup> *Ezpatut*: < *ez badutut*.

<sup>38</sup> *obra hoyengati*: morfema kausalak ‘gaia’ (*topic*) adierazten du; cf. *harengatic* 7,12. Erkatu bertsioetan bestela emana da: *obrác sinhets itzaçue* Lç; *sinhets eçaçue obra hoyei* TB; *eguintçac sinhets eçatçue* HeH; *croyez à mes œuvres* Sacy, Ost.

<sup>38</sup> *Aita ene beithan dela, eta ni Aitaren beithan*: bizidunen izenordainen inesiboaren adierazpenean Ürrütik berdin erabiltzen du -tan itxura, animazitatearen morfema gabe; cf. *Aitaren beithan niçala eta ene Aita nitan dela* 14,10; ohartaratzeko da, halaber, behin ere ez duela *enegan* erabili —bai, aldi, adlatibozko *enegana(t)*—. Bestenaz, gainerako euskaratzaileek batera zein bestera jokatzen dute: *Aita nitan dela eta ni hartan* Lç; *Aita nitan dela, eta ni hartan* TB; *Aita ni baithan dela, eta ni Aita baithan naicela* HeH.

<sup>39</sup> *ezcapi*: ‘eskapatu’; cf. *itzur cedin hayén escuetaric* Lç; *escapatu cen heyen escuetaric* TB; *itçuri citçainen escuetaric*. Azken mendeetan zubererak partizipio sail berri bat garatu du gaskoiaren eragipenaz, sail horretako aditzek -atü itxura zaharreko partizipioak galdu dituztelarik: *akhabatü, esprabatü, ezkapatü → akhabi, esprabi, ezkapi*. Berrikuntza horren deskripzioa eta azalpenarentzat ikus Padilla-Moyano (2018).

<sup>40</sup> *Jourdaingnaren*: ikus *iraingnen* 4,14.

## XI. CAPITULIA

<sup>1</sup> Bacen Bethanian guiçon bat eri, Lazare deitcen cena; Maria eta Martha haren arrebacien.

<sup>2</sup> (Maria hora cen Jaunaren houinetara olio ussain goçozco bat ichouri ciana, eta bere buruco bilhouez tchukatu çutiana; eta Lazare eri cena haren anaia cen).

<sup>3</sup> Arreba hec igorri cien Jesusi erraitera: «Jauna, çuc maite duçuna eri da».

<sup>4</sup> Berri hori entçunic, Jesusec erran cian: «Eritarçun hau ezta herioualat dagouena, bena Jincouaren loriagati, Jincouaren semia içan dadin lorificatia hartçaz».

<sup>5</sup> Eta Jesusec maite çutian Martha, Maria haren ahizpa, eta Lazare.

<sup>6</sup> Eta halere, entçun ondouan Lazare eri cela, egon cen orano bi egun ordian cen ber lekhian.

<sup>7</sup> Guero erran cian bere dicipulier: «Utçul guitian berriz Judealat».

<sup>8</sup> Dicipuliec erran ceren: «Naussia, eztu dembora guti baici judiouec tcherkhatcen ciela çoure harrikhaldustatcia, eta berriz ere jouan nahi çira?»

<sup>9</sup> Jesusec arrapostu eman ceren: «Ezta hamabi oren egunian? Egunaz dabilana ezta behaztapatcen, ceren ikhousten beitu mundu hountaco argua.

<sup>10</sup> Bena gaiaz douena, behaztapatcen da; ceren ezpeitu arguiric bereki».

<sup>11</sup> Gaiça horic erran çutianian, erran ceren: «Lazare goure adiskidia lo da, bena banoua iratçartcera».

<sup>12</sup> Eta bere dicipuliec erran ceren: «Jauna, lo bada sendotuco duçu».

<sup>13</sup> Jesus mintço cen haren hiltciaz, bena hec ouste cien mintço cela lo eguiazcouaz.

<sup>14</sup> Ordian erran ceren clarki: «Lazare hil da,

<sup>15</sup> eta boztario badut ciengatic, enintçalakoz han, sinhetx deçacien; bena gouatçan haregana».

<sup>16</sup> Horen gagnen Thomas Didymo deithiac erran cian bere dicipulu laguner: «Gouatçan guere, hil guitian horeki».

<sup>17</sup> Jesus hara heltu cenian, jakin cian Lazare lau egun hartan ehortcirim cela.

---

<sup>2</sup> *olio ussain goçozco bat*: OEHren datuen arabera (s.v. USAIN), *usain gozo(z)ko* “aromático, fragante” bereziki Hegoa deko tradizioan lekukotua da. Erkatu diren gainerako euskaratzeetan: *unguentuz* Lç; *olio ussain goçoa*z TB; *usain goçozco olio batez* HeH; cf. fr. *huile de parfum* Sacy, Ost.

<sup>4</sup> *herioualat dagouena*: hemen *egon* aditzaren adlatibozko gobernamenduak itzulbiderik gabeko egoera aldaketa adieraz dezake; -t itxurako adlatiboa morfemak mugimendu metaforiko horren izaera betierekoia indartzen du. Gainerako bertsioetan: *Eritassun hori ezta heriotara* Lç; *eritassun hau ezda heriotcerat daramana* TB; *Ezta hiltcecoa eritasun hori* HeH; *Cette maladie ne va point à la mort* Sacy & *Cette maladie n'est point à la mort* Ost.

<sup>9</sup> *behaztapatcen*: OEHk (s.v. BEHAZTOPATU) Ürrütiren adibidea jaso du; gainerako euskaratzeetan *behaztopatzen* Lç, *behaztapatu* TB & *behaztopatu* HeH.

<sup>12</sup> *sendotuco duçu*: jakina, forma alokutiboa.

<sup>18</sup> Eta noula Bethania ezpeitcen hurrun Jerusalemeric, noumbait oren erdi baten bidia baicic,

<sup>19</sup> bacen judiouetaric çoumbait jinic Martha eta Mariagana, haien consolatcera beren anaia hil ceielacoz.

<sup>20</sup> Marthac entçun cianian Jesus jiten cela, jouan cen bidiala; bena Maria egon cen etchen.

<sup>21</sup> Eta Marthac erran cion Jesusi: «Jauna, çu heben içan bacinen ene anaia etcen hilen.

<sup>22</sup> Bena orano ere, badakit Jincouari galthatcen dutuçun gaiçac oro emanen deitçula».

<sup>23</sup> Jesusec erran cion: «Çoure anaia berriz phiztuco da».

<sup>24</sup> Marthac erran cion: «Bai, badakit berriz phiztuco dela hiletaric phizteco azken egunian».

<sup>25</sup> Jesusec erran cion: «Ni niz arraphiztia eta bicia; nitan sinhesten diana hilic içanic ere bicico da.

<sup>26</sup> Eta nour ere bici beita, eta nitan sinhesten beitu, hora ezta secula hilen. Sinhesten ducia hori?»

<sup>27</sup> Arrapostu eman cion: «Bai, Jauna, sinhesten dit çu Krista cirela, Jinco bici denaren semia, mundu hountara jin behar ciana».

<sup>28</sup> Hori erran eta, jouan cen, eta deithu cian bere ahizpa Maria, erraiten ceolaric ahapetic: «Nausia heben dun, eta hire galthoz dun».

<sup>29</sup> Entçun cian beçain sarri, jaiki cen berhala, eta jouan cen haregana.

<sup>30</sup> Ceren Jesus etcen orano herrian sarthu, bena Marthac bathu cian ber lekhian cen.

<sup>31</sup> Ordian Mariareki etchian cien judiouac, çouin consolatcera jinic beitciren, ikhousiric jaiki cela eta lehian elkhi, jarraiki cien, erraiten cielaric: «Badoua hobiala nigar eguitera».

<sup>32</sup> Nouiz ere Maria heltu beitcen Jesus cen lekhiala, eta hora ikhousiric, bere buria ourhouki cian haren hougnetara, erraiten çilaric: «Jauna, heben içan bacina, ene anaia etcen hilen».

<sup>33</sup> Jesus, ikhoustiareki Maria nigarrez eta hareki jin cien judiouac ere nigarrez, laztu cen bere beithan, eta bere bihotcian tristetu.

<sup>34</sup> Eta erran ceren: «Noun ecarri ducie?» Arrapostu eman ceren: «Tciauri, Jauna, ikhous eçaçu cihauc».

<sup>35</sup> Ordian Jesusec nigar eguin cian.

<sup>36</sup> Eta judiouec erran cien beren artian: «Soicie noula maite cian!»

---

<sup>18</sup> *oren erdi baten bidia*: hemen Antzinateko neurri unitatearen egokitzapena seguruenik Haraneder-Harrieten testutik hartua da; cf. *d'environ quinze stades* Sacy; *environ à quinze stades* Ost; *hamaborz stadioren inguruä Lç*; *hamabotz bidartein ingururnena* TB; *nombaitsu ordu erdi baten bidean* HeH. Orobak gertatzen da *ehun eta berrogei eta hamar liberaz goiti 12,5 & ehun eta berrogei eta hamar urhatzen ungurunia 21,8*.

<sup>20</sup> *etchen*: Zuberoan mugagabearen inesibo arkaikoak ‘norberaren etxean’ adierazten du, eta mugatuaren inesiboak ‘beste inoren etxean’.

<sup>28</sup> *ceolaric*: normalean Ürrütik *ceion & cion* ematen du; halere, cf. *erraiten ceolaric* 18,22.

<sup>37</sup> Eta hetaric çoumbaitec erraiten cien: «Hounec sortceticaco utxu cenari beguiac çabaltu dutianaz gueroz, etciana beguiratcen ahal guiçon hau hiltctei?»

<sup>38</sup> Ordian Jesus, ikharatcez orano bere beithan, jouan cen hobiala. Eta hobia harripe bat cen, eta harri handi bat bacen gagnen.

<sup>39</sup> Jesusec erran ceren: «Altcha eçaie harria». Marthac, hilaren arrebac, erran cion: «Jaunac, urrin bat badu deja, ceren lau egun badu hil dela».

<sup>40</sup> Jesusec erran cion: «Ezteiçuta erran sinhesten baduçu, ikhousico duçula aguertcen Jincouaren loria?»

<sup>41</sup> Altchatu cien aren harria hila cen lekhun gagneti; eta Jesusec bere beguiac goiti altchaturic, erran cian: «Aita, eskerrac emaiten deitçut, ceren entçun benaiçu.

<sup>42</sup> Badakit ni entçuten naiçula bethi; bena erraiten dit hau ene ungurian dienen».

<sup>43</sup> Hitz horien ondouan, erran cian oihu handi bateki: «Lazare, elki cite horti».

<sup>44</sup> Ordian hila elki cen camporat, eskiac eta çankhouac bandaz unguraturic çutialaric, eta beguithartia gorderic hil-oihalaz. Jesusec erran ceren: «Khen itçotcie banda horic, eta utci jouaitera».

<sup>45</sup> Hartacoz, Martha eta Mariagana jin ciren judio hanitxec sinhetxi cien hartan, ikhousiric cer Jesusec eguin cian.

<sup>46</sup> Bena hetaric çoumbat jouan ciren pharisienetara, eta erran ceren cer Jesusec eguin cian.

<sup>47</sup> Ordian aphez-handiec eta pharisienec counseillia bildu cien, eta erran cien: «Cer eguiten dugu? Ceren miracuillu hanitx eguiten du guiçon houne.

<sup>48</sup> Uzten badugu, oroc sinhetxico die hortan, eta guero erromarrac jinic, ezdeusetaratuco die goure herria, eta goure populia».

<sup>49</sup> Ordian hetaric batec, Caiphas deitcen cena, eta ourthe hartarco aphez-handia beitcen, erran ceren: «Ciec eztakicie;

<sup>50</sup> eztucieia gogouari emaiten, hobe çaicula balimba, guiçon bakhox bat hil dadin populiagati, eciez eta populia oro gal dadin?»

---

<sup>42</sup> Ürrütik ez du bertsetaren azken perpausa eman; cf. *afin qu'ils croient que c'est vous qui m'avez envoyé* Sacy; *afin qu'il croie que tu m'as envoyé* Ost; *sinhets deçatençat ecen hic igorri nauala* Lç; *sinhets deçatentçat çuc egorri nauçula* TB; *sinhets deçatentçat çuc egorria naicela*. HeH.

<sup>42</sup> *ene ungurian dienen*: genitiboak balio kausala adierazten du; cf. *pour ce peuple qui m'environne* Sacy; *à cause de ce peuple, qui est autour de moi* Ost; *inguru dagoen gendetzeagatic* Lç; *ene ingurumenean den ostea gatic* TB; *ene inguruan den populu hau gatic* HeH.

<sup>47</sup> *counseillia*: Zuberoan harritzeko ez den bokalismo *à la gasconne*; cf. *conselh /kunseh/*. Aldaera hau Gèzek eta Larrasquetek bildu dute (OEH s.v. KONTSEILU).

<sup>50</sup> *eztucieia*: ‘ez duzue’. 1873ko nahiz 1888ko edizioek galderazko forma ematen dute. Ene ustez, bertset hau HeHtik itzulia da, Ürrütik baliatu zituen gainerako bertsioetan ez baita galdera ikerrik: *Vous n'y entendez rien ; et vous ne considérez pas qu'il vous est avantageux qu'un seul homme meure pour le peuple, et que toute la nation ne périsse point.* Sacy; *Vous n'y entendez rien ; Et vous ne considérez pas qu'il est à propos qu'un homme seul meure pour le peuple, et que toute la nation ne périsse pas.* Ost; *Çuec eztaquique deus, eta*

<sup>51</sup> Hori etcian bere beitharic erraiten, bena ourthe hartaco aphez-nausi beitcen, Espiritiac erraneraci ceion Jesusec hil behar ciala populiaren.

<sup>52</sup> Eta ez solamente populu bat gati, bena ere Jincouaren haur bazter orotan barreiaturic ciren.

<sup>53</sup> Egun hartçaz gueroz, countseillu hartu cien alkharreki Jesusen hilerasteco.

<sup>54</sup> Hartacoz, Jesus etcen ebilten aguerriki judiouen artian; bena jouan cen bortu hegualia, Eprahim deitcen cen herri batetara, eta han egoiten cen bere dicipulieki.

<sup>55</sup> Eta noula judiouen Bazcoua huillan beitcen, alde hetaric hanitx igaran ciren Jerusalemera, Bazco aitcinian, bere burien chahatceco.

<sup>56</sup> Hourac Jesusen tcherkhatcen çabiltçan, ciouelaric alkharri templian: «Cer çaicie, etcelacoz orano besta hountara jin?»

<sup>57</sup> Ceren meçu eman cien aphez-handiec eta pharisiene, nourbaitec balimbaçakhian noun cen, erran leçan, haren harrerazteco.

**11,28** Naussia] A *Nausia*. **11,32** hougnetara] A *hongnetara*. **11,40** sinhesten] A *sinhestan*. **11,44** hil oihalaz] B *hiloihalaz*. **11,48** oroc] A B *orec*; cf. *oroc* 1,7, 1,16, 4,53, 5,3, 5,23, 5,28, 9,41, 13,35 & 21,12. **11,49** hartaco] A B *hartarco*. **11,52** barreiaturic] B *barreiatuic*. **11,54** Ephraim] A B *Eprahim*. **11,56** etcelacoz] B *etcena* **11,57** Aphez-handiec] B *Aphez handiec*.

---

*eztuçue pensatzen ecen provetchu dugula, guizombat hil dadin populuagatic, eta natione gucia gal eztadin.* Lç; *Ez daquiçue deus; ez duçue consideratcen conbenitcen çauçula guiçon bat hil dadila populuarentçat, eta yendaya gucia ez dadin fundit.* TB; *Çuec eztaquique deusic; Eta eztuçue gogoari emaiten, hobe çaitçuela, balimba, guiçon bakhar bat hil dadin populua gatic, ecen ez iendaqui gucia gal baladi?* HeH.

<sup>51</sup> *espiritiac*: Ürrütik berri ere Haraneder-Harriet hartzen du eredu, gainerako bertsioek ematen ez duten *espiritu* horren iturria baita: *prophetiza ceçan ecen Iesusec hil behar luela nationeagatic*. Lç; *anontçatu çuen Jesusec hil behar çuela yendaquiarentçat*. TB; *erran-araci cioen Ispirituac hil behar çuela lesusec populua gatic* HeH; *il prophétisa que Jésus devait mourir pour la nation des Juifs* Sacy; *il prophétisa que Jésus devait mourir pour la nation Ost*.

<sup>52</sup> *populu bat gati*: Ürrütik bitan ematen du morfema kausala genitiboaren marka gabe, zuzen absolutiboaren gainean; cf. *oren hau gatic* 12,27.

<sup>52</sup> *berreiaturic ciren*: genitibo honek balio motibatiboa adierazten du, aitzineko *populu bat gati* sintagmarekiko koordinazioan. Bidenabar, Ürrütik libertatez itzuli du bertset hau, erkatu bertsioetan kausitzen den zentzu hertsitik urrundurik: *Et non-seulement pour cette nation, mais aussi pour rassembler et réunir les enfants de Dieu, qui étaient dispersés*. Sacy; *Et non-seulement pour la nation, mais aussi pour rassembler en un seul corps les enfants de Dieu qui sont dispersés*. Ost; *Eta ez solament natione harengatic, baina are Iaincoaren haour barreyatuac bil litzançát batetara*. Lç; *Eta ez choilqui yendaquiarentçat, bainan ere Jaincoaren haurren biltceco cein baitciren barrayatuac*. TB & *Eta ez oraino populu bat gatic, bainan are, batera biltcecotçat Jaincoaren haur bazter orotan barraiaturic cirenac*. HeH.

<sup>53</sup> *countseillu*: 1873ko edizioak dakarren <ts> digrafoaren agerraldi bakarra.

<sup>56</sup> *etcelacoz*: 1888ko edizioan *etcena*. Zein iturri begiratu, eta horren arabera 1873 nahiz 1888ko formak ongi emanak lirateke; cf. *Que pensez-vous de ce qu'il n'est point venu à ce jour de fête ?* Sacy; *Que vous en semble ? Ne viendra-t-il point à la fête ?* Ost; *Cer irudi çaiçue, ecen eztela ethorriren bestara ?* Lç; *Cer iduri çauçu ? Uste duçu ez den ethorri festarat ?* TB; *Cer çaiçue, ezpaita iai-egun huntarat ethorri ?* HeH.

## XII. CAPITULIA

<sup>1</sup> Sei egun Bazco beno lehen, Jesus jin cen Bethaniala, noun ere beitcen Lazare hilic içan cena, eta hiletaric phiztu beitcen.

<sup>2</sup> Eta han eguin ceren apaidu bat, eta Marthac cerbutchatcen cian, eta Lazare hareki mahaignian cenetaric bat cen.

<sup>3</sup> Mariac, aldiz, harturic libera bat urin goçozco hour batetaric, acara belhar hounez eguna eta precio handitacoua, ichouri cian Jesusen hougnen gagna, eta tchucatu çutian bere buruco bilhouez, eta etchia oro bethe cen hour houn haren urinaz.

<sup>4</sup> Ordian dicipulietaric batec, Judas Iscariotac, Simonen semiac, çougni ere heltu beitcen haren trahitcia, erran cian:

<sup>5</sup> «Certaco ezta saldu hour hori, eguiten beitcian ehun eta berrogei eta hamar liberaz goiti, beharra diener emaiteco içanen beitcen?»

<sup>6</sup> Hoi erran cian, ez beharra ciener phensatcen cialacoz, bena ouhouin beitcen, eta berac etchekitcen beitcian moussa, harec ekhartent cialacoz moussan eşarten çutien dihariac.

<sup>7</sup> Bena Jesusec erran cian: «Utz eçaçu egüitera; beguiratu du hour urin houn hau ene ehorzteco eguneco.

<sup>8</sup> Ceren badukecie bethi behardun cien artian, bena ni enaikecie bethi cieki».

<sup>9</sup> Eta judio tropa handi batec jakinic Jesus han cela, jin ciren, ez solamente Jesusengatic, bena ere Lazareren ikhoustiagatic, hiletaric phiztu cialacoz.

<sup>10</sup> Hortan gagnen, aphez-handiec deliberatu cien Lazareren ere hileraztia,

<sup>11</sup> ceren judio hanitx hetaric behezten cien haren causaz, eta Jesusetan sinhesten cien.

<sup>12</sup> Biharamenian populu handi bat Jerusalemera bestala jinic beitciren, entçunic Jesus heltcen cela,

---

<sup>2</sup> *cenetaric*: uler bedi ‘zirenetarik’; cf. *et Lazare était un de ceux qui étaient à table avec lui*; halere, *cienetaric* ‘zirenetarik’ 13,28. Ediziogile honek ez du zuzendu, zenbaitetan Ürrütik singularreko erlatibozko formaren gainean plurala eraikitzen duelako; cf. *naianac* ‘nautenak’ 18,21 ← *naiana* ‘nauen’ & *dianac* ‘dutenak’ 20,29 ← *diana* ‘duena’.

<sup>3</sup> *acara belhar hounez*: molde hau HeHtik hartua da; cf. *liberabat unguentu aspic finez* Lç; *libera bat ussain goço eguiazco nardotic* TB; *libera bat urrin goçozco ur batetaric*, *acara belhar hutsez eguna* HeH; *une livre d'huile de parfum de vrai nard* Sacy & *une livre d'une huile de senteur de nard pur* Ost. Gainerakoan, baliteke Ürrütik iturriko *hutsez* kontzienteki *hounez* bihur lezan.

<sup>5</sup> *ehun eta berrogei eta hamar liberaz goiti*: berriz ere Ürrütik, Haraneder-Harrieti segi, neurri unitateak egokitzen ditu; cf. *trois cents deniers* Sacy; *trois cents deniers d'argent* Ost; *hirur ehun dinerotan* Lç; *hirur ehun diru peça* TB; *ehun eta berrogoi eta hamar liberaz goiti* HeH. Ikus *oren erdi baten bidia* ← *quinze stades* 11,18 eta bertako oharra.

<sup>6</sup> *beharra ciener phensatcen*: ohart aditzaren datibozko gobernamenduaz, *penser à quelqu'un* frantsesaren eraginez. Gainerako bertsioekiko konparantzak datibo hori Ana Ürrütiren gramatikan errotua dela erakusten du, ez baita itzulpenaren zordun; cf. *non qu'il se souciât des pauvres* Sacy, Ost; *ez paubrez harc ansiaric çuenez* Lç; *ez pobreez acholaric çuelacotz* TB; *ez landerrez antsia içanez* HeH.

<sup>13</sup> palma adar harturic eskietan, jouan cien haren batcera bidiala, oihu eguiten cielaric: «Hozana, hounki jin cirela, Jincouaren icenian jiten cien Isaraelen erregua!»

<sup>14</sup> Eta Jesusec bathuric asto hume bat, jarri cen hartan gagnen, izkiribaturic denaren arabera:

<sup>15</sup> «Eztuçula lotxaric, Sioneco alhaba; hoi duçula çoure erregue hiltcen çaiçu, asto hume baten gagnen jarriric».

<sup>16</sup> Dicipuliec etcien ordian berhala enthelegatu gaiça hori; bena Jesus lorificaturic içan cen ondouan, orhitu ciren gaiça horic izkiribaturic cirela hartçaz, eta noula eguin içan ceitcen.

<sup>17</sup> Eta Jesuseki cirenec goraki errendatcen ceren jakitatia, deithu cialacoz Lazare hobitic campo eta hiletaric phiztu.

<sup>18</sup> Hortacoz ere, populia jouan cen bidiala, ceren jakin beitciren miracuillu hoi eguin cirela.

<sup>19</sup> Hortacoz, pharisienecc erraiten cien beren artian: «Eztucieia ikhousten eztugula deus ere irabazten? Horra noun mundu oro jouaiten den haren ondouan».

<sup>20</sup> Eta bacen han grec çoumbait, besta demboran Jincouaren adoratcera jinic Jerusalemera.

<sup>21</sup> Hourac Philippegana jinic, çouin beitcen Bethsaida Galileaco, othoitu cien, erraiten cielaric: «Jauna, ountxa nahi guinikeçu ikhousi Jesus».

<sup>22</sup> Philippec erran cian Andresi, eta Andresec eta Philippec erran cien Jesusi.

<sup>23</sup> Jesusec erran ceren: «Orena jin da noun guiçonaren semiac içan behar beitu lorificaturic.

<sup>24</sup> Eguiazki, eguiazki erraiten deiciet: Ogui bihi lurrian eraiten dena, ezpada hiltcen, egoiten da bera; bena hiltcen bada, ekhartent du fruta hanitx.

<sup>25</sup> Bere bicia maite dianac galduco du, eta bere bicia huguntcen dianac mundu hountan, beguiratcen du bicitce bethierecoa.

<sup>26</sup> Ene cerbutchari dena jarraiki bekit, eta ni noun ere beniçate, han içanen da ene cerbutcharia ere; eta nourbaitec cerbutchatcen banai, ene Aitac ouhouratuco du.

---

<sup>13</sup> *Israelen erregua*: gainerako euskaratzaillek erlaziozko atzizkia erabiltzen dute: *Israeleco regaea* Lç; *Israeleco Erregaea* TB; *Israelgo Erregaea* HeH.

<sup>15</sup> *hoi duçula*: zubereraren forma aurkezkaria, ‘horra’. Cf. *voici ton roi* Sacy, Ost; *huná, hire Regue* Lç; *huna* TB; *huna non çure Erregaea heldu çaitçun astacume batean iarriric* HeH. Gaskoinaren eragipenari lotua den egitura horren deskripzioarentzat, ikus Padilla-Moyano (2020). Testu honetan bada beste agerraldirik: *Hori duciela guiçona* 19,5. Zubererak bere formula presentatiboaz gainera orokorrak diren *hona & horra* ere baditu; cf. *horra (noun)* 12,19. Aipatuez landara, presentatiboen sailean zubererak oraino hirugarren aukera bat du: *orizü & orizie*; ikus *Oricie Espiritu Saintia* 20,22, nahiz eta han Ürrütik ez duen aurkezkari gisara erabili.

<sup>21</sup> *Bethsaida Galileaco*: uler bedi ‘Bethsaida Galileakoko(a)’; cf. *de Bethsaïde en Galilée* Sacy; à *Bethsaïda en Galilée* Ost; *cein baitzén Bethsaidaco Galilean* Lç; *cen baitcen Bethsaida Galileaco* TB; *ceina Bethsaida Galileacocoa baitcen* HeH.

<sup>21</sup> *ountxa nahi guinikeçu*: ene ustez, frantses iturritik hartutako moldea; cf. *nahi guendiquec Jesus ikussi* Lç; *Jesusen ikhustea deseatcen dugu* TB; *nahi guinuque bada Jesus ikerusi* HeH; *nous voudrions bien voir Jésus* Sacy, Ost.

<sup>27</sup> Orai ene arima lazturic da; cer dioket? “Aita! beguira neçaçu oren hountaric”? Bena oren hau gatic jinic niz.

<sup>28</sup> Ene Aita, lorifica eçaçu çoure icena!» Ber demboran botz bat jin cen celuti, erraiten cielaric: «Lorificatu dut, eta lorificatuco dut orano».

<sup>29</sup> Eta han cen populiac botz hora entçunic erraiten cien uhulgu bat cela, bestec erraiten cien: «Ainguru bat mintçatu çao».

<sup>30</sup> Bena Jesusec erran ceren: «Botz hori ezta jin enegatic, bena bai ciengatic.

<sup>31</sup> Orai doua jujatcera mundu hau, orai mundu hountaco princiac ourthoukiriec içanen dira camporat.

<sup>32</sup> Eta nic, eraikiric içan niçatekienian lurretic, guiçonac oro erakhariren dutut nihaurganat».

<sup>33</sup> (Erran cian hori, eçaguterazteco cer heriotaric hil behar cian.)

<sup>34</sup> Populiac arrapostu eman cion: «Guc ikhoussi diçugu leguian, bethi irain behar diela Kristac; noula dioçu, aren, guiçonaren semiac behar diala eraikiric içan? Nour da guiçonaren seme hora?»

<sup>35</sup> Ordian Jesusec erran ceren: «Arguia cieki da orano dembora bouchi baten; ebil citaie arguia ducieno, ulhumpiac har etcitcen; ulhumpian douenac, eztaki nouat douen.

<sup>36</sup> Arguia ducieno, arguian sinhetx eçacie, arguico haur içan citaien». Jesusec erran çutian gaiça horic, guero jouan cen, eta galdu haien bistati.

<sup>37</sup> Eta nahibada haimbeste miracuillu egun cian haien aitcinian, etcien sinhesteric haren beithan.

<sup>38</sup> Bethe çadin Esaias profetac erran cian elhia: «Jauna, nourc entçun du goure elhia, eta sinhetxi beikutu? Eta Jaunaren besoua nourc eçagutu içan du?»

<sup>39</sup> Hartacoz ere, etcien sinhesten ahal; Esaiasec erran du orano:

<sup>40</sup> «Horien beguiac utxutu dutu, eta hoien bihotçac gogortu dutu, ikhous eztecen beren begueiz, eta eztitçadan utçul, eta eztitçadan sendo».

<sup>41</sup> Esaiasec erran çutian horic, ikhousi cianian haren loria, eta hartçaz mintçatu cenian.

---

<sup>27</sup> *dioket*: cf. *erranen dut* Lç; *erranen dut* TB; *dioquet* HeH; *que dirai-je*? Sacy, Ost.

<sup>27</sup> *hau gatic*: morfema kausala absolutiboari jarraikiz; cf. *bat gati* 11,52.

<sup>31</sup> *jujatcera mundu hau*: ohart TOGEN araua ez dela betetzen aditz izenaren eskuinean.

<sup>34</sup> *irain*: ‘iraun’. 1873ko edizioak *izain* dakar, eta 1888koak *izan*. *OEH*ren arabera (s.v. IZAN), Tartasek behin dakar *izain*; hemen agerraldi bakarra litzateke, eta horrezaz gain, Ürrütirenen sistema grafikoan bokalarteko <z> txistukari ahostunari dagokio. Frantsesezko bertsioek *demeurer* aditza dakarte; cf. *ecen Christ badagoela eternalqui* Lç; *Christo egoiten dela bethitotz* TB; *bethi iraun behar duela Christoc* HeH.

<sup>35</sup> *dembora bouchi baten*: genitiboak denborazko balioa adierazten du, fr. *pour* preposizioaz adierazten den bezala; cf. *pour un peu de temps* Sacy, Ost; *dembora guti batetacotz* Lç; *dembora pochi batentçat* TB; *aphur batentçat oraino* HeH. Ikus, halaber, *dembora aphurthto baten* 13,36.

<sup>42</sup> Arastan, hati judio entçun handi cienetaric ere hanitxec sinhetxi cien hartan, bena pharisienen lotxa beitciren, etcien aithortcen, lotxaz synagogati camporatigor litcen,

<sup>43</sup> ceren maitiago beitcien guiçonetaric jiten loria, eciez Jincouarena.

<sup>44</sup> Eta Jesusec oihu egui cian, erraiten cialaric: «Nourc ere sinhesten beitu ene beithan, eztu ene beithan sinhesten, bena bai niigorri naianaren beithan.

<sup>45</sup> Eta ikhousi naianac, ikhousten duigorri naiana ere.

<sup>46</sup> Ni jin niz mundiala, mundiaren argui içateco, amoregatic nitan sinhesten diana eztadin egon ulhumpian.

<sup>47</sup> Eta nourbaitec ene elhia entçuten badu eta ez sinhesten, eztut jujatcen, ceren ezpeniz jin mundiaren jujatcera, bena bai mundiaren salbatcera.

<sup>48</sup> Ni errecebitcen enaianac, eta ene elhiac sinhesten eztutianac, baduke nourc juja; entçuneraci dutudan elhec berec jujaturen dutu azken egunian.

<sup>49</sup> Ceren eniz mintçatu nihaurtçaz, benaigorri naian Aitac berac manatu deit cer erran behar dudan, eta certçaz nadin.

<sup>50</sup> Eta badakit haren mania bethiereco bicitcia dela. Gaiça erraiten dutudanac, erraiten dutut ene Aitac erran deitzadan beçala».

**12,6** harec] A B *haren*; cf. HeH *berac*. **12,7** cian] A B *cien*. **12,9** bena] A B *bene*. **12,19** jouaiten] B *juaisten*. || haren] A *horen*; cf. Lç *haren*: Sacy *après lui*. **12,24** erraiten] A *erraiten*. **12,34** irain] A *izain*: B *izan*; cf. TB *Christo egoiten dela bethicotz*: HeH *bethi iraun behar duela Christoc*. **12,38** ezagutu] A B *ezagatu*. **12,46** diana] B *diano*.

### XIII. CAPITULIA

<sup>1</sup> Bazcoco besta aitcinian, Jesusec beitçakian haren mundu hountaric bere Aitaganat igaraiteco muga heltu cela, noula maithatu beitçutian bere mundian cirenac, azken mementoualartino maithatu çutian.

<sup>2</sup> Eta aihaltu cirenian, nouiz ere dejadanic Debriac ecarri beitcian Judas Iscariot Simonen semiari bihotcian Jaunaren saltceco phentxamentia,

<sup>3</sup> eta Jesusec beitçakian bere Aitac eman ceitçola gaiçac oro eskietara, eta jin cela Jincouaganic, eta Jincouaganat baçouela,

<sup>4</sup> jaikitzen da mahainetic, eta bere çai elkhirc, hartcen du oihal bat, eçarten du bere guerricouan.

---

<sup>48</sup> *elhec berec jujaturen dutu*: komunzadura arazoa: ala *elhec jujaturen die*, ala *elhiac jujaturen du* behar luke; cf. *ni minçatu naicen hitzac condamnaturen du hura azquen egunean*. Lç; *anonçatu dudan hitça, içanen da yuyatuko duena azquen egunean*. TB; *adi-araci darotçuetan hitz hunec berac iuiaturen du azquen egunean*. HeH.

<sup>1</sup> *mementoualartino*: ikus *bicitcialartino* 4,14.

<sup>3</sup> *baçouela*: ‘bazihoala’.

<sup>5</sup> Guero ichourten du hour ountci batetara, eta hasten da hougnen chahatcen dicipulier, eta tchucatcen çutian bere guerricouan cian oihalaz.

<sup>6</sup> Jiten da Simon Pierragana. Eta Pierrac erran cion: «Jauna, çuc eni çankhouac chahatuco deiztadatçula?»

<sup>7</sup> Jesusec erran ceion: «Eztakiçu cer ari niçan orai, bena jakinen duçu guerochago».

<sup>8</sup> Simon Pierrac erran cion: «Ezteitadatçu secula çankhouac chahatuco». Jesusec erran cion: «Ezpadetçut chahatcen, eztukeçu deus ere eneki».

<sup>9</sup> Ordian Simon Pierrac erran cion: «Jauna, ez solamente hougnac, bena eskiac eta buria ere».

<sup>10</sup> Jesusec erran cion: «Deja chahatia denac eztu beharric hougnen chahatcia baicic, ordian oro chahaturic da. Eta ciec ere chahu cirade, bena ez hati oro».

<sup>11</sup> Ceren başakian çouin cen trahiçalia, hartacoz erran cian: «Etcirade chahu oro».

<sup>12</sup> Chahatu ceitcenian hougnac, çaa jaunxi cien, eta berriz jarriric, erran ceren: «Badakicieia cer eguiñ deiciedan?

<sup>13</sup> Ciec deitcen naicie Naussia eta Jauna, eta ountxa erraiten ducie, ceren hala niz ere.

<sup>14</sup> Aren nic, cien Jauna eta Naussia niçalaric hougnac chahatu badeitciet, ber guisan behar ducie ciec ere batac bestiaren hougnac chahatu.

<sup>15</sup> Erakoutxi deiciet bidia, nic eguiñ deiciedan beçala, ber guisan eguiñ deçacien ciec ere.

<sup>16</sup> Eguaizki, eguaizki erraiten deiciet: Ezta cerbutcharia bere naussia beno handiago, ez eta igorriric dena igorlia beno handiago.

<sup>17</sup> Balimbadakiticie gaiça horic ountxa irous cirade, eguiten badutucie.

<sup>18</sup> Eniz mintço cietçaz orotçaz: badakit çouin diren haitatu dutudanac; bena izkiribia bethe dadin eta complituric içan dadin: “Eneki jaten ari denac, bere aztala eraiki du ene contre”.

<sup>19</sup> Eta oraïdanic erraiten deiciet heltu den beno lehen: Sinhestx deçacien, heltu datekienian, ni niçala Aitac igorri diana.

<sup>20</sup> Eguaizki, eguaizki erraiten deiciet: Nourc ere errecebitcen beitu nic igorten dudana, errecebitcen nai, eta errecebitcen naianac, errecebitcen du igorri naiana».

<sup>21</sup> Jesusec gaiça horic erran ondouan, troublatu cen bere ezpiritian, eta erran ceren goraki: «Eguaizki, eguaizki erraiten deiciet cien batec trahituco naiala».

---

<sup>6</sup> *deiztadatçula*: hemen *deiztadatçua* galderazko forma igurika liteke; cf. *etçutietia* 6,70, non 1873ko nahiz 1888ko edizioetan *etçutiela* irakurtzen baita. Haatik, bertset honetan Ürrüti segureuenik Haraneder-Harrieten bertsioan oinarritu da, horren harridurazko moldea emanik; cf. *Quoi, Seigneur ! vous me laveriez les pieds ? Sacy; Toi, Seigneur, tu me laverais les pieds ! Ost; Jauna, hic niri oinac ikutzen [sic] drauzquidac ? Lç; Jauna, ikhuzten derauztaçu çangoac ? TB; Jauna, çuc niri çangoac garbituco darozquidatçula ? HeH.*

<sup>11</sup> *trahiçalia*: OEHk (s.v. TRADITZAILE) tradizale aldaera zuberotarra biltzen du, baina ez *trahizale*.

<sup>19</sup> *sinhestx*: ez bada huts, <stx> grafema bitan ageri da: *sinhestx* 13,19 & *sinhestxi* 17,8.

<sup>21</sup> *cien batec*: genitiboak balio partitibo garbia adierazten du, ‘zuetarik/zuetako batek’. Gainerako euskaratzeetan *çuetaric batec* datza (Lç, TB, HeH), eta frantsesezko bertsioetan *l'un de vous* (Sacy, Ost).

<sup>22</sup> Ordian dicipuliac oro alkharri soroz jarri cien, ezpeitçakien çougnez mintço cen.

<sup>23</sup> Eta noula dicipulu bat, Jesusec maite ciana, etçanic beitcen Jesusen boulharraren gagna bere buria phausaturic,

<sup>24</sup> Simon Pierrac eguin ceion khegnu, galtha liçon nourtçaz mintço cen.

<sup>25</sup> Dicipulu harec, Jesusen boulharrian phausaturic cenac, erran cion: «Jauna, çouin da?»

<sup>26</sup> Jesusec arrapostu eman cion: «Çougni ere emanen beitut ogui bouchia trempaturic».

Eta haimbestereki, eskentu cion ogui trempatu bouchi bat Judas Iscariot Simonen semiari.

<sup>27</sup> Eta ogui ahamen hora hartu ondouan, Satan sarthu cen haren beithan; ordian Jesusec erran cion: «Eguiteco duçuna eguiçu lehen beno lehen».

<sup>28</sup> Bena mahainian cienetaric batec ere etcian enthelegatu certaco erraiten ceion hori.

<sup>29</sup> Noula Judasec diharia etchekitcen beitcian, çoumbaitec ouste ukhen cien Jesusec erran nahi ceiola: «Eros eçaçu eguneco jan behar dutugunac».

<sup>30</sup> Judas, ogui ahamen hora jan cian beçain sarri, elkhi cen; ulhun bethe cen orduncoz.

<sup>31</sup> Eta elki cenian behala, Jesusec erran cian: «Orai guiçonaren semia lorificaturic da, eta Jincoua lorificaturic da hartan.

<sup>32</sup> Eta Jincoua lorificaturic bada hartan, Jincouac ere lorificatuco du berartan, eta laster lorificatuco du.

<sup>33</sup> Ene haurthouac, dembora aphurttho baten niz orano cieki. Tcherkhaturen naicie; eta erran dudan beçala judiouer eziela jiten ahal ni jouaiten niçan lekhialat, erraiten deiciet cier ere ber guisan.

<sup>34</sup> Manu berri bat emaiten deiciet: Maita eçacie alkhar; nic ciec maithatu çutiedan beçala, ciec ere alkhar maitha eçacie.

---

<sup>22</sup> *soroz*: jakina, ‘soz’. XIX. mendeko egile zuberotar zenbaitek dardarkarien lenizioa salatzen duten hiperzuzenketa egiten dituzte. Horrezaz apart, hemen nabarmenzekoa da Ürrütik *so* hitza bokal luzeaz hautematea: *OEHk* etsenplu bakarra bildu du, XX. mendekoa: “*sooz eta sooz ehiün bat joküllari Herr 19-5-1960 3*”.

<sup>26</sup> *bouchia*: ‘zatia’. Amiküze eta Zuberoako forma, -i sudurkari oxitona duten biarnesetikako maileguen sailekoa.

<sup>29</sup> Ürrütik ez du bertsetaren azken perpausa eman; cf. *ou qu'il lui donnait ses ordres pour distribuer quelque chose aux pauvres* Sacy; *ou, qu'il donnât quelque chose aux pauvres* Ost; *edo paubrey cerbait eman liecén Lç*; *edo eman ceçan cerbait pobrei* TB; *Edo, eman cioçotela escaleei cerbait* HeH.

<sup>30</sup> *orduncoz*: euskara batuaren ‘ordurako’ zentzia adierazten duen adberbioa, eta Zuberoan mugagabearen gaineko inesibo arkaikoa + -ko segida atxikitzen duten formetarik bat; ikus *orduankoz* & *ordunkoz*, *OEH*, s.v. ORDUAN.

<sup>33</sup> *haurthouac, aphurttho*: hemen <th> grafemak /c/ sabaikaria adierazten du, <tth> nolabait grafia hibridoa izanik (ez bada huts).

<sup>33</sup> *dembora aphurttho baten*: genitiboak pour preposizioaren balioa adierazten du; cf. *pour un peu de temps* Ost; *dembora laburrentçat* TB; *aphurtto baten* HeH. Ikus *dembora bouchi baten* 12,35.

<sup>35</sup> Hortaric eçagutuco die oroc ene dicipuliac ciradela, balimbaducie amorio batac bestiaren».

<sup>36</sup> Simon Pierrac erran cion: «Jauna, nourat çouaça?» Jesusec erran cion: «Nouat ere benoua, enaiçu orai jarraikitcen ahal; bena jarraikico naiçu guero».

<sup>37</sup> Pierrac erran cion: «Jauna, cergicat enaikikeçu jarraiki ahal orai berian? Emanen dut ene bicia çouretaco».

<sup>38</sup> Jesusec arrapostu eman cien: «Çoure bicia eman cinio enetaco? Eguiazki, eguiazki erraiten deiçut: Eztu oillarac khantatuco noun enaiçun ukhatcen hirouretan».

**13,2** phentxamentia] A B *phentxamienta*. **13,5** hasten da] A B *hasten du*. **13,7** ceion] B *ceron*. **13,23** ezpeitçakien] A *ezpeitçaki n*. **13,25** Jesusen boulharrian] A B *Jesus boulharrian*; cf. TB *Jesusen bulharretan*: HeH *Iesusen bulharraren gainera*. **13,29** Ak zein Bk ments dute bertsetaren azken perpausa; cf. Lç *Ecen batçuc uste çuten, ceren mulsá baitzuen Iudasec, ecen erran ceraucala Iesusec: Eros itzac bestacotçát behar ditugun gauçác; edo paubrey cerbait eman liecén* : TB [...] *edo eman ceçan cerbait pobrei* : HeH [...] *Edo, eman cioçotela escaleei cerbait*. **13,33** haurthouac ... ahurstho] A *haurthouac ... ahurstho* : B *haurttouac ... ahurstto*. **13,34** çutiedan] A B *çutudan* ene aieruan, moldiztegian eskuizkribuaren *ie → u* errakuntza obratu zen; cf. Lç *eritzi drauçuedan* : TB *maithatu çarotedan* : HeH *maithatu çaitutedan*.

## XIV. CAPITULIA

<sup>1</sup> «Cien bihotça eztadin içan lazturic; sinhesten ducie Jincouaren beithan, sinhetx eçacie nitan ere.

<sup>2</sup> Bada egonguira hanitx ene Aitaren etchen; hori ezpaliz hala, erranen neicien. Banoua cier lekhiaren prestatcera.

<sup>35</sup> *batac bestiaren*: genitiboak onuraduna adierazten du edo, zehazkiago, sentimenduen iturria; cf. *batac berceagana* Lç; *batac bertcearentçat* TB; *batac bertceari* HeH & *les uns pour les autres* Sacy, Ost.

<sup>37</sup> *enaikikeçu*: ‘ez nakizuke’. Ohart bedi \*di erroa ez dela guztiz higatua: \**nadikikezü* > *naikikezü* > *nakikezü* (mendebalean *nakizuke*).

<sup>37</sup> *çouretaco*: Akitaniako euskalkietan XVII. mendetik aitzina hedatu den aldaketa semantikoa, zeinaren medioz -rentzat & -tako kasu benefaktiboaren morfemek -gatik morfema kausalaren balio motibatiboa bereganatu baitute, eta zeinaren ondorioz -gatik morfemaren eremu semantikoa kausa hertiaren adierazpenera murriztu baita. Bestalde, zuberera zaharrean benefaktiboaren morfemaren erabilpena hautazko da, horren eremu semantikoa usuenik genitiboaren morfema soilak estaltzen baitu. Gehiago dena, *zertako galdetzaileaz* eta *hortakoz* bezalako lokailuez landara, Ürrütik hirutan baizik ez du benefaktiboaren marka erabili, eta hiruretan pertsona izenordainekin: *çouretaco* 13,37, *enetaco* 13,38 eta *haintaco* 17,19.

<sup>38</sup> *cinio*: ‘ziniro’, hots, euskara batuaz ‘zenezake’.

<sup>38</sup> *enetaco*: ikus *çouretaco* 13,37.

<sup>1</sup> *eztadin*: ediziogile honi eskapatzen zaizkion arrazoiengatik, jusibozko balioa duen perpaus honetan Ürrütik subjuntiboaren forma biluzia eman du, bertsetaren zentzua ilunduz; cf. *Que votre cœur ne se trouble point* Sacy, Ost; *eztadila trubla* Lç; *ez bedi içan laztua* TB; *eztadila nahas* HeH.

<sup>2</sup> *egonguira*: jakina, ‘egongia’. Antza, dardarkarien lenizioaren ondoriozko hiperzuzenketa hau 1888ko edizioan oker analizatu dute, *egon guira* emanik. Gainerako euskaratzaillek *egoitza* darabilte.

<sup>3</sup> Eta jouan niçatekienian, eta cien lekhia prestatu dukedanian, berriz jinen nitçaicie, eta hartuco çutiet eneganat, ni niçan lekhian içan citaien ciec ere.

<sup>4</sup> Eta badakicie nourat jouaiten niçan, eta badakicie bidia».

<sup>5</sup> Thomasec erran cion: «Jauna, eztakiçugu nourat jouaiten ciren, eta noula dakigu bidia?»

<sup>6</sup> Jesusec erran cion: «Ni niz bidia, egua, eta bicia; ihour ere ezta jiten Aitaganat, niçaz baicic.

<sup>7</sup> Eçagutcen banunducie ni, Aita ere eşagut cinioie; bena oraidanic eşagutcen ducie eta ikhoussi ducie».

<sup>8</sup> Philipec erran cion: «Jauna! Erakhoutx eşaguçu Aita, eta hori aski dugu».

<sup>9</sup> Jesusec erran cion: «Haimbeste dembora hountan cieki niz, eta enaiçu eşagutu? Philipe, ni ikhoussi naianac ikhoussi duene Aita ere. Eta noula erraiten ahal duçu “Erakhoutx eşaguçu Aita”?

<sup>10</sup> Eztucia sinhesten ene Aitaren beithan niçala eta ene Aita nitan dela? Nic erraiten deitciedan elhiac, ezteitciet erraiten nihauen beithatic; bena ene beithan dagouen Aitac berac eguiten dutu nic eguiten dutudan obrac.

<sup>11</sup> Sinhetx neçacie ene Aitaren beithan niçala, eta Aita ene beithan; bestela sinhetx neçacie obra horien causaz.

<sup>12</sup> Eguiazki, eguiazki erraiten deicet: Nitan sinhesten dianac egünen dutu eguiten dutudan obrac, eta egünen du horic beno handiagoric, ceren eta benoua ene Aitaganat.

<sup>13</sup> Eta cernahi galtha deçaci ene icenian, egünen deitciet, Aita lorificaturic içan dadin semiaz.

<sup>14</sup> Eta cerbait galthatcen baducie ene icenian, egünen deicet.

<sup>15</sup> Ni maite banaicie, ene maniac beguira itçatcie.

<sup>16</sup> Eta othoituco dut ene Aita, eta emanen deicie beste consolaçale bat, egoiteco bethierecoz cireki.

<sup>17</sup> Houra beita espiritu eguiazcoua, mundiac errecebitcen ahal eztiana, ceren ezpeitu ikhousten, ez eşagutcen; bena ciec eşagutcen ducie, ceren cieki egoiten beita eta cien beithan beita.

<sup>18</sup> Etçutiet utcico cihauriec: jinen niz cienganat.

---

<sup>3</sup> *niçatekienian & dukedanian*: geroaldi perfektiboa adierazten duten formak; cf. *et après que je m'en serai allé, et que je vous aurai préparé le lieu Sacy; Et quand je m'en serai allé, et que je vous aurai préparé le lieu Ost; Eta ioan naiçatenean, eta leku çuey appaindu drauqueçuedanean Lç; Eta ioan naitequenean, eta çuei toquia aphaindu darotçuequedan ondoan HeH.*

<sup>7</sup> *cinioie*: ‘zinirote’, hots, euskara batuaz ‘zenezakete’; cf. *cineçaquete Lç, TB, HeH.*

<sup>13</sup> *semiaz*: frantseseko iturriek ez dute preposizio bera hautatzen, eta horrek bere isla proiektatzen du euskaratzetean; cf. *afin que le Père soit glorifié dans le Fils Sacy; afin que le Père soit glorifié par le Fils Ost; glorifica dadinçat Aita Semeán Lç; Aita lorificatua içan dadinçat semeaz TB; handiets dadinçat Aita Semeán HeH.* Nolanahi ere den, hemen *semiaz* instrumentalak ez du agentea kodifikatzen, bitartea baizik (*means*).

<sup>19</sup> Orano dembora bouchi bat, eta mundiac enai ikhoussico, bena ciec ikhoussico naicie; eta ceren bici beniz, ciec ere bicico cirade.

<sup>20</sup> Egun harten eçagutu ducie ene Aitaren beithan niçala, eta ciec ene beithan, eta ni cien beithan.

<sup>21</sup> Ene maniac badakitçanac, eta beguiratcen badutu, hora da ni maite naiana; eta ni maite naiana maithaturic içanen da ene Aitaz».

<sup>22</sup> Judac (ez Iscariotac) erran cion: «Jauna, noulaz eçaguteracico cirade gouri, eta ez mundiari?»

<sup>23</sup> Jesusec arrapostu emanic, erran cion: «Nourbaitec maite balimbanai, harec beguiratuco du ene elhia, eta ene Aitac maithatuco du; eta jinen guira harenganat, eta harten eguiten dugu goure egonguire.

<sup>24</sup> Ni maite enaianac, ene elhia ere eztu beguiratcen; eta entçuten ducien elhia ezta ene elhia, bena niigorri naian Aitarena.

<sup>25</sup> Erraiten deitciet gaiça horic cieki nagouelaric.

<sup>26</sup> Bena Aitac ene icenian igorriren deicien Espiritu Saintu bozgarri harec gaiçac oro erakhoutxico deitcie, eta orhitaracico deitcie nic erran deitciedanac oro.

<sup>27</sup> Bakia uzten deiciet, ene bakia emaiten deiciet; ezteicet emaiten mundiac emaiten dian beçala, cien bihotça eztadila nahas, ez içan icituric.

<sup>28</sup> Entçun ducie erran deiciedala: “Banoua, eta utçulien niz cienganat, ceren Aita ni beno handiago beita”.

<sup>29</sup> Eta orai erraiten deiciet, hori heltu den beno lehen, heltcen denian sinhetx deçacien.

<sup>30</sup> Eniz haboro hanitx mintçatuco cieki, ceren mundu hounen buruçaguia heltcen beita; eta hati eztu deus ere nitan;

---

<sup>21</sup> Ürrütik ez du bertsetaren azken perpausa itzuli; cf. *eta nic hari on eritziren draucat, eta manifestaturen draucat hari neure buruä Lç; maithatuco dut, eta eçagutaracico nitzayo.* TB; *eta maithatuco dut nic ere, eta aguertuko natçao.* HeH.

<sup>23</sup> *Jesusec arrapostu emanic, erran cion:* estilema honek Ürrütiren itzulpenaren iturria salatzen du: Leizaragarekin TBk ere halaxe dakarte, baina ez Ostervaldek, Sacyk, ezta HeHk ere.

<sup>23</sup> *harec:* 1873ko nahiz 1888ko edizioetan *harc* datza. Aldiz, Ürrütiren zubereran 3. pertsona singularraren ergatiboaren forma ez da *hark*, *harek* baizik. Testu osoan hauxe da *harc* bakarra vs *harec* 34 aldiz: 1,3, 1,10, 1,41, 4,9, 4,11, 4,39, 4,47, 4,50, 4,53, 5,13, 5,19, 5,24, 5,45, 5,46, 6,24, 6,40, 7,49, 8,42, 9,12, 9,36, 12,6, 13,25, 14,26, 15,5, 15,26, 16,14, 17,2, 18,17, 19,27, 19,35, 20,15, 20,25, 21,7 & 21,23. Beraz, ala Ürrütik berak itzultzean oharkabean eman zuen *harc*, ala Cazals etxeán norbaitek e ahantzi zukeen.

<sup>28</sup> Ürrütik laburrago ematen du bertset hau; cf. *Aditu duçue erran dautçuedala: Banoha, eta itçulcen naiz çuen ganat; maite baninduçue, içan cinazteque segurqui boztuac erran dudanaz:* Banoha Aita ganat; ecen Aita ni baino handiago da. TB; *Entçun duçue nola erran darotçuetan banohala, eta çuen ganatbihurtuco naicela. Baldin maite baninduçue, atseguin bide cinuquete, ceren Aita ganat nihoan; ecen Aita ni bainoagoa da.* HeH.

<sup>29</sup> *hori heltu den beno lehen:* hemen *den adizkiak subjuntiboa adierazten du;* cf. *avant que cela arrive* Sacy; *avant que la chose arrive* Ost; *eguin dadin baino lehen Lç; hori guerthatu den baino lehen* TB.

<sup>31</sup> bena amorecatic mundiac eçagut deçan Aita maite dudala, eta eguiten dudala Aitac manhatu deitadana. Jaiki citiae, gouatçan hebetic».

**14,2** egonguira] A *egon guira*. || hori ezpaliz] A *hori ezpaliz hala* Bk zuzenketa kontziente dagiela dirudi; cf. Sacy *si cela n'était* : Ost *si cela n'était pas* : Lç *baldin bercela baliz* : TB *ez baliz içan hala* : HeH *baldin bertcela baliz*. **14,14** deicet] A B *deitciet*. **14,23** harec] A B *harc*. **14,24** enaianac] A *ceraianac*; cf. TB *maite ez nauenac* : HeH *Niri on eztaritçatanac*. **14,30** cieki] A *cie-cieki* lerroartean.

## XV. CAPITULIA

<sup>1</sup> «Ni aihen eguiazcoua niz, eta Aita bigniera da.

<sup>2</sup> Nitan fruta ekhartan eztian tcherment adarrac oro khentcen dutu; eta fruta ekhartan dian adarrac oro mouzten dutu, amorecatic fruta haboro ekhar decen.

<sup>3</sup> Ciec deja chahu cirade, nic erran dudan elhiagatic.

<sup>4</sup> Egon citiae nitan, eta ni cietan. Noula tchermentac ezpeitu berartçaz ekhartan ahal frutaric, aihen ondouan egoiten ezpada, ber gaiça da cietçaz, ezpacirade egoiten nitan.

<sup>5</sup> Ni aihen ondoua niz, eta ciec adarrac; nitan dagoenac, eta ni hartan, harec ekhartan du fruta hanitx, ceren ni gabe ecin diocie deus ere.

<sup>6</sup> Nitan eztagoguena egotchiric içanen da, adar ezdeus bat beçala; eta eihartu datekienian, bilduric, suialat ourthoukico die, eta erreco da.

<sup>7</sup> Nitan egoiten bacirade, eta ene elhiac cietan badaude, nahi ducienac oro galthatcen ahal dutucie, eta emanic içanen çaitcie.

<sup>8</sup> Hountan ene aita lorificaturic da, ekhar deçaciens fruta hanitx, eta ordian ene dicipuliac ciateke.

<sup>9</sup> Ni Aitac maithatu naian beçala maite çutiet; egon citiae ene amoriouan.

<sup>10</sup> Ene maniac beguiratcen badutucie, egonen cirade ene amouriouan.

---

<sup>1</sup> *bigniera*: ‘vignerons’; ez du sarrerarik OEHn, baina Ürrütireن pasarte hau AIHEN sarreran da emana. Bestenaz, cf. *Ni naiz aihen eguiazcoa, eta ene Aita da mahastiçaina* Lç; *Eguiazco mahax hondoa naiz, eta ene Aita bignia da*. TB; *Ni aihen eguiazcoa naiz, eta ene Aita da mahasti çaina* HeH; *Je suis la vraie vigne, et mon Père est le vigneron*. Sacy; *Je suis le vrai cep, et mon Père est le vigneron*. Ost.

<sup>4</sup> *cietçaz*: 1873ko edizioko *cietiaz* huts tipografikoa 1888koan *cietaz* batekin zuzendu nahi izan dute; kontua da Ürrütik erregularzki ematen duela instrumentalaren *-tzaz*, eta behin ere ez *-taz*: *hartçaz* 1,15, *çouintçaz* 1,15, *cihaurçaz* 1,22, *hortçaz* 5,28, *nihaurçaz* 5,30, *nitçaz* 5,36, *berartzaz* 7,18, *cietçaz* 8,26, *certçaz* 10,6, *hountçaz* 10,41, *cietçaz orotçaz* 13,18, *nourtçaz* 13,24.

<sup>5</sup> *diocie*: \*iron aditzaren forma, ‘dezakezue’ baliokoa. Hemen erremarkagarria da \*iron aditz nagusirik gabe agertzea, edo bera aditz nagusi —sintetiko— bailitzan; erabilpen hori ongi lekukotua da *pouvoir* aditzaren ordain gisara, *ne pouvoir rien* bezalako ideien adierazpenean (Padilla-Moyano 2013: 152-153). Lafitterentzat elipsia litzateke, «surtout aux formes qui traduisent le verbe “pouvoir” : *Eman nezokek gogotik, bainan ez ziroiat* “je le lui donnerais volontiers, mais je ne puis”» (1944: § 597). Cf. *ez diroqueçue deus eguin* TB; *ecin daidiçue deus* Lç, HeH.

<sup>11</sup> Erraiten deitciet gaiça horic ene boztarioua egon dadin cien beithan, eta cien boztarioua içan dadin handi eta perfeít.

<sup>12</sup> Hau da ene mania: maitha deçacien alkhar, nic maithatu çutiedan beçala.

<sup>13</sup> Ihourc ere eztu amorio handiago bat hounec beno, nouriz ere nourbaitec emaiten beitu bere bicia bere adiskiden.

<sup>14</sup> Ciec ene adiskidiac cirateke, eguiten badutucie nic erranac.

<sup>15</sup> Etçutiet hebetik harat cerbutchari deitcen, ceren cerbutchariac eztaki cer eguiten dian bere naussiac; bena ene adiskidiac deitcen çutiet, ceren ene Aitaganic entçun dutudanac oro, erakatxi beteitciet.

<sup>16</sup> Enaicie ciec haitatu, bena nic haitatu çutiet ciec, jouan citaien eta ekhar deçacien fruta hanitx, eta cien fruta içan dadin bethierecoz, eta ene Aitac eman ditçatcien, ene icenian galthatcen dutucien gaiçac oro.

<sup>17</sup> Manatcen deiciet gaiça hau: alkhar maitha deçacien.

<sup>18</sup> Mundiac huguntcen baçutie, jakin eçacie hugunturic içan niçala ciec beno lehen.

<sup>19</sup> Mundu hountaco içan baçinaude, mundiac maite dutu haren direnac; bena etciradelacoz munduco, eta haitatu çutiedalacoz mundutic, hartacoz mundiac huguntcen çutie.

<sup>20</sup> Orhit citaie nic erran deitciedan elhez: cerbutcharia eztela bere buruçaglia bena handiago. Bardin ni gaizki erabili banaie, ciec ere ber guisan erabilico çutie, eta bardin ene elhia beguiratcen badie, ciena ere beguiratuko die.

<sup>21</sup> Bena horic oro eguienen deitcie ene icenagatic, ceren ezpeitcie eçagutcen ni igorri naiana.

<sup>22</sup> Ezpanintz ni jin, eta berer mintçatu ezpanintz, eliateke oguendun; bena orai eztie eskusaric beren oguenez.

<sup>23</sup> Ni huguntcen naianac, ene Aita ere huguntcen du.

<sup>24</sup> Ezpanutu eguiñ haien aitcinian ihourc ere eguiñ eztutian obrac, elukete bekhaturic; bena orai ikhoussi dutie, eta halaric ere huguntu naie ni eta ene Aita.

<sup>25</sup> Bena coumpli dadin haien leguiān izkiribaturic den elhia: “Huguntu naie arrazouric gabe”.

<sup>26</sup> Bena consolaçalia jin datekienian, çouin igorrico beteiciet ene Aitaren phartez, çouin beita eguiazco ezpiritua, ene Aitaganic dena, harec jakitate errendatuco du nitçaz.

<sup>27</sup> Eta ciec ere jakile cirateke, ceren hastetic eneki beitcirade».

**15,4** aihen ondouan egoiten ezpada] A *aihen ondouan egoiten*; cf. Sacy si elle ne demeure attachée au cep de la vigne : Ost s'il ne demeure attaché au cep : Lç baldin aihenean ezpadago : TB ez bada mahax hondoan egoiten : HeH baldin ezpadatcheco aihenari. || cietçaz] A *cietaz* : B *cietaz* ikus testuan orrieko oharra. **15,10**

<sup>13</sup> *bere adiskiden*: genitiboak motiboa edo zioa adierazten du, ez kausa hertsia; cf. *bere adisquideacgatic* Lç; *bere adisquidentçat* TB; *bere adisquideentçat* HeH; pour ses amis Sacy, Ost.

<sup>19</sup> *içan baçinaude*: ‘izan bazinate’; ikus *baciaude* 8,39 eta bertako oharra.

<sup>20</sup> *bardin*: ikus *bardin* 5,31.

<sup>24</sup> *elukete*: zubereraz *ez liikeie* espero genuke, eta Ürrütiren hizkeran eta grafian *elukie*.

Bk ments du berset hau. **15,13** nouiz] A *nouriz*. **15,15** cerbutchariac] A B *cerbuchariac* corpusean ez da *zerbüx-aldaeraren igurzkariaren arrastorik*. **15,17** deicet] A B *deitciet*. **15,22** berer] A B *berez* moldiztegian Ürrütiren izkirioaren hitz bukaerako <r> → <z> bihurtu zuketen; cf. *et que je ne leur eusse point parlé* Sacy; *et que je ne leur eusse pas parlé* Ost; *berey minçatu ezpaninçaye* Lç; *ez banintzeite mintçatu* TB; *berei mintçatu ezpanintçiae* HeH. Ikus *horier* 6,5 formaren ohar paleografikoa. **15,25** Bena coumpli] B *Coumpli*; cf. Ost *Mais c'est ainsi que la parole qui est écrite dans leur loi a été accomplie* : TB *Bainan heyen leguean izcribaturic den hitça cumplitua içaitecotçat da* : HeH *Alabainan bethe beharra cen beren leguean isquiribatua duten hitça*.

## XVI. CAPITULIA

<sup>1</sup> «Erraiten deitciet gaiça horic, amoregatic etcitaien khordoca gaizbidiagatic.

<sup>2</sup> Igorrico çutie synagoguetaric; eta dembora jinen da ere, noun çougneç ere hileraztenbeitçutie, ouste beituke Jincoua cerbutchatcen diala.

<sup>3</sup> Eta eguinen deitcie gaiça horic, ceren ezpeitie eçagutu ez ene Aita, eta ez ni.

<sup>4</sup> Bena erran deitciet gaiça horic, amoregatic, orena jin datekienian, orhit citaien erran deitciedala. Ezteitciet erran gaiça horic hastetic, ceren eta cieki benintçan;

<sup>5</sup> bena orai banoua igorri naianarenganat, eta ciitaric batec ere ezteit galthatcen: “Nouat çouaça?”

<sup>6</sup> Bena erran deitciedalacoz gaiça horic cien bihotça tristeciac bethe du.

<sup>7</sup> Arastan erraiten deicet egquia: Cien houna da ni jouan nadin, ceren ezpaniz jouaiten, consolaçalia etçaicie jinen; bena jouaiten baniz igorrico deicet.

<sup>8</sup> Eta jin datekienian, arguituco du mundia bekhatiaz, justiciaz, eta jujamentiaz:

<sup>9</sup> bekhatiaz, ceren ezpeitie sinhesten nitan;

<sup>10</sup> justiciaz, ceren ene Aitaganat benoua, eta ezpenaicie haboro ikhousico;

<sup>11</sup> jujamentiaz, ceren eta mundu hountaco princia deja jujaturic beita.

<sup>12</sup> Badut orano beste gaiça hanitx cier erraiteco, bena eztucie orano enthelegatcen ahal.

<sup>13</sup> Bena nouiz ere houra, erran nahi beita eguiazco Espiritia, jin datekienian, guidatuco çutie egquia orotan; ceren ezpeita mintçatuco berartçaz, bena erranen dutu entçun dutianac oro, eta annontçatuco deitcie guero jinen diren gaiçac.

<sup>14</sup> Harec lorificatuco nai, ceren hartuco beitu enetic, eta annontçatuco deitcie cier.

<sup>15</sup> Ene Aitac dutianac oro eniac dirade; hartacoz erran deicet hartuco diala enetic, eta annontçatuco deitcie cier.

<sup>16</sup> Dembora laburren burian enaicie haboro ikhoussico; eta dembora bouchi baten ondouan berriz ikhoussico naicie, ceren benoua ene Aitaganat».

---

<sup>13</sup> *erran nahi beita eguiazco Espiritia*: azalpenezko egituraren iturria Ostervalden bertsioak behar du izan; cf. *Quand cet Esprit de vérité sera venu* Sacy; *Mais quand celui-là sera venu, savoir, l'Esprit de vérité* Ost; *Baina dathorrenean hura, Spiritu eguiazcoa, diot Lç*; *Bainan noiz ere hura ethorri baita, eguiçco [sic] Izpiritua* TB; *Bainan dathorrenean eguiazcoo Ispiritu hura* HeH.

<sup>17</sup> Hortan gagnen, dicipulietaric çouimbaitec erraiten cien beren artian: «Cer erraiten deiku, “Dembora labur baten burian enaicie haboro ikhoussico, eta dembora bouchi baten burian berriz ikhoussico naicie, ceren Aitaganat benoua”?»

<sup>18</sup> Erraiten cien aren: «Cer erran nahi du hitz horic, “dembora labur bat”? Eztakigu cer erran nahi dian».

<sup>19</sup> Eta Jesusec, eçagutuz interrogatu nahi ciela, erran ceren: «Galthatcen ducie alkharren artian nic erran dudanaren gagnen: “Dembora laburren burian enaicie haboro ikhoussico, eta dembora bouchi baten burian berriz ikhoussico naicie”.

<sup>20</sup> Eguiazki, eguiazki erraiten deiciet: Nigar egunen ducie eta tristecian cirateke, eta mundia boztariouan date. Ciec triste ciratekela erraiten deiciet, bena cien tristecia khambiatuco da boztarioualat.

<sup>21</sup> Emazte batec haur bat mundian eşarten dianian, dolore senditzen du, ceren haren muga heltu beita; bena seme bat sorthu dianian, ezta haboro orhit bere minez, hain beita boztariouan guion bat mundian eşarri dialacoz.

<sup>22</sup> Ciec ere baducie orai tristecia; bena ikhoussico çutiet orano, eta cien bihotça boztariouan date, eta ihourc ere ezteicie idekico cien boztarioua.

<sup>23</sup> Eta egun hartan enaicie interrogatuco deusetan ere. Eguiazki, eguiazki erraiten deiciet, galthatcen dutucien gaiçac oro ene Aitari ene icenian, emanen deitciela.

<sup>24</sup> Orai artino eztucie deus ere galthatu ene icenian; galtha eşacie eta ukhenen ducie, amoregatic cien boztarioua içan dadin bethia eta perfeita.

<sup>25</sup> Erran deiciet gaiça horic uduripenez; bena huillan da orena, nouiz ere ezpenitçatcie uduripenez mintçatuco, bena mintçatuco nitçacie clarki ene Aitaz.

<sup>26</sup> Egun hartan galthaturen ducie ene icenian eta ezteiciet erraiten othoituko dudala ene Aita ciengatic.

<sup>27</sup> Ceren Aitac berac maite çutie, ceren maithatu benaicie ni, eta sinhetxi beitucie Jincouaganic elkhi niçala.

<sup>28</sup> Aitaganic elkhi niz, eta jin niz mundiala; eta orano uzten dut mundia, eta berriz banoua Aitaganat».

<sup>29</sup> Bere dicipuliec erran ceren: «Horra orai mintço cira clarki, eta etcira haboro mintço uduripenez.

<sup>30</sup> Eçagutzen dugu orai gaiçac oro badakitçula, eta eztuçula beharric ihourc ere interroga citçan; hortaric agueri çaicu Jincouaganic jinic cirela».

---

<sup>21</sup> *Emazte batec haur bat mundian eşarten dianian*: Ürrütik libertatez itzultzen du; cf. *Une femme lorsqu'elle enfante* Sacy; *Quand une femme accouche* Ost; *Emazteac, ertzen denean* Lç; *Emazte batec erditzen denean* TB; *Emaztez batec, erdi behar denean* HeH.

<sup>30</sup> *agueri çaicu*: bertset honetan Ürrüti Haraneder-Harrietengandik hurbilenik dabil; cf. *c'est pour cela que nous croyons que vous êtes sorti de Dieu* Sacy; *c'est pour cela que nous croyons que tu es issu de Dieu* Ost; *Huneçaz diagu sinhesten, ecen Iaincoaganic ilki aicela* Lç; *Hori dela casu sinhesten dugu Jaincoa ganic sorthua çarela* TB; *hortaric agueri çaicu Iaincoa ganic ilkhia çarela* HeH.

<sup>31</sup> Jesusec erran ceren: «Sinhisten ducieia orai?

<sup>32</sup> Orena jiten da, eta deja jinic da, barreiaturic içanen beitcirade bakhota bere aldialat, eta utcico naicie nihau; bena eniz nihau, ceren Aita eneki beita.

<sup>33</sup> Erran deitciet gaiça horic, ukhen deçacien bakia nitan. Phena hanitx badukecie mundu hountan, bena coraje ukhen eçacie; nic mundia garhaitu dut».

**16,1** deitciet] A B *deiciet*. **16,13** diren] A B *dire*. **16,19** eşagutuz] A *eçugutuz*. || alkharren] A *alkharen*. **16,25** deitciet] A B *deiciet*. || uduripenez mintçatuco, bena mintçatuco nitçaacie] A *uduripenez mintçatuco nitçaacie*. **16,30** çaicu] A *çaiçu*; cf. Sacy *c'est pour cela que nous croyons que vous êtes sorti de Dieu : Ost c'est pour cela que nous croyons que tu es issu de Dieu* : Lç *Huneçaz diagu sinhesten, ecen Iaincoaganic ilki aicela* : TB *Hori dela casu sinhesten dugu Jaincoa ganic sorthua çarela* : HeH *hortaric agueri çaicu Iaincoa ganic ilkhia çarela*. **16,31** Jesusec erran ceren] A *Jesusec erran ceren* : B *Eta erran ceren*. || ducieia] A *deicieia* B *deicie* moldiztegian Ürrütireن izkirioko <u> → <ie> bihurtu zuketen; errakuntza analogo batentzat ikus *çutiedan* 13,34 formaren ohar paleografikoa.

## XVII. CAPITULIA

<sup>1</sup> Jesusec, gaiça horic erran ondouan, goitiu çutian beguiac celialat, eta erran cian: «Aita, orena heltu da; lorifica eçaçu çoure semia, çoure semiac ere lorifica citçan.

<sup>2</sup> Noula eman beteioçu indarra guiçonen ororen gagnen, hala harec eman dicen bethiereco bicitcia eman deitçoçun orori.

<sup>3</sup> Eta hau da bethiereco bicitcia, eşagut citcen çu, eguiazco Jinco bakhota, eta Jesus-Krist çuc igorri duçuna.

<sup>4</sup> Lorificatu çutut lurraren gagnen, eta eguin dutut çuc eman deiztatçun obrac.

<sup>5</sup> Eta orai lorifica neçaçu çuc, Aita, çoure khantian, çoure etchen ukhen dudan loriaz, mundia eguin içan cen beno lehen.

<sup>6</sup> Eşaguteraci dut çoure icena mundutic eman deiztadatçun/guiçonez; çouriac ciren, eta eni eman deiztadatçu, eta çoure elhia beguiratu die.

<sup>7</sup> Orai eşagutu die eman deiztadatçunac oro çoureganic jiten direla.

<sup>8</sup> Ceren eman deitcet çuc eman deiztadatçun elhiac, eta errecebitu dutie, eta eguiazki sinhestxi die çoureganic jinic niçala.

<sup>9</sup> Othoitcen çutut hoien; etçutut othoitcen mundiaren, bena çuc eman deiztadaçunen, ceren çouriac beitira.

<sup>31</sup> *sinhesten ducieia orai?*: 1873ko edizioak *deicieia* dakar, eta 1888koak *deicie*, galdera morfemarik gabe; ikus beherago ohar paleografikoa. Horrezaz landara, TBn izan ezik, gainerako bertsioetan galdera datza: *sinhesten deicieia orai?* EvS 1873; *sinhesten deicie orai*. EvS 1888; *Vous croyez maintenant ?* Sacy; *Croyez-vous maintenant ?* Ost; *Orain sinhesten duçue?* Lç; *Sinhesten duçue orai*? HeH.

<sup>8</sup> Ürrütik ez du bertset honen azken perpausa itzuli; cf. *et ils ont cru que vous m'avez envoyé*. Sacy; *et ils ont cru que tu m'as envoyé*. Ost; *eta sinhetsi dié ecen hicigorri nauala*. Lç; *eta sinhetsi dute çuc egorri nauçula*. TB; *eta sinhetsi dute çuc egorri nauçula*. HeH.

<sup>8</sup> *sinhestxi*: ikus *sinhestx* 13,19.

<sup>10</sup> Eta eniac direnac oro çouriac dirade, eta çouriac ene, eta hetan lorificaturic niz.

<sup>11</sup> Eta orai eniz haboro mundian, bena horic mundian dira, eta ni banoua çoureganat. Aita Saintia, beguira itçaçu çoure icenian eman deiztadatçunac, alkharreki bat içan ditian, çu eta ni bat guiren beçala.

<sup>12</sup> Heki nintçano mundian, nic beguiratcen nutian çoure icenian. Eman deiztadatçunac beguiratu dutut, eta hetaric bat ere ezta galdu, galtçapenaren semia baicic, izkiribia complituric içan dadin.

<sup>13</sup> Eta orai jiten niz çoureganat, eta erraiten deitciet gaiça horic mundian niçalaric, ukhen decen ene boztarioua beren beithan.

<sup>14</sup> Eman deiet çoure Elhia, eta mundiac huguntu dutu, ceren ezpeitira munducouac, hala noula ezpeniz munducoua.

<sup>15</sup> Etçutut othoitcen idoki ditçaçun mundutic, bena beguira ditçaçun gaitcetic.

<sup>16</sup> Eztira munducouac, hala noula ezpeniz munducoua.

<sup>17</sup> Santifica itçaçu çoure eguiaz, çoure Elhia egua bera da.

<sup>18</sup> Noula igorri benaiçu mundiala, ber guisan nic ere igorten dutut mundiala.

<sup>19</sup> Eta santificatecen niz nihau haientaco, hourac ere saintu içan ditian eguijan.

<sup>20</sup> Etçutut othoitcen haien beren, bena orano haien elhez nitan sinhesten direnen ororen,

<sup>21</sup> amoregatic oro içan ditian bat, hala noula çu, Aita, nitan beitcira, eta ni çutan, hourac ere içan ditian bat gutan, eta mundiac sinhetx deçan çu cirela igorri naiçuna.

<sup>22</sup> Çuc eni eman deitadaçun dohatxutarçuna, nic ere eman deret haier, amoregatic içan ditian bat gutan, eta mundiac sinhetx deçan çuc igorri naiçula.

<sup>23</sup> Ni haietan niz, eta çu nitan, amoregatic oro bat içan ditian, eta mundiac eçagutu deçan çuc igorri naiçula, eta maite dutuçula maithatu naiçun beçala.

<sup>24</sup> Ene Aita, ene nahikhentia duçu, noun ere içanen beniz, han içan ditian eneki eman deiztadatçunac, amoregatic ikhous decen ene loria eman deitadaçuna, ceren maithatu benaiçu mundia creatu beno lehen.

<sup>25</sup> Aita justoua, mundiac etçetu eçagutu; bena nic eçagutu çutut, eta horiec eçagutu die çuc igorriric niçala.

<sup>26</sup> Eta eçaguteraci deiet çoure icena, eta eçaguteracico deiet orano, amoregatic amorio çouintçaz maithatu benaiçu hetan içan dadin, eta ni hetan».

<sup>9</sup> *hoien ... mundiareñ ... deitztadaçunen*: genitiboaren morfema soilak balio motibatiboa adierazten du; cf. *C'est pour eux que je prie. Je ne prie point pour le monde, mais pour ceux que vous m'avez donnés* Sacy; *hekbatik / munduagatik / drauzquidanagatic* Lç; *heyentçat / munduarentçat / derauztatçumentçat* TB; *Hequientçat / munduarentçat / darozquidatçunen gatic* HeH. Genitibo biluziaz adieraztea Ürrütiren hautu kontzientea da, euskarazko iturriek -gatik edo -tzat morfemak ematen baitituzte.

<sup>19</sup> *haientaco*: ikus çouretaco 13,37 eta bertako oharra.

<sup>24</sup> *nahikhentia*: “Documentado al Norte desde mediados del s. XVII y al Sur desde mediados del s. XVIII. La forma más general es *nahikunde*, salvo en suletino, donde hay mayoritariamente *nahikiunte* y, menos frec., *nahikenti(a)*, *nahikiunte* y *nahikiündü*” (OEH, s.v. NAHIKUNDE).

**17,11** guiren] A *guicen*. **17,13** eta erraiten] B *erraiten*. || boztarioua] A *boztariou*. **17,14** huguntu dutu] A *huguntu*; cf. Ost *le monde les a haïs* : Lç *munduac hec gaitzetsi ukan citic* : TB *munduac higuindu ditu* : HeH *munduac gaitcetsi ditu*. **17,21** mundiac] A B *mundian*; cf. Ost *et que le monde croie* : Lç *sinhets deçançat munduac* : TB *munduac sinhets deçan* : HeH *sinhets deçantçat munduac*. **17,24** deiztadatçunac] A *deistadatçunac*. **17,26** deiet] A *diet*.

## XVIII. CAPITULIA

<sup>1</sup> Jesusec gaiça horic erran ondouan, jouan cen bere dicipulieki Cedroneco errecaren beste aldiala, noun beitcen baratce bat, eta han sarthu cen bere dicipulieki.

<sup>2</sup> Eta Judasec ere, çougnec trahitcen beitcian, eşagutcen cian lekhu hora, ceren Jesus içan cen ussu bere dicipulieki.

<sup>3</sup> Judasec, aren, harturic soldado coumpagna bat eta sargent çoumbait sakrificaçale buruçaguien eta pharisienen phartez, jin cen hara lanterna edo tortcha çoumbaiteki, eta armac harturic.

<sup>4</sup> Bena Jesusec beitçakitçan heltu behar ceitçon gaiçac oro, aitcinaturic erran ceren: «Nour tcherkhacen duçie?»

<sup>5</sup> Ihardetxi ceren: «Jesus Nazaretecoua». Jesusec erran ceren: «Ni niz». Eta Judas, çougnec ere trahitcen beitcian, haieki cen.

<sup>6</sup> Eta Jesusec erran cerenian «Ni niz», guibeltu ciren, eta erori lurrialat.

<sup>7</sup> Galthatu ceren orano behin: «Nour tcherkhacen ducie?» Eta arrapostu eman ceren: «Jesus Nazaretecoua».

<sup>8</sup> Jesusec arrapostu eman ceren: «Erran deiciet ni niçala; aren, ni banaicie tcherkhacen, utzitçatcie horic jouaitera,

<sup>9</sup> amoregatic elhe hori complituric içan dadin: “Eztut galdu bat ere eman deiztadatçunetaric”».

---

<sup>26</sup> *deiet*: 1873 *diet*; 1888 *deiet*. Bitan perpaus berean. Zuberoako tradizioan *dio* moldeko forma uzkurtuak lekukotu dira, baina Ürrütiren testuan bada *deye* 1,12, *deie* 6,31, *deiet* 17,4 gehi *deio-* itxuraren hogei bat agerraldi; gainerakoan, orainaldi *dio-* guztiak ‘erran’ adierakoak dira.

<sup>3</sup> Ürrütik Ostervaldenetik itzuli duke bertset hau; TBren egileak ere bertsio hori segitu zukeen, hautu lexiko bereiziak egunik: *Judas ayant donc pris avec lui une compagnie de soldats, et des gens envoyés par les princes des prêtres et par les pharisiens* Sacy; *Judas ayant donc pris une compagnie de soldats et des sergents, de la part des principaux sacrificeurs et des Pharisiens* Ost; *Iudas bada harturic soldadozco bandabat, eta Sacrificadore principaletaric eta Pharisuetaric officierac* Lç; *Judasec beraz harturic soldado lagunquida bat, eta sargent batçu Sacrificatçaire buruzaguien-éta Pharisauen phartez* TB; *Iudasec beraz, harturic soldado andana bat, eta Aphez-nausiec eta Pharisauec emanicaco guïçon batçu* HeH.

<sup>3</sup> *sakrificaçale*: 1873ko edizioan bitan ageri da <sakrifica-> grafia: 1,19 & 18,3, vs hiru aldiz <sacrifica-> 7,32, 7,45 & 18,10. 1888ko edizioan <sakrifica-> bakarra utzi dute: 1,19.

<sup>8</sup> *utzitçatcie*: Ürrütik behin erabili du *utci* aditzoina (11,44), eta beste behin *utz* (12,7), eta horren arabera hemen berdin irakur liteke *utz itçatcie* ala *utzi itçatcie*. Aldiz, <tz> grafia *utz* aditzoinaren formaren alde doa, zeren eta <utci> sei aldiz ageri baita, vs <utzi> bakar litekeen hauxe.

<sup>10</sup> Ordian Simon Pierrac, ezpata bat beitcian, ideki cian, eta sacrificiale buruçaguiaren cerbutchari bat jo cian, eta mouztu ceion escougneco beharria; eta cerbutchari hora Malchuz deitcen cen.

<sup>11</sup> Bena Jesusec erran ceion Pierrari: «Eçarçu çoure ezpata bere foraduran; ala Aitac eman deitadan calitça ez othe dut behar edan?»

<sup>12</sup> Ordian soldadouec eta capitagnac, eta sarjantec lothuric Jesusi, estecatu cien.

<sup>13</sup> Eta eraman cien lehenic Anasgana, ceren Caïphasen aitaguiharreba beitcen, eta ourthe hartaco aphez buruçaguia beitcen.

<sup>14</sup> Eta Caïphas hora bera cen, erran ciana judiouer hobe cela guiçon bakhotx bat hil ledin populiaren.

<sup>15</sup> Simon Pierra eta beste dicipulu bat jarraiki cien Jesusi; eta beste dicipulu hora, aphez-handiaren eçaguna beitcen, sarthu cen aphez-handiaren basa courtian.

<sup>16</sup> Eta noula Pierra bortha alde campouanbeitçagouen, beste dicipulu aphez-handiaz eçaguturic cen, hora elkhi cen, eta mintçaturic borthaçain cen emaztiari, sarraraci cian Pierra.

<sup>17</sup> Eta emazte borthaçain harec erran cian Pierrari: «Etcira çu ere guiçon hounen dicipulietaric?» Erran cion: «Eniz hetaric».

<sup>18</sup> Cerbutchariac eta Jesus hartu cien jentiac su aitcinian cien, hotz eguiten beitcian; Pierra ere haieki cen berotcen.

<sup>19</sup> Eta aphez-handiac interrogatu cian Jesus bere dicipuliez eta bere doctrinaz.

<sup>20</sup> Jesusec arrapostu eman cion: «Ni clarki mintçatu nitçaio mundiari; bethi erakatxi dut synagogan eta templian, noun judiouac biltcen beitira, eta eztut deus ere erran segretian.

<sup>21</sup> Cergatic galthatcen naiçu ni? Galtha itçatçu ni entçun naianac; hec badakie cer erran dudan».

<sup>22</sup> Hoi erran cianian, sarjant han cenetaric batec eman ceion açote colpe bat, erraiten ceolaric: «Hola ducia arrapostu emaiten aphez-handiari?»

<sup>23</sup> Jesusec erran ceron: «Gaizki mintçatu baniz, erakhoutx eçaçu cer gaizki erran dudan; eta ountxa mintçatu baniz, cergatic joiten naiçu?»

<sup>24</sup> Ordian Annac igorri cian estecaturic Caiphas aphez-handi buruçaguiagana.

---

<sup>10</sup> *Malchuz*: Ürrütik grafia etimologikoa erabili du; cf. fr. *Malchus* → *Malchus* Lç, TB; *Malkhus* HeH.

<sup>11</sup> *foraduran*: ‘ezpataren mainan’. Lapurdin, Zaraitzun, Zuberoan eta Erronkarin ezaguna; Larrasquetek *foradura* aldaera bildu du (*OEH*, s.v. FORRADURA).

<sup>15</sup> *basa courtian*: Sacyk eta Ostervaldek *la cour de la maison* dakarte, eta Genevako Bibliaren 1669ko bertsioak *sale*; beste hainbat frantses itzulpenetan ez dut inon *basse-cour* hitza atzman; Leizarragak *salán*, HeHk *ezcaratcean*, eta TBk *bassacortean*. “Patio; corral”, Zuberoan *basakurt* aldaera ezaguna da (*OEH*, s.v. BASAKURTE); Lhandek *basakorte* jaso du lapurteraz eta nafarreraz, eta *basakurt* zubereraz (s.v. BASAKORTE). Cf. fr. *basse-cour*: 1. “Cour intérieure d'une forteresse”; 2. “Cour distincte de la cour principale, où se trouvent les écuries et les dépendances” (TLFi, s.v. BASSE-COUR).

<sup>21</sup> *naianac*: *naienac* ‘nautenak’ igurikatzen genuke; cf. *ceux qui m'ont entendu*. Ikus *cenetaric* ‘zirenetarik’ 12,2.

<sup>25</sup> Eta Simon Pierra su khantian cen berotcen; eta erran ceren: «Etçira çu ere haren dicipulietaric?» Ukhatu cian, eta erran: «Eniz hetaric».

<sup>26</sup> Galthatcen deio guero aphez-handi buruçaguiaren cerbutchari batec, Pierrac beharria mouztu cianaren haskaci bat cen ere: «Etçututa nic çu baratcian horreki ikhoussi?»

<sup>27</sup> Bena Pierrac ukhatu cian orano, eta ber demboran oillarac khantatu cian.

<sup>28</sup> Guero eraman cien Jesus Caiphasen etchetic Gobernadoriaren jaureguiala. Goiça cen; eta berac etciren sarthu jaureguian, lotxaz theyu litian, eta elecen jan ahal Bazcoua.

<sup>29</sup> Hartacoz Pilatus elkhi cen hetara, eta erran ceren: «Cer acusacione ekhartent ducie giçon hounen countre?»

<sup>30</sup> Arrapostu eman ceren hec: «Ezpaliz gaizki eguale bat, ezkeneiçun ekharrico houna».

<sup>31</sup> Pilatusec erran ceren: «Eramacie cihauriec, eta eguiocie cien leguiac diouan beçala». Judiouec erran ceren: «Eztugu guc ihouren hiltceco eskuric».

<sup>32</sup> Eta hori hola heltu cen amoregatic Jesusec erran cian hitça bethe ledin, eçaguterazten ciala cer herioz hil behar cian.

<sup>33</sup> Pilatus sarthu cen berriz jaureguian, eta Jesus deithuric, erran cion: «Judiouen erregua cira?»

<sup>34</sup> Jesusec arrapostu eman cion: «Çoure beithatic diocia hori, ala bestec erranic nitçaz?»

<sup>35</sup> Pilatusec erran cion: «Judio niça ni? Çoure jentec eta aphez-handiec libratu çutie ene eskietara; cer egui duçu?»

<sup>36</sup> Jesusec erran cion: «Ene erresouma ezta mundu hountaco; ene erresouma mundu hountaco baliz, ene jentec enundien utcico judiouen eskietara erortera; bena orai ene erresouma ezta mundu hountaco».

<sup>37</sup> Ordian Pilatusec erran cion: «Erregue cira aren çu?» Jesusec erran cion: «Cihauc erran duçu; erregue niz. Hartacoz sorthu niz, eta hartacoz jin niz mundiala, errenda deçadan jakititia eguiari; eguiaganic denac, entçuten du ene botça».

<sup>38</sup> Pilatusec erran cion: «Cer da egui?» Eta hitz hori erran cian beçain sarri, elkhi cen berriz judiouetara, eta erran ceren: nic eztut crimatic edireiten giçon hountan.

<sup>39</sup> Bena noula costuma bat beitucie criminel bat libra deçadan Bazco bestan, nahi ducieia libra deçadan judiouen erregua?

<sup>40</sup> Ordian hassi ciren oihuz oro alkharreki: «Eztugu nahi hori, bena Barrabas». Eta Barrabas ouhouin bat cen.

**18,3** sarjant] A *sargent*. || sakrificaçale] B *sacrificaçale*. **18,4** ceitçon] A *çeitçon*. **18,12** sarjantec] A B *sarjantac*; cf. Lç *Iduuen officieréc* : Ost; *les sergents des Juifs*. **18,27** demboran] A *cemboran*. **18,39** deçadan] A *deçad an*.

<sup>24</sup> Annac: Ürrütik *Anas gana* eman du (18,13), baina hemen *Anne* frantses formarat hurbildu da; bestenaz, TBko egileak ere *Annac* ematen du, eta Leizarragarekin Haraneder-Harrietek *Anasec*.

<sup>37</sup> *eguiaganic*: animazitatearean marka morfologikoa izen abstratu batekin; cf. *eguiatic* Lç; *eguitic* TB; *eguia ganic* HeH.

## XIX. CAPITULIA

<sup>1</sup> Ordian Pilatusec hartu cian Jesus, eta aço taraci cian.

<sup>2</sup> Eta soldadouec elhorizco khoroua bat egun, ecarri ceren bere burun gagnen, eta jauntxi ceren escarlatazco manto bat.

<sup>3</sup> Guero erraiten ceren: «Salutatcen çutugu, judiouen erregua». Eta beharrondoco emaiten ceren.

<sup>4</sup> Pilatus elkhi cen berriz campouala, eta erran ceren judiouer: «Horra ekhartan deiciet camporat, eçagut deçacien nic eztudala hountan edireiten gaizkirci».

<sup>5</sup> Jesus elkhi cen, elhorizco khoroua burian eta escarlatazco manto bat sougnian, eta Pilatusec erran ceren: «Hori duciela guiçona».

<sup>6</sup> Bena aphez-handiec eta sarjantec ikhousi cienian, hassi ciren oihuz, erraiten cielaric: «Krucifica eçaçu, krucifica eçaçu!» Pilatusec erran ceren: «Har eçacie cihauriec, eta krucifica eçacie, ceren eztut nic gaizkirci edireiten hountan».

<sup>7</sup> Judiouec erran ceren: «Badugu guc legue bat, eta legue haren arauaz hil behar du, ceren bere buria eguiten beitu Jincouaren seme».

<sup>8</sup> Pilatus, hitz horic entçun ondouan, laztu cen orano haboro.

<sup>9</sup> Eta berriz sarthu cen jaureguian, erran ceion Jesusi: «Nounco cira çu?» Bena Jesusec etcian arraposturic batere eman.

<sup>10</sup> Ordian Pilatusec erran cion: «Etçira mintçatcen? Eztakicia badudala çoure krucificatceco photeria, eta çoure libratceco photeria?»

<sup>11</sup> Jesusec erran cion: «Etçunu ke nitan gagnen photereric gutiena ere, gaingotic emanik ezpaleiçu; hortacoz, çouregana libratu naianac çuc beno bekhatu handiagoua egun du».

<sup>12</sup> Hortaric harat Pilatusec tcherkhatcen cian haren libratceco mouyen bat, bena judiouec oihuz erraiten cien: «Libratcen baduçu hau, etcira Cesaren adiskide, ceren erregue eguiten dena Cesaren etxai da».

<sup>13</sup> Pilatusec entçun çutianian hitz horic, elkharaci cian Jesus camporat, jarri cen bere tribunalian, Pavé deitzen den lekhian, eta hebreuez Gabbatha.

<sup>14</sup> Bazcoco preparacioniaren eguna cen, eguerdi ungurunia, eta Pilatusec erran cian judiouer: «Horra cien erregua».

---

<sup>5</sup> *Hori duciela guiçona*: ‘horra gizona’; ikus *hoi duçula* 12,15.

<sup>11</sup> *ezpaleiçu*: \*eradun-en forma dirudi, batuaren ‘ez balizu’ baliokoa; aldiz, gainerako euskaratzeek testuinguruak galdatzen duen izanen datibozko formak dakartzate: *ezpalitzaic* Lç; *ez balauçu* TB; *ezpalitçaitçu* HeH.

<sup>13</sup> *Pavé*: hemen Ürrütik Ostervald jarraitzen du; cf. *Lithostrotos* Sacy; *Pavé Ost*; *Pabadura* Lç; *Pabatua* TB; *Harri Lauçada* HeH.

<sup>13</sup> *tribunalian*: cf. *dans son tribunal* Sacy, Ost; *iar cedin alki iudicialean* Lç; *yarri cen tribunalean* TB; *iarri cen bere alkhan* HeH.

<sup>15</sup> Bena oihuz hassi cien: «Idekaçu, idekaçu, krucifica eçaçu!» Pilatusec erran ceren: «Krucificatuco duta cien erreguia?» Aphez-handiec erran ceren: «Eztugu beste erregueric Cesar baicic».

<sup>16</sup> Ordian libratu ceren Jesus krucificaturic içateco; hartu cien, aren, eta eraman.

<sup>17</sup> Eta Jesus, khurutchiaz cargaturic, jin cen Calbarioua deitcen cen lekhiala, eta hebreuez Golgotha.

<sup>18</sup> Eta han altchatu cien khurutchian, eta beste biga hareki, bi aldetaric, Jesus erdian.

<sup>19</sup> Pilatusec eguinlaraci cian ere izkiribu bat, eta buriaren alde gagnian eçarraraci cian, eta izkiribu hartan hitz horic ciren: «Jesus Nazaretharra, judiouen erreguia».

<sup>20</sup> Hanitx judioc iracourri cien izkiribu hora, ceren Jesus krucificaturic içan cen lekhia huillan beitcen hiritic; eta izkiribu hora hebreuez, greclez, eta latiz beitcen.

<sup>21</sup> Hortacoz, judiouen aphez-handiec erran cien Pilatusi: «Ezteçaçula eçar “Judiouen erreguia”, bena hounec erran diala “Judiouen erreguia niz”».

<sup>22</sup> Pilatusec arrapostu eman ceren: «Izkiribatu dudana, bego izkiribaturic».

<sup>23</sup> Jesus krucificatu ondouan, soldadouec hartu çutien haren çougnecouac, eta eçarri çutien laur pharphetan, bakhotchac pharte bat ukhen leçan. Hartu cien ere souin gagnecoua, bena etcian jostaturic, pheça ossoz cen gagnetic piala.

<sup>24</sup> Erran cien alkharri: «Ezteçagun urra, bena deçagun chortian nouren içanen den jakin». Amoregatic izkiribia içan dadin complitiruc: «Ene sougnecouac phartitu dutie beren artian, eta ene souin gagnecoua chortian eçarri die», soldadouec hoi eguien cien.

<sup>25</sup> Jesusek kurutchiaren khantian cen haren ama eta haren amaren ahizpa, Maria Cleophasen emaztia, eta Maria Magdalena.

<sup>26</sup> Jesusec ikuoussiric bere ama, eta haren khantian bere dicipulu maite ciana, erran cian bere amari: «Emaztia, horra çoure semia».

<sup>27</sup> Guero erran cian dicipuliari: «Horra çoure ama». Eta oren hartan berian, dicipulu harec hartu cian bere etchian.

<sup>28</sup> Hortaric landa, Jesusec beitçakian gaiçac oro complituric cirela, amoregatic izkiribia içan ledin complituric, erran cian: «Egarri niz».

<sup>29</sup> Eta noula beitcen han ountci bat minagrez betheric, soldado batec espounja bat trempatu cian eta eçarri isopo adar baten phuntan, eta presentatu ceion ahouala.

---

<sup>20</sup> *latiz*: /lat̪is/; gogora bedi Zuberoan bokal oxitona sudurkaria duela.

<sup>21</sup> *erran diala*: jusibozko balioa adierazten duen \**edun* aditz laguntzailearen subjuntibozko forma, euskara batuan ‘erran dezala’ edo ‘erran beza’.

<sup>24</sup> *nouren*: jakina, kasu benefaktiboaren balioa adierazten du; cf. *norentçat* TB, HeH.

<sup>29</sup> *soldado batec*: Ürrütik Sacy jarraitzen du; cf. *les soldats en emplirent* Sacy vs *Ils emplirent* Ost.

<sup>29</sup> *presentatu*: Ürrütik frantsesaren hautu lexikoa atxikitzen du; cf. *la lui présentèrent à la bouche* Sacy, Ost; *presenta cieçoten ahorat* Lç; *alderatu cioten ahorat* TB; *ekharri cioten ahorat* HeH.

<sup>30</sup> Jesusec minagria hartu cian beçain sarri, erran cion: «Gaiçac oro complituristic dira». Eta buria aphalcen çialaric, eman cian azken hatxa.

<sup>31</sup> Judiouec ordian lotxaz khorpitza egon ledin khurutchen gagnen errepausuko egunian, ceren preparacioneco mezpera beitcen, eta errepausuko egun hora besta handi bat beitcen, ohoitu cien Pilatus çankhouac hautxaraz litçon, eta hantic elkhazar.

<sup>32</sup> Soldadouac jinic, hautxe ceitcen çankhouac lehenari, eta ber gaiça bestiari, Jesuseki krucificaturic ciener.

<sup>33</sup> Guero jinic Jesusgana, eta ikhousiric deja hilic cela, etceitçon çankhouac hautxe,

<sup>34</sup> bena soldadouetaric batec lantça tchista batez saihetxa igaran ceion, eta berhala odol eta hour elki ceion.

<sup>35</sup> Eta ikhoussi dianac jakitate errendatu du, eta haren jakitatia egua da, eta badaki harec egua erraiten diala, sinhetx deçacien ciec ere.

<sup>36</sup> Gaiça horic heltu dira, izkiribia complituristic içan dadin: «Haren eçurretaric bat ezta hautxeric içanen».

<sup>37</sup> Hala noula beitio ere beste izkiribu batec: «Ikhoussiren die berec cilatu diena».

<sup>38</sup> Gaiça horien ondouan, Joseph Arimathecouac (çouin beitcen Jesusen dicipulu, bena ichilic, judiouen lotxaz) ohoitu cian Pilatus Jesusen khorpitza eman liçon. Pilatusec emanic, jin cen eta Jesusen khorpitza eraman cian.

<sup>39</sup> Nicodema ere, çouin lehenago jouan beitcen gaiaz Jesusengana, jin içan cen eta ekharri cian ehun liberaren ungurunia myrrha eta aloes nahassiric.

<sup>40</sup> Hartu cien Jesusen khorpitça, eta oihal batez unguratu belhar urrin houn heki, judiouec ehorteco costuma dien beçala.

<sup>41</sup> Eta krucificatu cien lekhiaren khantian baratce bat bacen, eta baratce harten hobi bat, noun ezpeitcen orano ihour ere ehortcircic içan.

<sup>42</sup> Hobi harten ecarri cien Jesus, ceren judiouen Bazco mezpera beitcen, eta hobia huillan beitcen.

**19,2** bere] A B *beren*. **19,11** gutiena] A *gutenia*. **19,13** elkharaci] B *elharraci*. || tribunalian] A B *tribunalia*; cf. Sacy Ost *dans son tribunal* : Lç *iar cedin alki iudicialean* : TB *yarri cen tribunalean* : HeH *iarri cen bere alkhan*. || Gabbatha] B *Gabatha*; cf. Sacy Ost TB HeH *Gabbatha*. **19,14** Judiouer] A *Judioner*. **19,18** erdian] A *ordian*. **19,19** izkiribu] A *iskiribu*. **19,24** bena deçagun chortian nouren içanen den jakin] A B *bena deçagun chortian, nouren içanen den jakin deçagun*; cf. Lç *baina daguigun harçaz çorthe ceinen içanen den* : TB *aurthic deçagun zorterat, yaquiteco norentçat içanen den* : HeH *emagun chorte, norentçat içanen den*. **19,28** Jesusec] A *Jesasec*. **19,29** ountci] A *ouutci*. **19,30** erran] A *eran*. **19,33** ikhousiric] B *ikhoussiric*. **19,32** Jesuseki] A B *Jesureki*. **19,36** eçurretaric] A *eçurretaric*. **19,38** Arimathecouac] A B *Arimathecoua*. **19,39** myrrha] A B *myrtha*. **19,40** ehorzteco] A B *ehorteco*.

<sup>31</sup> *mezpera*: “Mezpera aparece en Eguiateguy, *Saint Julien* e Iztueta, *mespera* en *CatLan*” (OEH, s.v. BEZPERA).

<sup>37</sup> *cilatu*: Zuberoan *lh* igurikatzen dugu, baina Ürrütik bitan ematen du hasperenik gabe; cf. *cilouac* 20,25.

<sup>40</sup> *belhar urrin houn heki*: beharbada *belhar urrin houneco heki* (edo *hounecoeki*) behar luke; cf. *aromatezco ussainequin* Lç; *ussain onequin* TB; *belhar urrin onecoequin* batean HeH.

## XX. CAPITULIA

<sup>1</sup> Asteco lehen egunian, Maria Madalena jin cen goicic hobiala, orano ulhun celaric, eta ikhoussi cian harria idekiric içan cela hobi gagnetic.

<sup>2</sup> Laster eguin cian, eta jouan cen Simon Pierragan, eta beste dicipulu Jesusec maite cianagana, eta erran ceren: «Jauna, eraman die hobitic camporat, bena eztakigu noun ecarri dien».

<sup>3</sup> Ordian Pierra elkhi cen berhala beste dicipulu hareki, eta jin ciren hobiala.

<sup>4</sup> Biac başouatçan lasterca, eta beste dicipulu houra aitcinturic Pierrari, lehenic heltu cen hobiala.

<sup>5</sup> Eta aphalturic, ikhoussi çutian oihalac lurrian, bena etcen sarthu.

<sup>6</sup> Bena Simon Pierra ondotic jouaiten beitcen heltu cenian, sarthu cen hobian, eta ediren çutian bazter batian oihalac,

<sup>7</sup> eta Jesusen burian ecarri cien hil mihissia, çouin ezpeitzen beste oihaleki, bena plegaturic beste lekhu batetan.

<sup>8</sup> Ordian beste dicipulu lehenic hobiala heltu cena ere sarthu cen, eta ikhousi cian, eta sinhetxi,

<sup>9</sup> ceren etçakien orano noula erakhasten dian izkiribiac, Jaunac behar ciala hiletaric phiztu.

<sup>10</sup> Ordian dicipuliac utçuli ciren beren etcherat.

<sup>11</sup> Bena Maria campouan hobiaren khantian çagouen nigarrez. Eta nigarrez celaric, aphaltu cen eta so eguin cian hobi barniala,

<sup>12</sup> eta ikhoussi çutian bi ainguru chouriz beztituric, jariric Jesusen khorpitça etçanic içan cen lekhialat, bata buruco, bestia hougneco aldetic.

<sup>13</sup> Ainguriec erran ceren: «Emaztia, certaraco nigar eguiten duçu?» Arrapostu eman ceren: «Certaco eraman beitire Jauna eta ezpeitakit noun ecarri dien».

<sup>14</sup> Eta hori erran cianian, utçuli cen guibelialat, eta ikhoussi cian Jesus tchuti; bena etcian eçagutzen Jesus cela.

<sup>15</sup> Jesusec erran cion: «Emaztia, certaco çaudé nigarrez? Nour tcherkhatcen duçu?» Harec, oustez baratceçaigna cen, erran cion: «Jauna, çuc khentu baduçu, erradaçut noun ecarri duçun, eta eramanen dit nic».

<sup>16</sup> Jesusec erran cion: «Maria!» Eta berhala utçuliric, erran cion: «Rabboni!» Erran nahi da: «ene Naussia».

<sup>17</sup> Jesusec erran cion: «Eneçaçula hounki, ceren eniz orano ene Aitaganat igaran; bena çouaça ene anaietara, eta erreçu: “Igaraiten niz ene Aitaganat, eta cien Aitaganat, ene Jincouaganat, eta cien Jincouaganat”».

---

<sup>13</sup> *certaraco*: destinatiboaren morfema izan arren, galdetzaile honek kausa hertsia adierazten du, aingeruek negarraren zergatiaz galdetzen baitute; cf. galderazko *certaco* 1,25, 4,27, 7,23, 7,45, 9,27, 12,5, 20,15. TBk *certaco* ematen du, eta HeHk *ceri eguiten dioçu negar?* Bestenaz, bada zehar galderako *certaco* kausala (13,28), bai eta erantzunetakoa ere (5,18, 20,13).

<sup>18</sup> Maria Madalena jouan cen dicipulier berri horen eramaitera, Jauna ikhoussi ciala, eta erran ceitçola gaiça horic.

<sup>19</sup> Egun hartaco arratxaldian, çouin beitcen asteco lehen egunecoua, eta dicipulien etchenco bortha cerraturic celaric judiouen lotxaz, Jesus jin ceren ororen erdiala, eta erran ceren: «Bakhia dela cieki!»

<sup>20</sup> Eta hoi erran ondouan, erakoutxi ceitcen bere eskiac eta bere saihetxa. Eta dicipuliec boztario handi bat ukhen cien Jaunaren ikhoustez.

<sup>21</sup> Jesusec erran ceren berriz ere: «Bakhia dela cieki! Ni Aitac igorri naian beçala, nic ere ciec igorten çutiet».

<sup>22</sup> Horic erran eta, bouhatu cian hetan gagna, ciouelaric: «Oricie Espiritu Saintia.

<sup>23</sup> Nouri ere bekhatiac pharkhatcenbeitutucie, hari pharkhaturic içanen çaitço; eta nourenac ere edukicobeitutucie, harenac edukiric dirade».

<sup>24</sup> Thomas, hamabietaric bat, Didyma deithia, etcen haieki Jesus jin içan cenian.

<sup>25</sup> Erran ceren beste dicipuliec: «Jauna ikhoussi dugu». Bena erran ceren harec: «Ezpalimbadut ikhousten haren eskietan itce cilouac, eta ezpadut eçarten ene erhia itcen lekhian, eta ezpadut eçarten ene eskia haren saihetxian, eztut sinhetxiren».

<sup>26</sup> Hantic çortci egunen burian, dicipuliac ber lekhian cielaric, eta Thomas aldi harten haieki cen, Jesus jin ceien, bortha cerraturic celaric, eta jarriric haien erdian, erran ceren: «Bakia dela cieki!»

<sup>27</sup> Guero Thomasi erran cian: «Eçarçu çoure erhia hebentche, eta soguiçu ene eskier; huillant eçaçu çoure eskia, eta hounc eçaçu saihetxa; eta etcituala içan sinetx gogor, bena fidel».

<sup>28</sup> Thomasec arrapostu emanic, erran cion: «Ene Jauna, eta ene Jincoua!»

<sup>29</sup> Jesusec erran cion: «Ikhoussi naiçulacoz, Thomas, sinhetxi duçu; ounxa irous diate ikhoussi gabe sinhesten dianac!»

---

<sup>19</sup> *Bakhia dela cieki!*: *izan* aditzaren subjuntibozko forma sintetikoa, jusiboa adierazten duena, egungo batuan *izan dadila*.

<sup>22</sup> *Oricie*: *orizue*, “Tenez, voyez, remarquez” (Harriet apud OEH, s.v. ORIZU). ORIZUE sarreran OEHk Ürrütiren pasarte hau jasotzen du. *Orizu* & *orizue* forma aurkezkari gisara erabil daitezke; halere, bertset honetan aditzaren balio etimologikoa datza. Cf. *Recevez le Saint-Esprit* Sacy, Ost; *Recebi eçaque Spiritu saindua* Lç; *errecebi çaque Izpiritu saindua* TB; *Oriçue Ispiritu Saindua* HeH.

<sup>23</sup> *edukico ... edukiric*: aditzaren semantika zaharra, hots, ‘gorde, mantendu’; cf. *ils seront retenus à ceux à qui vous les retiendrez* Sacy; *ceux à qui vous les retiendrez, ils leur seront retenus* Ost; *nori ere beguiratcen baitdiotçue, beguiratuac içanen dire* TB.

<sup>25</sup> *cilouac*: ikus *cilatu* 19,37.

<sup>27</sup> *huillant ... hounc*: itxura berriko aditzoinak, partikularzki bigarrena, Ürrütiren zubereran -ki saileko aditzen aditzoinek oro har ez baitute berezko -i galdu.

<sup>29</sup> *dianac*: *dienac* ‘dutenak’ igurikatzen dugu; ikus *cenetaric* ‘zirenetarik’ 12,2 eta bertako oharra.

<sup>30</sup> Bena Jesusec eguin içan du orano beste hanitx miracuillu bere dicipulien aitcinian, ezpeitira izkiribaturic libru hountan.

<sup>31</sup> Bena gaiça horic izkiribaturic dira, sinhetx decaçien Jesus-Krist dela Jincouaren semia, eta sinhetxiric ukhen decaçien bicitcia haren icenian.

**20,3** elkhi] B *elki*. **20,8** ikhousi] B *ikhoussi*. **20,9** erakhasten] A B *erakharten*; cf. Sacy *enseigne* : HeH *erakhasten*. **20,11** çagouen] A B *çaguen*; cf. *çagouen* 1,39 & 9,8, *dagouena* 11,4, *dagouen* 14,10, *eztagouena* 15,6, *beitçagouen* 18,6. **20,15** eramanen] B *erramanen*. **20,18** eramaitera] B *erameitera*. || gaiça horic] A B *gaiçac horic*. **20,19** eta erran] A *eta eta erran*. **20,20** erakoutxi] B *errakoutxi*. **20,22** horic] B *horric*. **20,23** beitutucie] A B *beitucie*; cf. perpausaren hastapeneko *beitutucie*. **20,26** eta Thomas] B *Thomas*; cf. Sacy *et Thomas avec eux* : Lç, TB, HeH *eta Thomas*. **20,27** çoure] A B *çure*.

## XXI. CAPITULIA

<sup>1</sup> Jesus orano aguertu cen bere dicipulier, Tiberiaco itxasouaren bazterrian, eta aguertu cen guisa hountan.

<sup>2</sup> Simon Pierra, eta Thomas, Dydima deithia, eta Nathanael Cana Galilecoua, eta Zebedearen semiac, eta beste bi dicipulu alkharreki ciren.

<sup>3</sup> Simon Pierrac erran ceren: «Banoua arrantçura». Hec erran ceren: «Bagouatça gu ere çoureki». Eta berhala barkha batetara igaran ciren, eta gai hartan etciren deus ere hatçaman.

<sup>4</sup> Eta goiça jin cenian, Jesus aguertu cen hour bazterriala, bena dicipuliec etciren eçagutu Jesus cela.

<sup>5</sup> Jesusec erran ceren: «Ene haurrac, baducieia arrain tchipi çouimbait jateco?» Arraposta eman ceren: «Ez, eki».

<sup>6</sup> Erran ceren: «Ourthouc eçacie saria barkharen eskugneco aldialat, eta hatçamanen ducie». Ourthouki çien, eta etcien haboro eraikitzen ahal, haimbeste beitzen cargaturic arrainez.

---

<sup>2</sup> *Galilecoua*: 1873ko eta 1888ko edizioetan *Galitecoua*; *t* → *l* horrezaz landara ediziogile honek ez du -a gehitu, ments hori beharbada frantses formaren eragina delako.

<sup>3</sup> *arrantçura*: “pêche” (Gèze, s.v. ARRANZUN), “usado por autores vizcaínos, navarros y suletinos” (OEH, s.v. ARRANZTU).

<sup>5</sup> *eki*: “Cet adverbe porte deux sens, l’un affirmatif, l’autre dubitatif” (Harriet ap. OEH, s.v. EIKI). “La forma *eki*, si no se trata de errata, se documenta en Inchauspe y (junto a *eiki*) en la ed[ición]. de 1853 de *Philotea de Haraneder*” (OEH, s.v. EIKI). Bertset honetan HeHk *eiqui* dakar; beraz, Ürrütiren etsenplu hau *eki* aldaeraren egiazkotasuna indartzera datorke.

<sup>6</sup> *cien ... etcien*: 1873ko nahiz 1888ko edizioetan *çutien* ... *etçutien* datza, itzulpen afera bategatik. Bada, bertsio gehienetan *sarea* (*le filet*) singularrean erabilia da, baina TBk pluralean dakar: *aurthic eçatçue sareac barkhuaren escuineco alderat, eta aurquituco duçue*. *Aurthiqui cituzten beraz eta ez cituzten alchatcen ahal arrain-mulçoa cela casu*. Ene aieruan, bertset honen itzultzean Ürrütik Sacy zein TB izan zituen mahaigainean: sarearen numeroaz apart, EvSko *haimbeste beitzen cargaturic arrainez* formulazioak Sacyrenean baizik ez dezake bere iturria atzmanan: *tant il était chargé de poissons* Sacy, vs à cause de la grande quantité de poissons Ost.

<sup>7</sup> Ordian Jesusec maite cian dicipulu harec erran cian Pierrari: «Jauna da hori». Eta Simon Pierrac entçun cian beçain sarri Jauna cela, jauntxi çutian bere sougnecouac, ceren picarrai beitcen, eta itchassouala jautxi eguin cian.

<sup>8</sup> Beste dicipulieci jin ciren, ezpeitciren lurretic hurrun, bena noumbait ehun eta berrogei eta hamar urhatxen ungarunia, eta ekharri cien saria herrestan arrainez betheric.

<sup>9</sup> Lurrialalera itxarren, ikhoussi ciren inkhatz phizturic, eta arrain hartan gagnen, eta oguaia.

<sup>10</sup> Jesusec erran ceren: «Ekharcie orai hartu dutucien arrainetaric çoumbait».

<sup>11</sup> Simon Pierra igaran cen eta thiatu cian saria lurrialalal, ehun eta berroguei eta hamahirour arrain handiz betheric; eta haimbeste içanagatic, saria etcen urratu.

<sup>12</sup> Jesusec erran ceren: «Tciauste, jan eçacie». Eta dicipulietaric batec ere etciren ausart hari galthatcera: «Nour cira?»,beitçakien oroc Jauna cela.

<sup>13</sup> Jesusec oguaia harturic eman ceren, eta arrain ere bai.

<sup>14</sup> Hau cen hirourguerren aldia Jesus aguertcen cela, hiletaric phiztuz gueroz.

<sup>15</sup> Eta jan cienian, Jesusec erran cian Simon Pierrari: «Simon, Jonasen semia, maite naicia hoiec beno haboro?» Arrapostu eman cian: «Bai Jauna, badakiçu maite çutudala». Jesusec erran cian: «Bazca itçatçu ene achouriac».

<sup>16</sup> Berriz erran cion: «Simon, Jonasen semia, maite naicia?» Arrapostu eman cion: «Bai Jauna, badakiçu maite çutudala». Erran cion: «Bazca itçatçu ene achouriac».

<sup>17</sup> Erran cion hirourguerren aldian: «Simon, Jonasen semia, maite naicia?» Pierra tristetu cen bere beithan, ceren galthatu ceion hirourguerren aldicoz maite cianez. Eta arrapostu eman cion: «Jauna, çuc gaiçac oro badakitçu; badakiçu ere maite çutudala». Jesusec erran cion: «Bazca itçatçu ene ardiac.

<sup>18</sup> Egiazki, egiazki erraiten deiçut: Gaztiago cinenian, cihau guerricatcen cinen eta cihau nahi cinen aldialat jouaiten; bena çahartu ciatekienian hedatu behar ukhenen tuçu çoure eskiac, eta beste batec guerricatuco çutu, eta eramanen çutie nahi eztukeçun lekhialat».

<sup>19</sup> Erran cian hori eçaguterazteco cer heriotaric behar cian Jincoua lorificatu; gaiça horic erran ondouan, erran cion: «Jarraiki neçaçu».

---

<sup>7</sup> *picarrai*: Amiküze eta Zuberoako hitza, guztizko biluztasunaren ideia adierazten duena, “tout nu, dénudé, sans la moindre chose qui couvre la nudité complète” (*VocBN apud OEH*, s.v. PIKARRAI).

<sup>12</sup> *batec ere*: bat ere espero genuke; cf. *Et nul de ceux qui se mirent là pour manger, n'osait lui demander Sacy; Et aucun des disciples n'osait lui demander Ost; Eta discipuluetaric batere etzayón venturatzen interrogratzera Lç; Discipuluetaric batere ez cen menturatzen hari galdeguiterat TB; etcitçayon nehor ausartatu içan galdetcera HeH*. Halere, Ürrütik pluraleko komunzadura erabili du.

<sup>17</sup> *maite cianez*: Ürrütiz landara, konparatu diren bertsioen artean soilik HeHk baliatzen du zeharkako estiloa: *Gaititu citçaion bihotcean Piarresi, ceren gadeguin cioen hirurgarren aldicotz, maite çuenetz.*

<sup>18</sup> *guerricatuco*: 1873ko eta 188ko edizioetan *guerricatu*; cf. *un autre vous ceindra Sacy; un autre te ceindra Ost; guerricaturen Lç; guerricatuco çaitu TB; guerricaturen çaitu HeH*. Partizipio prospektiboaren formaz denaz bezainbatean, ikus *eçagutuco* 8,28 eta bertako oharra.

<sup>20</sup> Eta Pierra, utçuliric ikuoussi cian Jesusec maite cian dicipulia jiten haien ondotic (azken apaidian Jesusen boulharraren gagnen buria ecarri cian hora bera) galthatu betceion ere: «Jauna, nour da salduren çutiana?»

<sup>21</sup> Hora bera ikuoussiric Pierrac, erran cian Jesusi: «Jauna, eta houni, cer heltuco çaoi?»

<sup>22</sup> Jesusec erran cion: «Cer eguiten çaiçu çouri, nahi badut egon dadin ni arrajin artino? Çuc jarraiki neçaçu».

<sup>23</sup> Elhe hoi ebili cen anaien artian, dicipulu harec etciala hil behar. Jesusec etcian erran ordian «Ezta hilen», baicic ere: «Bardin hola nahi badut egon dadin hori ni arrajin artino, cer eguiten çaiçu çouri?»

<sup>24</sup> Dicipulu hora da gaiça horiez jakitate errendatcen diana, eta horic izkiribatu dutiana, eta badakigu haren jakitatia eguiazcoua dela.

<sup>25</sup> Badirade orano beste hanitx gaiça ere Jesusec eguinic, çougnac izkiribaturic balia behar den chehetarçunian, eztut ouste mundiac etcheki ahal letçaken izkiribatcen lukien libriac.

#### HALABIZ.

**21,1** Galilecoua] A B *Galitecoua*. **21,6** cien] A B *çutien*. || etcien] A B *etçutien*. **21,15** haboro] A *hobero*. **21,17** badakiçu] B *badakitçu*. **21,18** ciatekienian] A B *ciatekienan*; cf. *datekienian* 7,27, 7,31, 13,19, 15,6, 15,26, 16,4, 16,8 & 16,13 eta *niçatekienian* 12,32 & 14,3. || guerricatuco] A B *guerricatu*; cf. TB *berce batec guerricatuco çaitu* : HeH *bertce batec guerricaturen çaitu*. **21,25** lukien libriac] A B *lukan libria* ikus testuaren orrieko oharra.

---

<sup>19</sup> *heriotaric*: gainerako euskaratzailleek instrumentalala erabiltzen dutelarik, Ürrütik ablatiboaren morfemaren aldeko hautua egin du, menturaz frantsesaren originalean sentitzen den balio prolatiboa markatzeko; cf. *pour marquer par quelle mort il devait glorifier Dieu* Sacy.

<sup>22</sup> *Cer eguiten çaiçu çouri*: cf. *que vous importe*? Sacy; *que t'importe*? Ost; *cer mengoa duc hic*? Lç; *cer çauçu*? TB; *Cer dohaquiqueçu çuri*? HeH.

<sup>23</sup> *Bardin*: ikus *bardin* 5,31.

<sup>25</sup> *izkiribatcen lukien libriac*: 1873ko zein 1888ko edizioetan *libria* datza. Cf. *je ne crois pas que le monde même pût contenir les livres qu'on en écrirait* Sacy; *je ne pense pas que le monde pût contenir les livres qu'on en écrirait* Ost; *munduac-ere eztut uste eduqui litzaqueela scriba litzquen liburuac* Lç; *munduac [...] iasain letçaqueen hartaracotz isquiribatu behar litzquen liburuac* HeH; *munduac itchic ahal leçaquela izcriba leçaqueten liburua* TB. Halere, Ürrütik absolutibo plurala eman du aditzean (*letçaken*) komunztadura arazoa azaleratuz. Baliteke bertset honetan Ürrütik TB begien aitzinean ukana lezan, eta horregatik *libria* singularrean eman? Bada, *letçaken* ‘litzaqueen’ formaren ABS erreferentea pluralean izan behar da, hots, *libriac* eta ez *libria*. Bestalde, Leizarragak edo Haranederrek baliatu duten egitura inpertsonala —*scriba litzquen liburuac*— zubereraz sintaxi diferente batean ematen da, laguntaile iragankorraz: euskara batuaren *etxeak saltzen dira perpausaren zubererazko baliokidea da etxiak saltzen die* ‘dute’. Haatik, Ürrütiren *izkiribatcen lukan libria* balio inpertsonaleko erlatibozko perpausa guztiz gramatikala da, baina bertsetak plurala eskatzen du: *izkiribatcen lukan libriac*. Azken erremaraka gisara, erran dezadan *-ke* + *-e* pluralgilea uztartzean Ürrütik erregularzki ematen duela *-kie*, eta ez zuberera klasikoaren *-keie*; horregatik *lukan* zuzendu da, eta ez *lukeien*; cf. *beitciratekie* 5,20 eta bertako oharra.